

56



LAN-KOADERNOAK
CUADERNOS DE TRABAJO
WORKING PAPERS

Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna

Mertxe Larrañaga
Yolanda Jubeto



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
INBIZKARTERKO LANAKETA ETA GARAIPENARI BURDUKO INBIZKETA INSTITUTUA



Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna

Mertxe Larrañaga
Yolanda Jubeto

Mertxe Larrañaga ekonomian doktore da, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea eta Hegoako ikertzailea.

Yolanda Jubeto ekonomian doktore da, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea eta Hegoako ikertzailea.

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzak 2008 GLSF proiektuetarako deialdian, «Euskal lankidetzaren erakunde esparru berria: genero-ekitatearen eta tokiko partaidetzaren aldeko lana indartzeko aukera» izenburupean, onartutako proiektuaren emaitza da.

Honako hauek osatu dute ikerketa taldea: Jokin Alberdi, Gloria Guzmán, Yolanda Jubeto, Luis Guridi, Mertxe Larrañaga, María López, Iván Molina eta Unai Villalba.



HEGOA

www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU
Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU
Carlos Santamaría
Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64 • Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU
Arabako Campus-eko Liburutegia
138 kutzatila. • Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. • Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.es

Tokiko giza garapena
eta genero berdintasuna
Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto

Hegoaren Lan Koadernoak
56. zenbakia
2011ko maiatza

L.G.: Bi-1473-91 • ISSN: 1130-9962
Euskarazko itzulpena: Labayru Ikastegia
Argitalpena: Lankopi, S.A.
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Generikoa Espainia

Dokumentu hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopian, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>

Aurkibidea

Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna

Siglen eta laburduren glosarioa	5
I. Hitzazurrea	7
II. Sarrera	9
III. Garapenari eta ongizateari buruzko eztabaidak	11
III.1. Aurrekariak	11
III.2. Luze alboraturiko ikaskizun batzuen gaurkotasuna	13
III.3. Pentsamendu postkolonialaren ekarpenak	15
III.4. Genero-harremanak garapenari buruzko pentsamenduan	16
III.5. Generoaren kontzeptua Genero eta Garapena (GEG) ikuspegian	18
IV. Gaitasunen ikuspegia genero-ekitatetik	21
IV.1. Giza garapenaren kontzeptua: askatasunen eta justiziaren berezko balioa	21
IV.2. Tokikoaren garrantzia giza garapenean	26
IV.3. Giza segurtasunaren eta autonomiaren esanahia emakumeentzat	30
V. TGGaren adierazleen mugak eta potentzialtasunak	35
V.1. Estatistiken garrantzia	35
V.2. Genero-adierazleak	37
V.3. Genero-desberdintasunak: Peru, Ekuador eta Guatemala erkatzeko azterketa	44
VI. Azken gogoetak	53
VII. Bibliografia	55
Taula eta grafikoen zerrenda	59

Siglen eta laburduren glosarioa

AECID	Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentzia
AHT	Amen heriotza-tasa
BEU	Batez besteko eskolatzeko-urteak
BHOP	Bigarren Hezkuntza osoa gutxienez egina duen 25 urteko eta gehiagoko populazioa
BPGd	Barne Produktu Gordina
CEDAW	Emakumeen aurkako Bazterkeria Mota Guztiak Desagerrarazteko Hitzarmena
CEPAL	Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoa
DAWN	Development Alternatives with women for a New Era
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAEI	Emakumeen Aukera Ekonomikoen Indizea
EG	Emakumeak Garapenean
ELGA	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea
EMP	Elikagaien Mundu Programa
FAO	Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundea
GAGI	Genero Arrail Globalaren Indizea
GDI	Genero Desberdintasunaren Indizea
GEG	Generoa eta Garapena
GEI	Genero Ekitatearen Indizea
GG	Garapen-galera, banaketaren desberdintasunaren ondorioz
GGI	Giza Garapenaren Indizea
GGI-D	Desberdintasunak Doitutako Giza Garapenaren Indizea
GGKE	Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea
GLI	Generoari Lotutako Garapen Indizea

GLI-D	Desberdintasunak Doitutako Generoari Lotutako Garapen Indizea
GLSF	Garapenerako Lankidetzaz Sustatzeko Funtza (Eusko Jaurlaritza)
GSI	Genero Sustapenaren Indizea
HABITAT	Hiri Kokalekuetarako Nazio Batuen Agentzia
HSG	Herrialdeko per capita sarrera gordina erosahalmen-parekotasunean
IEU	Itxarondako eskolatzeko urteak
JBI	Jaiotze-unekeko bizi-itxaropena
LAK	Latinoamerika eta Karibe
LANE	Lanaren Nazioarteko Erakundea
LIPT	Lan-indarreko partaidetza tasa
NBE	Nazio Batuen Erakundea
OME	Osasunaren Mundu Erakundea
PA	Parlamentuko aulkiak
PMI	Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea
SIGI	Gizarte Instituzio eta Generoaren Indizea
TGG	Tokiko giza garapena
UNDP	Nazio Batuen Garapenerako Programa
UNEP	Ingurumenerako Nazio Batuen Programa
UNESCO	Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea
UNFPA	Nazio Batuen Populazio Funtza
UNHCR	Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa
UNICEF	Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtza
UPV-EHU	Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea
UT	Ugalkortasun-tasa

I. Hitzaurrea

Lan-koaderno hau *Euskal lankidetzaren erakunde esparru berria: genero-ekitatearen eta tokiko partaidetzaren aldeko lana indartzeko aukera* deritzon ikerketa-proiektuaren barruan kokaturik dago, eta hori 2008ko GLSFaren deialdian Eusko Jaurlaritzak finantzatutako proiektua da.

Ikerketak bi urte iraun du, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko zortzi ikertzailek osatutako talde batek¹ egin du. Ikerlanaren xede nagusia izan da Tokiko Giza Garapenaren esparrutik (TGG) funtsezko elementuak ekartzeari euskal lankidetzaren deszentralizatuaren kalitatea hobetzeko. Zehazkiago, maila teorikoan, TGGaren bi ardatz nagusien ekarpenaz egin da gogoeta –genero-ekitatearen eta herri partaidetzaren ekarpenaz, hain zuzen ere–, pertsonentzako ongizate handiagoa ahalbidetzen duten banakoen zein kolektiboen gaitasunak sustatzeari dagokionez. Azterketaren atal aplikatuagorik, hamarkada batean (1998-2008) EAeko erakunde nagusiek lau herrialdetan aurrera eramandako lankidetzaren proiektuen segimendua egin da. Herrialdeok EAeren funtsen hartzaile nagusien artean daude: Peru, Guatemala, Ekuador eta SAED. Erkaketa horren helburua zen, oinarri kuantitatibo batetik abiatuz, nagusiki kualitatiboa izango zen balioztapen bat egitea, TGGak aurrera egiteko erabakigarriak diren faktoreak ezagutu eta identifikatzeko, bai eta euskal

lankidetzaren deszentralizatuaren eragilearen jardunbide egokiak ere, proiektu horietan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bai lankidetzaren herrialdeetan, parte hartu duten kolektiboetako emakume eta gizonen ikuspegi eta ekarpenei garrantzi berezia emanda.

Azterketa guztian zehar, aztertutako proiektuetan nahiz proiektuok barne hartzen zituzten prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko moduak izan dira ikergai nagusiak. Horregatik, egoki deritzogu giza garapenaren funtsezko alderdi horren gaineko gogoeta bat emateari, zeharkakoa eta sektoriala izaki, beharrezkoa gertatzen baita proiektuen zikloen fase guztietan txertatzea dadin, baita ebaluazioan ere, noski.

Hartara, lan-koaderno hau aurkezten dugu, prozesu baten emaitza gisa, bai, baina ekarpen gisa ere bai, garapenerako lankidetzaren zein sistema politiko, sozial eta ekonomiko bidezkoago bat eraikitzearen lan egiten duten antolakundearen ahalguztutze-prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko garrantzian sakontzen jarraitze aldera.

Hitzaurre honi amaiera eman aurretik, eskerrak ematen dizkiegu bai ikerketa-taldeko kide izan direnei bai prozesu interesgarri honetan lagun egin digutenei. EAeko eta Latinoamerikako hainbat GGKEetako pertsona horiek, beren denbora balioztatu eta laguntza

¹ Hona hemen taldekideak: Jokin Alberdi, Luis Guridi, Gloria Guzmán, Mertxe Larrañaga, María López, Iván Molina, Unai Villalba eta Yolanda Jubeto (azken horrek koordinatu du taldea).

ez ezik, funtsezko gakoak ere eman dizkigute alderdi batzuek eta besteek lankidetzaren inguruan hautematen eta bizi izaten dituzten ikuspegiak zehatzago eza-gutzeko. Horiei guztiei zein horrelako gaien gainean eztabaida-lagun izan ditugun eta begirada aberasten lagundu diguten Hegoako kideei geure esker on benazkoena adierazten diegu.

Egileak
Bilbo, 2011ko maiatza

II. Sarrera

Koaderno honen helburua da genero-ekitatearen alde-
tik gaitasunen ikuspegiak –gizartean zein haien gara-
tze-prozesuen azterketa egiteko garaian– eskaintzen di-
tuen potentzialtasunez gogoeta egitea, azterketa-esparru
horrek beti askotarikoak izaten diren gizarte batzuetako
emakume eta gizonen ongizatearen kontzeptuari egi-
ten dizkion ekarpenak nabarmenduta. Azken hamar-
kadetan larriagoturiko krisi gainjarri ugariaren ondo-
rioz (elikagai-krisia, krisi energetikoa, finantzarioa,
ekonomikoa, politikoa, zainketen krisia, eta abar), na-
zioarteko egitura sozioekonomiko eta politiko nagu-
sien krisia bereizgarritzat duen egungo une historiko
honetan, uste dugu tokiko giza garapenaren ekarpe-
nek era positibo eta burutsuan eragin dezaketela ja-
rraitu beharreko estrategien gaineko eztabaidan.

Koadernoaren egiturak bi multzo handi dauzka, bata
teorikoagoa, eta bestea aplikatuagoa. Lehen multzora-
ko, honako asmo hauek izan ditugu: garapenaren in-
guruko teoria tradizionalekin erkaturik, ikuspegi ho-
nek dituen kidetasunak eta aldeak agerian jartzea,
gogoeta horretan pentsamendu postkolonialaren ga-
rrantzia kontuan izanik; nola generoak prozesu so-
zioekonomiko guztiak zeharkatzen dituen azaltzea;
hazkundearen eta garapenaren arteko dialektikako
gako batzuk aditzera ematea; eta hautabidezko gara-
pen baten bilaketan egin diren proposamen praktikoko
batzuk, arestikoak eta erabat berriak, nabarmentzea.
Halaber, emakume eta gizonen gaitasunak handitzeko
tokiko eremuak eskaintzen dituen potentzialtasunak

azpimarratuko ditugu. Gogoeta egingo dugu, era be-
rean, guztientzat funtsezkoa izan arren emakumeen-
tzat garrantzi berezia duen alderdi bati buruz, izan ere,
hura gabe bizitzako arlo guztietan aukerak zeharo mu-
gatzen zaizkie: segurtasunari eta autonomiari buruz,
hain zuzen ere.

Koadernoko bigarren multzoan, emakume eta gizonen
errealitatea ezagutzeko, arazoak identifikatzeko, eta
konponbideak proposatu eta ebaluatzeko oinarritzakoak
diren tresna batzuetan jartzen da arreta: adierazle eta es-
tatistiketan, alegia. Atalak, hain zuzen ere, bi helburu
ditu. Alde batetik, genero-adierazleez gogoeta egin nahi
dugu, estatistikez eta gehien erabiliriko nazioarteko
adierazleez bereziki, hala nola, Nazio Batuen Garapene-
rako Programak (UNDP) proposaturikoez. Beste alde
batetik, sexuaren arabera banakatutako datuekin gaur
egun herrialdeei egin dakiekeen argazkia ikusi nahi
dugu, bai eta argazki horien zehaztasunik eza ere, gure
iritziz funtsezkoak diren datu batzuk falta direlako. Ho-
rretarako, mundu-mailan ezin eztabaidatuzko errefe-
rentzia-puntua den agiri batean generoaren inguruko
gaiak nola txertatzen diren begiratzea aukeratu dugu,
hain zuzen ere, UNDPren *Giza Garapenari buruzko
Txostena* delakoan. Ariketa praktikoa horretan, gure
ikerketaren arreta jaso duten Latinoamerikako hiru he-
rrialdeak hartuko ditugu erreferentziazat: Peru, Ekua-
dor eta Guatemala. Koadernoari amaiera emateko, az-
ken gogoeta batzuk adieraziko ditugu laburki.

III. Garapenari eta ongizateari buruzko eztabaidak

«Ongizate» terminoa osatu da baliabide naturalen harrapaketan, munduko zorigabekoen esklabotzan, emakumeen baliogabetzean, haurren erabilera onartezinean –produktutzat eta eskulan merketzat– eta gerra-indarraren erabilera zentzugabeen oinarrituz.

Marilyn Waring

III.1. Aurrekariak

Garapenaren kontzeptuak oso lotura estua du Mendebaldean XVIII. mendearen bukaeran izan zen industria-iraultzaren emaitzekin. Iraultza horren jatorria XV. mendearen bukaeraz geroztik Ameriketako herrien kolonizazio-prozesuetan gertatu zen kapital-metaketa kokatuta dago². Prozesu horiek, gero, munduko gainerako aldeetara zabaldu ziren pixkanaka.

Diru-kopuru handia edukitzeak, lurren pribatizazioak (herri-lurak desagertu ziren), eta lur horietatik biztanle gehienak bota izanak –orduz geroztik lan-indarra baino izango ez zutelarik–, industria kapitalistan erabilitako aurrerapen teknologikoekin batera, beste faktore batzuen artean, inoiz ez bezalako ekonomia-hazkundea ekarri zuten. Industria-ekoizpenaren gehikuntza horrek eta ondoriozko kapital-metaketek, esplotazioan eta lanen desbalorizazioan oinarriturik, aldaketa sakonak eragin zituzten bai Mendebaldeko

gizarteetan bai kolonietan, baina era desberdinetan. Testuinguru horretan sortu zen pixkanaka aurrerakuntzaren kontzeptua, eta Mendebaldeko modernitatearen bereizgarri bilakatu zen.

Mende horietan zehar gizartean gertaturiko aldaketek bide eman zuten mito bat sortzeko, gizakiek natura erabat mendera zezaketela zioena. Hala, natura beste ekoizpen faktore bat gehiago balitz bezala hartu zen: lurra eta haren osagaiak natur baliabide ustigarri bihurtu ziren, eta, hortaz, pribatizagarri, merkaturagarri eta kapitalaren interesen zerbitzuko (Polanyi, 2003). Sistema kapitalistaren azken xedea aldi horretan umotu eta zabaldu zen, eta epe laburrera ahalik eta etekin ekonomikorik handiena lortzean zetzan, sistemaren epe luzerako iraunkortasuna bazter utzita, ez planetaren mugak ez esplotazio kapitalistak gizarteko gehienez zatituen ondorioak ez baitzituzten kontuan hartzen kalkuluetan.

Ekonomia-jardueri buruzko ikusmoldea gero eta erredukzionistagoa izan zen, eta horrek merkataritzako ekonomia-jarduera pixkanaka arlo politikotik isolatu zuen, bai eta bizitza erreproduzitzeko oinarritzko gainerako jardueretatik ere, euskarri zituen horietatik, hain zuzen ere. Merkatu autorregulatuen falazia, merkatu-ekonomiaren oinarria, alegia, bakarrik da bidegarria “baldin eta gizartea nolabait haren eskakizunetara makurtzen bada [...] Merkatu-ekonomia batek

² Karl Marxek “jatorrizko kapital-metaketa” deitu zion *Kapitala* laneko XXIV. kapituluari, batez ere Ameriketako kolonizazioez eta afrikar esklaboen salerosketaz ari zela. Halaber, Adam Smithek “aurretiko metaketa” deitu ziola aipatzen du.

industriaren osagai guztiak barne hartu behar ditu, eskulana, lurra eta dirua barne. Baina gizon-emakumeak berak, gizarte oro eratzen dutenak, eta gizarte oro egoten den natura-ingurunea dira eskulana eta lurra, besterik ez. Osagai horiek merkatu-mekanismoan sartzen direnean, gizartearen beraren substantzia merkatuko legeen mende jartzen da” (Polanyi, 2003: 122).

Halaber, merkatu-eredu horrek kanpo uzten ditu, ekonomikoa ez direlakoan, merkatutik pasatzen ez diren bizitzaren iraunkortasunari lotutako jarduerak, merkataritza-osagairik ez dutenez, kuantifikatzen zailak eta baztertzeko errazak direla argudiatuz (Waring, 1988; Pujol, 1992). Era berean, ez ditu kontuan hartzen merkatuan parte hartzeko aski diru-baliabiderik ez duten planetako pertsona guztiak.

Ekonomia-sistema horrek, hala, erazutako aberastasun materialari erabateko lehentasuna eman dio, eta inoiz ez bezalako kapital-metaketa ahalbidetu du, garrantzi bera eman gabe sistemak berak behar dituen baliabide naturalen goranzko kontsumoari eta populazio-maila zabalagoen lan-esplotazioari. Baliabideak biltzeko behar horrek gatazkak eta gerrak eragin ditu bata bestearen atzetik azken bi mendeetan (haietako asko isilean gorde izan dira), eta halakoek oso gizarte militarituak sortu dituzte, bai eta orain arte ez mundubakea ez elikagai-segurtasuna bermatzeko balio izan ez dituzten nazioarteko erakunde batzuk ere³.

Hala eta guztiz ere, aurrerapen teknologikoen (gerrakoa jatorriz, eta gero gizarte zibilaren beharrianak asetzeko aplikatuak, sarritan), eta halakoek ekoizpena emendatzeko eskaintzen zituzten aukerak diru-sarreak dituzten pertsonen kontsumo-ahalmena handi dadin eragin dute –haien zorpetzea ere handituz, aldi berean–, eta horrek ilusio bikoitza sortu du. Batek, alboratu da sistema kapitalistak sustatutako “aurrerakuntzak” berekin Mendebaldeko “jende arruntaren

bizimoduaren dislokazio suntsitzaile bat” (Polanyi, 2003: 81) ekarri duela, bai eta gero eta esplotazio-maila handiago bat ere. Halaber, hasieratik, pertsonen eta gizartearen kostu handia sortu die eskala handiko ekoizpena gehitzeko behar diren baliabide naturalak zein giza baliabideak erazuten ziren –eta erazuten jarraitzen diren– gizarte kolonizatuetan. Horren erakusgarri argiena zera da, esklabotzaz era masiboan baliatu izana XIX. mendean nahikoa aurreratua zegoen arte. Esklabotza hori, bide batez, ez da oraindik desagertu, gaur egun esklabotza-mota berriak daudelako, sistemak eta sistematik etekina ateratzen dutenek milioika pertsonari⁴ inposatzen dietenak oraindik ere egungo munduan (Bales, 2000).

Hala ere, XX. mendean zehar sistema horrek aberastasun-metaketa handiagoa sortzen zuen heinean –krisi sakonak eta gero eta gatazka ugariagoak falta izan ez zirela–, gero eta herrialde gehiagok lortzen zuten independentzia Mendebaldeko metropolietatik. Garai hartan, hain zuzen ere, sortu zen *Garapenaren Ekonomia* deritzona, ekonomia “atzeratu edo azpigaratuen” (hala esaten zitzaien orduan) arazoak aztertzeko berriratzeko tresnak zituen diziplina gisa, eta handik zabaldu zen beste mito bat, alegia, gizarte guztiek, aurreratu tuko bazuten, Mendebalde kapitalistan jazariko fase berberak pasatu beharko lituzketela, hazkundeko aldi batzuen bitartez (Rostow⁵, 1960).

Hala, nagusitutako mezuaren muina zen aldezteko gizarte orenen aurrerakuntza eta garapena oinarritu behar zirela tradizionalak deituriko gizarte batzuetatik (nekazaritzan eta abeltzaintzan ziharduten gizarte batzuk gehienetan, eta diskurtso ofizialetan oso baliogabetuak) masa-kontsumoko gizarte batzuetara (haietan, industriak beharko zuen sektore nagusia) pasatzean. Azken xedea zen Ameriketako Estatu Batuetako gerraosteko bizimodua erdiestea (kapitalismoaren urrezko urteetan, XX. mendeko 50eko eta

³ Gaur egun, lurra biltzen jarraitzen dute, eta areagotu ere egin da jardunbide hori, Afrikan eta Hego Amerikan batik bat, Munduko Bankuaren babesa ere badutela (ikus txostenak hemen: www.grain.org).

⁴ Kevin Batesek (2000: 9), esklabotza berriaren gaia ikertu ondoren, kalkulatu zuen 2000. urtean gutxienez 27 milioi pertsona esklabo zeudela munduan, hots, ekonomikoki esplotatzeko, beste pertsona batzuen erabateko kontrola jasaten zuten horrenbeste pertsona (bortxazko lanak). Hala ere, ez zituen bere datuak sexuaren arabera banakatu, eta, beraz, ez dakigu zer kalkulu egin zituen egoera horretan dauden emakume- eta gizon-kopuruen inguruan. Horri lotuz, sexu-esplotazioa baino ez du aipatzen, baina oso gutxi gorabeherako zifra batzuekin.

⁵ Nahiz eta Rostowek berak *Las etapas del crecimiento económico. Un manifiesto no comunista* bere liburuko sarreran garai horiek “tresna arbitrario eta mugatua direla [...] eta tresna hori ez dela, zentzu absolutu batean, zuzena” dioen, garai horiek behin eta berrir erabili izan dira gizarte “tradizional” batetik “masa-kontsumoko” gizarte garatu batera doazen urratsak deskribatzeko.

60ko hamarkadetan), munduko gainerakoek imitatu beharreko garapen-eredutzat idealizatuta. W.W. Rostowek 1960ko hamarkadan deskribatu zuen teoria hori teleologikoki, eta egungo garapen modernizatzailearen paradigmatzat aldeztu den ereduia izan da. Hurrexe bultzatu da, hain zuzen ere, nazioarteko garapen-agentzia handiek sustatu dituzten garapenerako lankidetzako politiketan.

Proposamen horiek ez entzun egin diete eredu horrek sorrarazitako ahots kritikoei, AEBetako kapitalismoari xahubidearen gizartea deitu dioten (Bowles *et al.* 1989; Bowles *et al.*, 1992, Galbraith, 1992) eta eredu bideraezintzat jo duten (Waring, 1988) egileen ahotsei, hain zuzen ere.

III.2. Luze alboraturiko ikaskizun batzuen gaurkotasuna

Mendebaldeak bultzaturiko eta munduko beste alde batzuetara esportaturiko teoria “modernizatzaile” horrek eta beste batzuek beti alboratu dituzte lurralde kolonizatuetako jatorrizko herriek konkistaren hasieratik bertatik helarazi nahi izan zizkieten ikaskizunak.

Nahiz eta kolonizatzaileek baztertu, esplotatu eta harrapaketaz gabetutako herri askoren berri izan ez dugun, baditugu Ipar Amerikako jatorrizko herrietako buruzagiek britainiar kolonizatzaileekiko negoziazioetan egin zituzten gogoetak, bai eta Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako herrien ondorengoek egini-koak ere, azken horiek ikaskizun horietako batzuk gorde baitituzte, gaur egun Sumak Kawsay eta Suma Qamaña direlako proposamenen bidez Andeatako jatorrizko herriak berreskuratzen ari direnak.

Ipar Amerikako herriei konkistak gogoeta eginarazi zien europarrek haien lurraldeetan inposatu nahi zituzten pertsonak esplotatzeko eta naturan harrapaketa ibiltzeko praktikez, eta halakoen ondorio kaltegarriez, naturarekiko harmoniazko bizitzan zeuden orekak desegiten baitzituzten. Aholku horiek, ordea, ez zituzten aintzat hartu gizon zuriek, eta ez ziren lotsatu halako herrien ordezkariekin izenpeturiko hitzarmenak behin eta berriro urratzeaz.

Hala, bada, Duwamish herriko Seattle buruzagiak 1855ean Ameriketako Estatu Batuetako presidenteari

igorri zion mezu ezagunean⁶, azken horrek lurak kolono zuriei saltzeko eta erreserba batera joateko *proposatuta* ondoren, hain zuzen ere, munduaz herri horrek zuen ikusmoldea gizakiek naturarekin dituzten lotura hertsien arabera eraturik ageri da, eta horrek harrapaketa jarraituz gero zer gertatuko zen argi asko ikusteko bidea ematen zien. Hitz horiek jakinduria handia erakusten zuten, eta, kolonoen jokabideari behatzearen ondorioz, gaur egun itxura denez eta zoritxarrez betetzen ari den etorkizuna iragarri zuten, nozitzen ari garen krisi ekologiko larria dela bide; gure gizarteak, antza, haren ondorioez behar beste sentsibilizatuta ez daudelarik.

Baina erantzun eta erresistentzia horiek ez ziren Ameriketako kontinentean bakarrik gertatu. Esaterako, Asian, XIX. mendean zehar, britainiar gobernuak bere burua inperiotzat zuenean eta bere lege *zibilizatzailea* munduko gainerako herrialdeei inposatuz joan zenean, halako praktikek kritika gogorrak ernatu zituzten Indiako azpikontinentean. Ditugun lekukotasunen artean, Mahatma Gandhi nabarmenduko dugu, bere iritziak hainbat aldiz argi eta sendo eman baitzituen. Ez kooperatzeko kanpainaren barruan, inperioko gobernuaren aurka aritzeagatik 1922an egin zioten epaiketako adierazpenetan, honako hau esan zuen: “Britainiarrak heldu baino lehen, herrietako milioika etxetan ehuntzen eta iruten zen, nekazaritzako baliabide eskasei batzeko behar zuten gehigarri ekonomiko doia. Eskulangintzako industria hori, funtsezkoa Indiako bizimodurako, izugarri gupidagabeak eta ankerak diren prozesu batzuek hondatu dute [...] Britainiar Indian legez ezarritako gobernuak masak esplotatzea beste xederik ez du [...] Indiako legeak berak atzeritar esplotatzailea zerbitzatzeko erabili da” (Gandhi, 2008:78).

Hegoafrikan idatzitako bere lehen lanean, Gandhik dagoeneko kritikatzeko zuten zibilizazio materialista, bai eta mugarik gabeko aurrerakuntzan zuen sinestea eta pertsonentzat eta haien ingurunearentzat ideologia horrek zekartzan ondorioak ere. India osoan zehar Gandhik sustatu zuen Eraikitze Programan (*sarvodaya* edo *populazio guztiarentzako ongizatea* zeritzon), landa-eremuko India osoaren berreraikitze sozioekonomikoa aldarrikatzen zuen, Britainiar Inperiotik egiatzko independentzia lortzearen. Proiektu hura

⁶ Gran Jefe Seattle (2007): *Nosotros somos una parte de la tierra*. Olañeta, José J. (arg.) El Barquero.

herrietako eskulangintzako industriak suspertzean oinarritzen zen, haiek baitziren deszentralizazioaren euskarria. “Herrixka bakoitzak beharrezko guztia ekoitzi behar zuen, eta ehuneko gehigarri bat hiriko beharri-zanetarako”. Industria handiak nazionalizatzearen alde egiten zuen, bai eta bizitzeko behar zena banatzearen alde ere, aberatsen eta pobreen arteko arrailen murritzetan oinarrituz askatasun eta berdintasun ekonomikoa bultzatzen zuten neurri sozioekonomiko batzuen multzoarekin batera. Beste aldarrikapen batzuen artean, ukiezintasuna deuseztatzea, langileen sindikatu-antolaketa, eta Indiako haur eta gazteentzako hezkuntza berri bat ere ezinbestekotzat jotzen zituen⁷. Gandhik, orobat, tinko aldeztu zuen “boterea jendearengan datzala, eta aldi baterako lagatzen zaiela ordezkari hautatutakoei [...] eta emakumeek (berak proposatzen zuen) India eraldatzeko prozesuan parte-hartzaile aktiboak izan behar zutela”.

Geroago, beste indiar pentsalari eta ikertzaile batek ere, Vandana Shiva Ontarioko Unibertsitateko Fisika Kuantikoko doktoreak, zalantzan jarri du nagusituta-ko ekonomia-ordena, iraultza zientifikoari –bai eta Mendebaldeko modernitateari, oro har, eta, bereziki, iraultza berdeari ere– eginiko kritika ireki batean oinarriturik, dibertsitate genetikorako eta herrien autonomia zein biziraupenerako hain ondorio kaltegarriak izan dituelako. Halaber, ekonomiaz aldeztu duen kontzeptua “naturaren zein pertsonen mantenua ekoiztea eta beharri-zanak asetztea” da, iraupeneko eta gizarte-antolaketako prozesu horietan emakumeek betetzen duten rola nabarmenduta. Mendebaldetik bultzatu den garapenari “garapen txarra” deitzen dio, eta honela azaltzen du: “elkarri lotutako eta elkarren mendeko sistema organiko batzuen osotasunaren bortxaketa, esplotaziozko, desberdintasunezko, injustiziazko eta indarkeriazko mugimendu bat abian jarren duena. Ez du kontuan izaten naturaren harmonia aitortzea eta hari irauaraztearren jokatzea direla alde aurreko baldintzak, birbanatze-justizia erdiesteko. Horrexegatik esan zuen Mahatma Gandhik ondorengo: “Munduan dagoena aski da pertsona guztien beharri-zanak asetzeko, baina ez zenbaiten gutizia asetzeko” (Shiva, 1988)⁸.

Shiva oso ongi ohartzen da, Munduko Bankuak eta NDFk (Nazioarteko Diru Funtza) Hegoaldean inposatutako prozesuen gainean egiten duen analisisan, ikuspegi ekonomizista eta garapen txarrekoa sortzen ari den kalteez. Hegoaldeko ikuspegi ekofeminista batetik prozesu horietaz egiten duen analisiak garapen txarra ordezkatzeko hautabidezko proposamen bat egitera eraman du, eta hura *Manifiesto para una democracia de la tierra* (2006) liburuan adierazi du. Shivak gizartearen autoantolaketa berri baten apustua egiten du, ekonomia bizietan, demokrazia bizietan eta kultura bizietan oinarriturik. Halakoetan, toki-mailatik ematen diren erantzunek eta herrialde-mailarekin nahiz maila globalarekin dituzten loturek eragin handiak dituzte, eta egungo sistema kapitalista patriarkalaren ordezkari hautabideak eskaintzen dituzte, hark euskarritzat globalizazio enpresariala eta militarra dituelarik.

Eta horiek, Iparraldeko herrialdeek kontrolatutako garapen-erakunde eta -agentzien proposamenen ordezkari hautabidezko planteamenduak badaudela agerian uzten duten adibide argi eta garrantzitsu batzuk emategatik aipatu ditugu. Hautabide horiek kolonizazioaren garaian izan dira, bai eta neokolonizazioaren garaian ere, behin munduko herrialde gehienek metropolietatik formalki independente izatea lortutakoan, baina independentzia ekonomikoa erdietsi gabe, ordea, Hegoaldeko herrialdeetako eliteen eta Iparraldeko herrialdeen arteko loturak oso indartsuak dira eta.

Ildo horretan, Hegoaldetik datorren pentsamendu postkoloniala deritzon pentsamendu feminista inspiratzaile gertatzen da, eta kritikoa da nazioarteko garapen-agentziek bultzaturiko prozesu eta diskurtsoekin; Vandana Shiva ere horren barruan dago. Gaur egun, nahitaezkoztat jotzen dugu Hegoaldeko herrialdeen *garapenari* dagozkion prozesuen azterketan ikuspegi postkoloniala kontuan izatea; izan ere, haien gaineko begirada nola daukagun erabakia ohartzea ahalbidetzen digute. Irakurketa horrek agerian uzten du, orobat, zer eragin duen kulturak, oro har, eta hezkuntza-prozesuak, bereziki, herri horietaz dugun ikuskera sinplistan, zeren askotarikoak eta, sarri askotan, uste baino askoz konplexuagoak eta ezezagunagoak baitira,

⁷ Gandhi (1945): “El programa constructivo: su significado y lugar” in Campos, Ruben (ed.) (2008): *Política de la no violencia. Mahatma Gandhi*. Los libros de la Catarata.

⁸ Vandana Shivak *Abrazar la vida (Staying Alive)* 1988an argitaratu zuen, eta 1995ean gaztelaniaratu zuten Horas y HORAS argitaletxean. Aipua itzulpen horren bigarren argitaraldetik (2004) hartu da.

begiratzeko diegun moduan dauden distortsioak direla bide (etengabe desitxuratzen dizkigute errealitate horiek, ikasliburuetatik hasi eta telebistako mezuetaraino). Hartara, pentsamendu postkolonialaren funtsezko osagai batzuk jasotzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

III.3. Pentsamendu postkolonialaren ekarpenak Mendebaldeko kulturak munduko gainerako aldeetan izan duen eragin suntsitzailearen gaineko kritika sendo zabaldu zen XX. mendeko 60ko hamarkadaz geroztik. Ezbairik gabe, haren hasierako erakusleetako bat Frantz Fanon izan zen. Eragin handiko egilea izan zen bere garaiko pentsamendu postkolonialean. Haren gogoeta kolonizazioak eta arrazakeria-kulturak gizon beltzen osasun psikologikoan zituen ondorio kaltegarri buruzkoa izan zen⁹, eta horrek iraultza armatua alde batera eraman zuen, *zuri* eta *beltz* kategorien dikotomia eta gizon beltzen ondoriozko alienazioak gainditzeko irtenbide bakartzat. Hala ere, feminista postkolonial beltzek modu kritikoa hartu zuten haren lana. Kolonizazioak emakume beltzengan zituen ondorioez egin zuen azalpen sinplista eta ez oso ulerkorra salatu zuten¹⁰.

Geroago, Antonio Gramsciren¹¹ (1975)¹² *hegemonia* eta *mendekotasun* terminoak abiapuntutzat hartzen zituen pentsamendu postkolonialeko joera bat gorpuztuz joan zen. Hain zuzen ere, terminoak Mendebaldeko kultura hegemonikoari aplikatzen zizkion, kolonia-garaitik iraun duten eta Mendebaldeak Mendebaldekoa ez denaren gainean bere botere hegemonikoari eusteko erabiltzen dituen harremanen osagai nagusi gisa. Horrela, pentsamendu postkolonialak¹³ gogoetan erabili zuen Mendebaldearen hegemonia eta Mendebaldekoak ez zirenen mendekotasuna nola eratu ziren, ezaguera topaketa kolonialetik eraikiz. Gogoeta horretan Gayatri Spivaken lana nabarmendu zen 1980ko

hamarkadaz geroztik, mendeko pertsonen bizi dituzten arazoez eta entzun diezaieten lortzeko duten gaitasunaz egin baitzuen gogoeta, hain zuzen ere. Azken batean, harreman hegemoniko horiek gainditzeko, subjektuak eta identitateak eraiki, negoziatu eta berretzeko moduz egin zuen gogoeta.

Ikuspegi postkolonialak ekonomista feministak garapenaren, aurrerakuntzaren eta ahalduzkoaren kontzeptu eta esanahiak, besteak beste, berriz ere aztertze-raman ditu. Egile batzuek eztabaidan jarri dute, proposamen desarrollisten azpian ez ezik, gaitasunen ikuspegiaren eta Generoaren eta Garapenaren agendaren (Charusheela, 2001) azpian ere dagoen ikusmolde modernista (azken kontzeptu horiek koardeno honetako hurrengo ataletan aztertuko ditugu).

Pentsamendu postkolonialaren funtsezko ideia batzuk berrikusteko azalpen labur honetan, ezin utz dezakegu aipatu gabe Sousa Santosek, Mendebaldeko munduko gainerakoak izan duen ikuskeraz eginiko ekarpena. Ikuskerak horrek, jakina, eragina izan du Mendebaldearen *garapen*-proposamenetan eta, batez ere, haren praktikan, Hegoaldeko herrialdeei buruzko ikuskeran oraindik indarrean jarraitzen duten estereotipo batzuk islatzen baititu, haren begirada batzuetan paternalista dela, beste batzuetan axolagabea dela, baina askotan herrialde horietako barne-prozesuetan esku-sartze handiak eginda.

Kolonaurreko kulturekin topo egin ondoren, batez ere Ameriketako Mendebaldeko *basatiaz* eraikitzen duen ikuskerak *gutxiagotasuna* du abiapuntutzat. Horregatik, kolektibo horiek ez dira “mehatxu zibilizatzaile” bat, baizik eta *irrazionaltasunaren* mehatxua soilik. Hartara, “haien balioa haien erabilgarritasunarena da. Haren (basatiaren) aurrez aurre jartzeak merezi du baliabide bat den heinean bakarrik, edo baliabide bat eskuratzeko bide bat. Helburuen baldintzagabetasunak –metal pre-

⁹ Hauek izan dira Frantz Fanonen lan ezagunenak: *Peau noire, masques blancs*. Paris (1952) eta *Les damnés de la terre*, Paris (1961).

¹⁰ <http://english.emory.edu/Bahri/Fanon.html>

¹¹ *Hegemonia* da gizarte-maila jakin baten gaitasuna (adibidez, kapitalistena edo gizonena), mundu guztiak talde horren interesak kezka unibertsalaren ardaztat jo dituzten lortzeko; horrela, gizartea antolatze modu partikular bat onarrazten dute jendarrean.

Mendeko hitzaren bidez azpian dagoen pertsonari deitzen dio (edo azpiko gizarte-maileri), alegia, Estatuko aginte politikoa eta intelektuala- ren mende (haren kasuan, Italia Faxista zen) daudenei.

¹² Gramsci, Antonio (1975): *The prison notebooks*, I., II. lib. New York: Columbia University Press. Hemen aipatuak: Charusheela, S. eta Eiman Zein-Elabdin (2003).

¹³ Horren indargarri suertatzen dira Edward Saidek orientalismoaz egin zuen *El Orientalismo* (1978) izenburuko ekarpena eta Homi Bhabharen lana (1983, 1985).

ziatuak metatzea, fedea zabaltzea– bitartekoen erabateko pragmatismoa justifikatzen du: esklabotza, genozidioa, jabetzea, konbertsioa, asimilazioa”. Indiar herrien esplotazioa eta suntsiketa justifikatzen duen ikuskera Mendebaldeak amerindiar eta afrikar herriez duen jarreraren azpian datza, eta hura da nagusi “Hirugarren Munduan dauden Mendebaldeko eragileen hizketaldi pribatueta, enbaxadoreak izan, NBEko, Munduko Bankuko edo NDFko funtzionarioak izan, zein enpresariak, eta abar izan. Beltzen eta indiarren gaineko diskurtso pribatu horrek bultzatzen ditu ezkutuan garapen-proiektuak; gero, jendaurrean edertu egiten dira, elkartasunari eta giza eskubideei buruzko adierazpenekin” (Sousa Santos, 2005: 145-148). Gogoeta horri gehituko diogu, ikuskera hori zeharo androzentrikoa dela, eta balio patriarkaletan oinarritua.

III.4. Genero-harremanak garapenari buruzko pentsamenduan

Mendebaldeko diskurtsoan eta nazioarteko garapen-agentzia nagusien diskurtsoan –Hegoaldeko herrialdeen garapenari buruzko politika askoren azpian dartzan ikusmolde neokoloniala ahaztu gabe– ikusten dugu azken hamarkadetan garapenaren inguruko eztabaidaren interesgunea aldatu dela.

Labur esanda, garapena lortzeko moduari buruzko eztabaida garapenaren edukiaren inguruko polemika bilakatu da. Horrela, hamarkadetan zehar aldeztu zen garapenak hazkunde ekonomikoarekin hain zuela lotura estua, non bi kontzeptuak zenbaitetan sinonimotzat hartzen ziren, eta orduan nahi den hazkunde-maila lortzea zein ereduk ahalbidetuko zuen eztabaidatzen zen, joera kapitalistako ala joera sozialistako eredu batek, batean zein bestean industrializazioa izango zela lortzeko bidea.

Hala ere, historian izan diren aldaketa eta gertaera jakin batzuek, 80ko hamarkadan Berlingo Harresia eta Sobietar Batasuna erori izana haien artean nabarmentzen dela, eragin dute sistema kapitalista hamarkada batean baino gehiagotan eredu bakar hegemoniko gisa ezartzea. Hala ere, “lurrezko oinak dituen koloso bat” da, aldi berean egiaztatu baita hazkunde ekonomikoak ez duela zuzenean sortzen garapena; aitzitik, gero eta inekitate eta disparekotasun handiagoak sortzen ditu, gizartearen nahiz ekologiaren aldetik gero eta kostu handiagoak eragiten dituztenak. Hala, bada, eztabaida garapenaren kontzeptuaren beraren

edukia zein den zehaztera lerratu da: hazkunde ekonomikoa *per se* ala giza garapeneko eta bizi-kalitateko esparru zabalago bat.

Garapena lortzeko moduari dagokionez, 1950eko hamarkadako hastapenetatik, Iparraldetik Hegoaldeko herrialdeei aplikatu zaizkien garapen-politikak modernizazioaren teoriarin oinarritu dira, aurreko atalean ikusi dugunez. Teoria horren arabera, aldaketa-prozesu alde-bakar eta eboluzionista bat abian jartzean zetzan garapena, gizarte *tradizionalak* ustez bizi ziren atzerapenetik ateratzeko, etapa batzuetan zehar, modernitatea lortu arte (masa-kontsumoko gizarte). Modernizazioak, hortaz, gizarte aurremodernoak haien alderdi guztietan eraldatzea zekarren berekin, haien balioak, kulturak eta instituzioak aldatuta, osorik.

Modernizatzeko proposamen horrek, gizonak eta emakumeek prozesu horretan bete beharreko eginkizunari buruzko ikuspegi esplizitu edo inplizitu bat izan du. Gizon modernoak ekonomia-teoria neoklasikoak proposatzen zuen *gizon ekonomikoaren* parekoak ziren; izan ere, kasu batean zein bestean, haien ezaugarri nagusia jokaera arrazionala zen, jokaera hori beti gidatzen zutelarik autonomiak, norberaren interesak, norberakotasunak, dinamismoak, berrikuntzarako gaitasunak, lehiakortasunak eta arriskuak hartzeko gaitasunak.

Emakumeei zegokienez, hasieratik auresuposatu zen modernizatorantzko aldaketa orok onura ekarriko zirela, bai lan-merkatuan sartuko zirenei –aldaketa teknologikoko prozesuek etxeko lanetan denbora gutxiago ematea ahalbidetuko baitzien (ez zen inoiz ere kontuan hartzen, jakina, lan horiek gizonekin partekatze aukera)–, bai etxeko lanetan eta zainketetan baino arituko ez zirenei. Hala ere, ekonomisten artean garapenak emakumeentzat izango zituen ondorioen aipua urriagoak izan ziren beste diziplina batzuetan baino, hala nola, soziologian, baina Kabeerrek (1994: 37) jasotzen duenez, jarreraren bat hartzen zutenean, emakumeek prozesu horietatik beti onuradun aterako zirela irizten zioten. Hala, Arthur Lewisek, Hirugarren Mundurako hazkunde industrialia aldeztu zuten ekonomisten artean eragin handiena izan zutenetako batek, aditzera eman zuen hazkunde ekonomikoa emakumeentzat onuragarria ote zen eztabaidatzea zela “emakumeek zamabere izateari utzi eta gizateriarekin bat egiteko aukera izan beharko luketen eztabaidatzea bezalakoa” (Lewis, 1995: 422).

XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan, modernizazioaren teoria babesten zuten ekonomialariek, emakumeak aipatzen zituztenean, garapen-programen onuradun pasibotzat jotzen zituzten gehienetan, eta haiengan ama- eta zaintzaile-rola nabarmentzen zuten nagusiki. Dena den, garapenerako lankidetzaren arloan, hain zuzen ere, gertatu zen 1960ko hamarkadaren hasieran genero-harremanen inguruko politiken neutraltasunari buruzko eztabaida aitzindaria. Eztabaia horren oinarria zen egiaztatu zela modernizazioaren teoriaren ondoriozko hazkundeko eta teknologiaz jabetzeko estrategiek ez zutela izan emakumeengan gizonengan izandako eragin bera. Ester Boserup aitzindaria izan zen, eta erreferentzia-puntu klasikoa, *Emakumeak Garapenean (EG)*¹⁴ deritzen ikerketetan, eta berak eskualde batetik bestera familia-sistemei, lanari nahiz emakumeen estatusari dagokienez dauden alde handiak nabarmendu zituen, bai eta garapen-politikek emakumeak politika horietatik bertatik baztertzen zituztela ere. Ondorioztatu zuen garapen-estategiek gehienbat gizonezkoei ekartzen zieten onura.

EG ikuspegiak planteatzen zuen emakumeen mende-kotasunak lotura zuzena zuela lan-merkatu formaletik bazterturik egotearekin; horregatik, garrantzia ematen zion emakumeak lan-merkatuan txertatzeari, arreta emakumeengan jarri behar zuten garapen-programa batzuen bidez. Horri “eraginkortasunaren ikuspegia” deitu zioten. Helburu nagusia zen haien diru-sarrerak hobetzea, eta lehentasuna ahultasun-egoeran zeuden emakumeei laguntzea zen. Ikuspegi horrekin, sexuaren arabera banakaturiko informazioa biltzen hasi ahal izan zen, eta garapen-proiektuek landa-eremuko emakumeengan zuten eraginaren ebaluazio analitikoak bultzatu ziren (Razavi eta Miller, 1995). Halaber, 1960ko hamarkadako pobrezia-aren aurkako ikuspegian, herrialde askotan elikagai-buruaskitasuneko politikak abian jartzeko emakumeen lanak zuten garrantzia ere aitortzen zen. 1980ko hamarkadan, eraginkortasunean eta eraginkortasunaren inguruko ikuspegiak emakumeak garapen-

estategietatik baztertuta egotea haien arrakasta oztopatzen zuen funtsezko elementutzat jo zuten (Betts eta Goldey, 2005). Hala ere, ikuspegi horietan guztietan batek ere ez zuen zalantzan jartzen nagusitutako garapen-paradigma. Besterik gabe, emakumeak estrategia horien barruan sartzen saiatzen ziren (Beetham eta Demetriades, 2007).

Hegoalde Globaleko¹⁵ hainbat emakume, 1970eko hamarkadaren bigarren erdialdean eta 1980ko hamarkadan zehar, EG ikuspegia kritikatzeko hasi ziren, azterketa postkolonial baten bitartez planteamendu horien joerak ikusi zituzten eta. Mugimendu horiek eragina izan zuten Nazio Batuek Mexikon (1975) eta Kopenhagen (1980) antolatu zituzten emakumeen nazioarteko biltzarretan. Nairobiko Emakumeen Nazioarteko III. Biltzarrean, 1985ean, Hegoaldeko herrialdeetako ordezkariak argi eta garbi jarri zituzten zalantzan estrategia horiek, eta hautabidezko paradigma bat sustatzeko beharra aldeztu zuten. Paradigma horretan, emakumeen arazoak ez ziren bakarka kontu hartu behar, gizartean mendeko eta bazterreko rola ezartzen dizkien “genero-sistema” baten ondorioztat baizik. Jarrera horretan, bat zetozen Iparraldeko feminista sozialistekin.

Orduz geroztik, Nazio Batuen esparruan, *Generoa eta Garapena (GEG)* deritzon ikuspegia taxutzen hasi zen. Ikuspegi berri horrek zalantzan jartzen ditu generoaren gizarte-erakuntzak, eta ekonomiaren, gizartearen nahiz ugalketaren arloko gizonen eta emakumeen arteko harremanetan jartzen du arreta. GEGk garapena politikako nahiz gizarte eta ekonomiako indarren eragina jasaten duen prozesu konplexutzat dauka, eta, prozesu horretan, sexuen arteko harremanak bai sexuaren araberrako lan-banaketan bai politikaren, ekonomiaren eta kulturaren arloetan ageri dira. Horregatik, testuinguru askotan, genero-harremanak klase-harremanekin eta arraza-harremanekin gurutzatzen dituzte, eta emakumeen bazterketa-esperientziak aztertzen dira loturak ezarriz gizonen baliabideen, aktiboaren eta emakumei zeharka eragiten dieten politikei buruzko erabakien

¹⁴ Ester Boserup *Women's role in Economic Development* (1970) lana argitaratu eta gero, arazo berari heldu zioten lan interesgarri hauek; Tinkerren *The Adverse Impact of Development on Women* (1976) liburuak eta Rogersen *The Domestication of Women: Discrimination in Development Societies* (1980) lanak.

¹⁵ Hauek nabarmendu ziren planteamendu kritiko horretan: *Association of African Women for Research and Development*, Mendebaldeko Indietako *Unibertsitateko Institute of Social and Economic Research* eta *Unit of Women and Development*, *The Centre for the Development of Brazilian Women*, *The Gender and Development Unit of the Asian and Pacific Development Center*, eta *Pacific and Asian Women's Forum*, besteak beste (ikus Beetham eta Demetriades, 2007).

gainean erabiltzen dituzten botere- eta kontrol-harremanekin.

Botere-harreman horiek nola programa eta politika publikoetan hala garapenerako lankidetzaren egituretan txertaturik daude, eta GEG ikuspegiaren aldekoek egoera hori aldatzea proposatzen dute. Ikuspegi horren helburua emakumeak beren isolatze-tokietatik ateratzea da, eta genero-inekitatea posible egiten duten egiturak ikusgai bihurtzea. Horretarako, emakume-antolakundeek haien ahalduntze-prozesuetan bete behar duten zeregina aldeztu du. Era berean, emakumeen trebetasunak, hezkuntza nahiz sistema kultural eta sozialen barruko estatusa hobetzearen alde egiten du, eta genero-“zeharkakotasunaren” estrategia proposatzen du emakumeen estatusa lasterrago alda dadin bultzatzeko neurrietarako (Betts eta Goldey, 2005).

GEG ikuspegiak garrantzia emakumeen eta gizonen arteko harremanei ematen dien arren, emakumeen aurkako bazterketa-egoerak gainditzeko azterketen eta abian jarri beharreko politiken funtsezko abiapuntutzat, oso gutxi landu da, oro har, sistema patriarkalak gizonengan duen eragina, maskulinoa femeninoaren gainetik nagusi ezarrarazten dien eragin hori, hain zuzen ere. Edonola ere, emakumeen bazterketari buruz nazioarteko organoetan sortu diren agiri gehienek (Emakumeen aurkako Bazterkeria Mota Guztiak Desagerrarazteko Hitzarmena (CEDAW, 1979); Beijingeko Adierazpena (1995); eta UNDPren 1995eko *Giza Garapenari buruzko Txostena* –genero-berdintasunari buruzkoa izan zen–, besteak beste) gizonekin ere lan egin beharra dagoela aipatzen dute, nahiz eta gogoan izan emakumeekiko lanari lehentasuna ematen jarraitzearen funtsezko garrantzia, gizarteko balantzaren alde ahulenean egoki (Zabala, 2010).

III.5. Generoaren kontzeptua Genero eta Garapena (GEG) ikuspegian

Generoaren kontzeptua funtsezkoa da bai GEG ikuspegian, bereziki, bai teoria feministan, oro har. Hain da halakoa, non “iraultza semantiko” bat ekarri baitzuen. Kontzeptu hori teoria feministak Giza eta Gizarte Zientzien arloan eginiko ekarpenaren zati da, eta gizonen eta emakumeen sexu-desberdintasunen gizarte-erakuntzaz aritzeko erabiltzen da. Aldaketarako duen potentziala ukalezina da, genero-harremanak, biologiarren bidez zehaztutzat ulertu beharrean,

gizartean eraikitzat ulertzeak beraiek eraldatzeko aukera inplikatzeko duen heinean.

Kontzeptuaren eduki erlazionala dela-eta, ezin daiteke “emakumeen” sinonimotzat erabili, ikuspegi horrek gizonak albo batera utziko bailituzke gizarte-eragile gisa; horrez gain, bi kategoriek, gizonen eta emakumeen, elkarri eragiten dioten modua eta bata bestearekiko harremanean eraikitzen diren modua ere utziko lituzke kanpoan. Gainera, feminismoan ahalegin handia egin da analisisetan “emakume” kontzeptuak berez adierazten duen berdintasun monolitikoa saihestearren, eta emakumeen askotarikotasuna nahiz haien arteko aldeak islatzen saiatzen da; gehienbat, gizarte-klasean, etnialan, adinean, erlijioan, jatorrian, sexu-joeraren arteko gurutzaketetan oinarritutako aldeak, hain zuzen ere.

Kultura eta etnia askoko gizarteetan, hala nola, Latinoamerikako herrialde askotan, emakumeen eta feministen mugimendu batzuek mugimendu feminista asko dagoela aldarrikatzen dute, emakumeen artean sortzen diren identitateak bezainbeste: indigenak, afrikarren ondorengoak, hiritarrak, nekazariak, lesbiana, zuriak, eta abar. Nabarmendu egiten dira, halaber, emakume indigenen mugimenduen eta “hiri-feminismoak” deiturikoen arteko elkarrizketaguneak lortzeko zailtasunak. Mugimendu horiek lotura dute feminista beltz batzuek AEBetako feminismo erradikal eta liberalari egindako kritikarekin; izan ere, pentsamendu horrek emakumeen ikuspegi homogeneizatzailerak aurkezten du, eta ez du onartzen generoa hainbat eratan eraikitzen dela testuinguru historiko batzuetan eta besteetan. Hala, bada, “pentsamendua deskolonizatzeko” bide bat proposatzen dute, eta deskolonizazio horrek aliantza hibridoak, gizarte-maila askoren artekoak, eta transnazionalak eskatzen ditu.

Dena den, gehienek onartzen dute generoa lehen mailako egiturazko aldagaia dela, gizarteko prozesu guztiei eragiten diena, eta sistema sozioekonomikoa oro har antolatzen duena, maila guztietako dinamiketan eragina izanda, nola mikro-mailan, hala meso-mailan eta makro-mailan. *Mikro-mailan*, banakako, etxeetako eta enpresetako bertako prozesuei eragiten die generoak. Arreta etxeetan jarririk, Amartya Senek, adibidez, etxe-unitatea lankidetzako eta gatazkako toki bat dela planteatzen du. Lankidetzaren familiaren ongizaterako ekarpenak egiteko garaian gertatzen da. Jarduera

askok laguntzen dute etxearen oparotasunean (diru-sarrerak, laboreak, etxeko lana...). Gatazka, alabaina, sarritan gertatzen da denboren, aktiboen eta jardueren banaketari buruz erabakiak hartzerakoan. Horrela, azkenean hartzen diren erabakiak etxeko kideen negoziazio-boterearen isla dira.

Aitzitik, ohiko ekonomia-analisiek familia gune harmoniatsutat eta gatazkarik gabekotzat aurkezten dute. Ezagunen artean, *Familiaren ekonomia berria* –dagoeneko ez hain berria– dugu; Gary S. Becker Nobel saridunak garatu zuen, eta Ekonomia Feministak asko kritikatu zuen (Pujol, 1991; Carrasco, 1991). “Beckertar familian” gehien kritikatu diren elementuetako bat baliagarritasun-funtzioa edo familia-ongizateko funtzioa izan da. Banakako funtzioak familia-kide guztien interesei zegokien funtzio bakar bat eratzeko batu ezin izan zituenez, Beckerrek altruismoaren teorema proposatu zuen; haren arabera, “familiaburu” altruistak bere baliagarritasun-funtzioan gainerako kideen ongizate-funtzioak hartzen ditu. Planteamendu horrek, familia instituzio harmoniatsutat eta interes-gatazkarik gabekotzat hartzeaz gain, lagun bakarrak lehentasun kolektiboen edo familia-unitatearen lehentasunen ordena erabaki dezan onartuko luke; hartara, hari “diktadore onbera” deitu diote. Bestela esanda, diktadore onberaren irudia familia-antolakuntzaren era patriarkal nagusiaren irudikapena eta onarpena baino ez litzateke.

Diktadore onbera hori eta familiaren jokabide hori kontraesanean daude ekonomia neoklasikoaren oinarritzko printzipio batekin, indibidualismo metodologikoaren printzipioarekin, alegia. Diktadore onberak ez du betetzen “*homo economicus*” delakoaren (merkataritza-munduko banakoen irudikapen gorena) funtsezko ezaugarri bat, hots, norberekoitasuna. Beckertar familian, norberekoitasuna kide batzuen kasuan baino ez da ikusten, beste batzuk eskuzabaltzat hartzen dira eta. Diktadore onbera etxean baino ez litzateke izango horrelakoa, eta etxetik kanpo, eraldatze-kasu bitxi baten bidez –Dr. Jekyll eta Mr. Hyde gogorazteko moduan– onberatasuna utzi, eta merkataritzako gune publikoan bere interesaren alde bakar-bakarrak jokatu luke. Hala, bada, berriz nabarmenduko dugu, “familia altruista” delakoak, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak legitimatzeko ez ezik, kasu hori merkaturian erabiltzea ezinezkoa dela justifikatzeko ere balio du. Horrela, kontzeptuzko

dualismoa indartzen da merkatuaren (bertan, nor bere interesen alde jokatzen dute guztiek) eta familiarren (bertan, harmonia eta arau altruistak dira nagusi) artean.

Meso-mailan, generoak lan-merkatuen funtzionamenduan du eragina, sexuaren arabera bananduta egonik, enplegurako eskaintzen dituzten aukerak eta baldintzak bestelakoak eta desberdinak dira eta. Sexuaren araberrako lan-banaketak gizonen eta emakumeen denboraren erabilerarako gizaratean ezarritako eskubide- eta betebeharsare konplexu bat dakar berekin, eta ongizatearen estatuaren funtzionamendua eta prestazioak, eta abar, baldintzatzen ditu. Tokiko eta eskualdeko administrazioen politikek ere, sarri, sexuaren araberrako lan-banaketa indartzen duten joera horiek berak jasotzen dituzte.

Makro-mailan, alde batetik, agregatu makroekonomiko handiak, Barne Produktu Gordinak (BPGd) kasu, ekonomiar buruzko oso ikusmolde estu eta maskulino bati dagozkio, eta, beste alde batetik, makro-mailako politika handiak, hala nola, zerga-politikak, trukaneurriei buruzko politikak, merkataritza-politikak eta abar, ere ez dira neutralak generoaren aldetik. Eta ez dira halakoak jendearen bizitzan eragina izaten eta hura baldintzatzen dutelako azkenean, eta emakumeen eta gizonen baldintzak eta estatusak desberdinak direnez, politikek ere eragin desberdina izan dezakete. Baina, makro-mailan harturiko erabakiek mikro-mailan eragina dutelarik, mikro-mailan harturikoek ere azkenean eragina izan dezakete, ordea, makro-mailan.

Sarritan, hainbat esparrutan hartzen diren erabakien atzean generoko rola eta estereotipoak inplizituki onartzen direla ikusten da, funtsezko garrantzia izaten jarraitzen dute eta. Estereotipoek emakumeak lan batzuetarako gaiagotzat eta beste batzuetarako kostu handiagotzat erakusten dituzte, arazo pribatuez interesatuagotzat eta ez hainbeste arazo publikoez, bestelako lan- eta lidergo-estiloak dituztela, eta abar. Estereotipoen garrantzia eta indarra ez da huskeria. Estereotipo horiek pertsonen kontroletik kanpo daude, eta eragina izaten ditu haiengan, eta gizarateko gainerako kideekin duten elkarreraginaren baldintzak ezarri ohi dituzte. Horrek desberdintasunei iraurazten laguntzen die. *Latinoamerika eta Karibeko eskualde-txostena* (UNDP LAK 2010) deritzon agirian aipatzen denez, “estereotipoen mehatxuen” gaineko

lanek erakusten dute pertsonen errendimendua jaisten dutela lan jakin batzuetan, baldin nabariarazten bada jarduera horiek egiteko gaitasun gutxiago dutenen talde batekoak direla, gizarte-estereotipoaren arabera, betiere. Aztertu diren kasuetan, errendimendu baxuagoa dokumentatu da afrikarren ondorengoen aldetik trebetasun intelektualen inguruko probak egitean eta emakumeen aldetik matematikako proba batzuetan, proba horiek egin baino zerbait lehenago talde etniko horietakoak edo emakumezkoak direla, hurrenez hurren, nabarmendu denean. Estereotipoen iraunkortasuna eta haiek desagerrarazteko zailtasuna daude Europako Batzordeak (2007) estereotipoen aurkako borrokaren inguruan hartutako neurriaren oinarrian, besteak beste. Borroka hori funtsezko ardatz gisa hartzen zen emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko.

IV. Gaitasunen ikuspegia genero-ekitatetik

IV.1. Giza garapenaren kontzeptua: askatasunen eta justiziaren berezko balioa

Garapenaren edukiari dagokionez, 1970eko hamarkadaz geroztik ikusmolde berri bat eratuz joan da. Haren arabera, pertsonak garapenaren helburua izan behar dute, eta ez bitartekoa soilik, eta garapen hori pertsonen aukerak zabaltzen dituen prozesutzat ulertzen du, baliotsua irizten dioten bizitza bat aurrera eramateko aukerak, hain zuzen ere. Kontzeptu horri “giza garapena” deitu zaio, eta luze eta zabal barreiatu da azken urteetan, Mahbub ul Haq, Amartya Sen eta Martha Nussbaum adituek, batik bat, azaldu zutenetik.

Aukera gehiago egon daitezzen, funtsezkoa giza gaitasunak garatzea da, hau da, norberak bizitza berrantolatzeko gaitasuna sustatzea, norbere ikuspuntutik gai sakonenak eta garrantzitsuenak zeintzuk diren kontuan hartuta (Nussbaum, 1999). Oro har, labor adierazirik, ustea da giza garapenerako gaitasun behinenak hauek direla: bizitza luze eta osasuntsua izatea; kalitateko hezkuntza jaso ahal izatea; bizi-maila duina lortzeko behar diren baliabideak eskuratu ahal izatea; eta komunitateko bizitzan parte hartu ahal izatea. Gaitasun horiek gabe, eskura dauden aukerak nabarmen mugatzen dira, eta bizitzan bide asko itxita geratzen dira. Baina giza garapenak alde handiz gainditzen du hori, eta bizi-kalitatean funtsezkoak diren beste aukera-arlo batzuetan giza eskubideen bermea, giza segurtasuna,

eta biziaren eta planetaren zaintza sartzen dira, besteak beste. Horiek guztiak dira beharrezkoak pertsonak sortzaile eta emankor izan daitezzen, beren burua errespetatu dezaten, barne-potentziala gara dezaten, eta komunitate bateko kide senti daitezzen. Hitz gutxitan, giza garapena jendearen, jendearentzako eta jendeak berak gauzatutako garapena da.

Nahiz eta garapena ikusteko modu hori maiz ahanzten den, ondasunak eta finantza-aberastasunak pila-tzeko berehalako nahia dela-eta, ez da berria. Filosofian, ekonomian eta politikan, historian zehar hainbat ahotsek nabarmendu dute bizitzaren helburu edo xedea gizakien ongizatea dela. Aristotelesek Antzinako Grezian esan zuenez: “aberastasuna ez da, ez horixe, bila gabiltzan ondasuna, beste helbururen bat lortzeko tresna baino ez baita hura” (Aristoteles 330 K.a., 2007ko arg.).

2010eko Giza garapenari buruzko txostenean, hau esaten da giza garapenaz: “pertsonen askatasunak areagotzea da, bizitza luze, osasuntsu eta irudimentsua izateko; baliotsutzat jotzen diren helburuak lortzea da, bai eta konpartitzen dugun planetan garapena gorpuzteko prozesuan modu bidezko eta iraunkorrean parte hartzea ere. Pertsonak, aldi berean, giza garapenaren onuradunak eta haren sustatzaileak dira, baina zein kolektiboki”. Planteamendu horren arabera, hiru faktore dira giza garapena osatzen dutenak: *ongi-zatea; ahalduntzea eta agentzia; eta justizia*.

Giza garapenak ez du zerikusia paperean jasotako askatasunekin bakarrik, eta, hortaz, gaitasunei askatasun “errealak” esaten zaie. Prozesuko askatasunek ahalduntzearekin eta hainbat mailatako praktika demokratikoekin dute lotura, pertsonak ez direlako garapenaren onuradunak bakarrik. Konstituzio batek iritzi-askatasunerako eskubidea bermatzen badu, baina praktikan askatasun hori hautsi egiten bada, orduan, ez da existitzen. Askatasun politikoez, demokraziak eta askatasun zibilek bezala, berezko balioa daukate, eta bederen bi alderdi gehigarri dagokienez dira garrantzitsuak. Lehenik, gobernu demokratikoak, oro har, egoera hobean egoten dira giza garapenerako helburuak bultzatzeko; neurri batean hori hala da, hasiera batean, erantzuleagoak eta gardenagoak direlako. Kontuak ematea beharrezkoa da demokrazia giza garapen bihurtzeko, hauteskondeek bakarrik ez baitute nahikoa gardentasun ematen. Bigarrenik, askatasun politikoez jendeari politiken helburu eta lehentasunei buruzko eztabaidetan era aktiboan parte hartzea ahalbidetzen diote. Baina, erantzukizun demokratikoak giza garapenean eragina baduen arren, ez du hura bermatzen.

Politiketan beti daude hautabideak, baina litekeena da batzuk hobeak izatea pobrezia desagerrarazteko, giza eskubideetarako eta iraunkortasunerako, eta beste batzuek, aldiz, onura eliteei baino ez ekartzea, elkartzeko askatasuna murriztea, eta baliabide naturalak agortzea. Justizia-printzipioek esplizituak izan behar dute, eta giza garapenean ekitatearen inguruko kezak arreta esplizituki desberdintasunean biltzea dakar zuzenean.

Giza garapenak pertsonak beren garapenaren arkitektotzat dauzka, bai familia eta komunitate barruan, bai modu kolektiboan, eztabaida publikoetan, ekintza komunetan eta praktika demokratikoan. Ahalduntzako jendea aldaketak sortzeko gai da, dela familia-eta lan-bizitzan, dela komunitatean, dela eskala handiagoan. Pertsonak beren etorkizuna eratzeko gaitasuna –Amartya Senek “agentzia” deiturikoa– izateaz arduratzea funtsezkoa da gaitasunen ikuspegiari, eta estuki askatasunari lotzen zaio. Ahalduntzeak hala agentzia nola laguntzazko azpiegitura instituzionalak behar ditu, zeren jendeak etxean eta

lanean, politikan, komunitatean eta gizartean erabili baitezake bere ahala edo boterea. Ahalduntzeak badu lotura pertsonekin banakoak diren aldetik, bai eta hainbat arlotan taldeko eragileak diren aldetik ere, tokiko kooperatibetan, sindikatuetan nahiz aldaketak bultzatzen dituzten herrialde-mailako mugimendu politikoetan.

Amartya Senen “agentzia” kontzeptu horrek oso lotura estua du Hegoaldeko mugimendu feministek bultzaturiko **ahalduntze**-estrategiarekin. Horien artean, DAWN plataformak¹⁶ (*Development Alternatives with women for a New Era*) egin zuen planteamendua nabarmentzen da. Ahalduntzearen estrategiak mendekotasun-egiturak eraldatu nahi ditu, legeetan, jabetza-eskubideetan eta nagusitasun maskulinoari indarra ematen eta iraunarazten dioten instituzioetan erabateko aldaketak eginez. Ikuspegi horretatik, ahalduntzea boterea norberenganatzeko prozesua da, boterea beren bizitzan gainean eragin txikia dutenek izateko eta beren burua adierazteko ahalmena edukitzea dela ulertuta.

Martha Nussbaum bat dator Senekin honako ideia honetan: gaitasunen ikuspegiak arreta pertsonaren aukeretan, pertsona guztien eta bakoitzaren aukeretan, jartzen du. Pertsona bakoitza, berez, baliotsua da eta errespetua merezi du, eta helburutzat ikusi beharra dago, beste baten helburuen agentetzat edo sostengutzat ikusi ordez. Uste du askotan emakumeei buruz ikuskera instrumental bat izan dutela, alegia, beste batzuen helburuetarako euskarriztat hartu izan direla, eta ez berezko helburutzat.

Baina Amartya Senek ez bezala, Nussbaumek esplizituki aurkeztu zuen hamar “giza gaitasun funtzional nagusi” zeuzkan zerrenda bat:

1. Bizitza. Iraupen normaleko giza bizitza bat bizitzeko gai izatea amaierara arte, goizegi hil gabe edo bizitza bizitzea merezi ez duen zerbait bilakatu baino lehen.
2. Gorputz-osasuna. Osasun ona izateko gai izatea, ugalketa-osasuna barne, ondo elikaturik egotea, eta etxebizitza egokia izatea.
3. Osotasun fisikoa. Toki batetik bestera askatasunez mugitzeko gai izatea eta segurtasuna.

¹⁶ <http://www.dawnnet.org/>

4. Zentzumenak, irudimena eta pentsamendua. Zentzumenak erabiltzeko, irudikatzen, pentsatzeko eta arrazoitzeko gai izatea, eta horiek guztiak benetako giza modu batean egiteko gaitasuna izatea, hots, modu informatu eta landu batean, hezkuntza egoki bati esker.
5. Emozioak. Gu ez garen beste gauza eta pertsona batzuekin lotura afektiboak izateko gai izatea.
6. Arrazoimen praktikoa. Ongiaren kontzeptu bat osatzeko eta bizitzaren plangintzaz gogoeta kritiko bat hasteko gai izatea.
7. Afiliazioa. Beste pertsona batzuekin eta beste-erentzat ahalegin guztia eginez bizitzeko gai izatea eta izaki duintzat, besteen balio berbera duten izakitzat, tratatuak izateko gai izatea.
8. Beste espezie batzuk. Animaliekin, landareekin eta naturaren munduarekin interesaturik eta harremanetan bizitzeko gai izatea.
9. Jolasa. Barre egiteko, jolasteko eta aisia-jardueraz gozatzeko gai izatea.
10. Noberaren ingurunearen (politikoa eta materiala) gaineko kontrola. Politika-arloko erabakietan eraginkortasunez parte hartzeko gai izatea, jabetzak edukitzeko gai izatea.

Balio unibertsal batzuen bilaketa

Jakinik munduan emakume askok ez duela nahikoa askatasun gizakion bizitzako funtsezko funtzio batzuk aurrera eramateko eta emakume gehienek gizonen baino aukera gutxiago dituztela, Nussbaumen helburua “feminismo unibertsalista” garatzea da. AEBetako filosofoak kultura-erlatibismoaren kritika esplizitua egiten du, itxuraz errespetagarriak diren unibertsalismoaren kontrako hiru ideia aintzat harturik: kulturean, askotarikotasunaren positibotasunean eta pater-nalismoan oinarriturik ematen diren argudioak. Haren hiru kontraargudioak honela laburbiltzen dira (Gough 2008):

- Kultura errealak dinamikoak dira beti, eta beti aldatzen ari dira: “pertsonak ideia-mailegatzaileak dira”.
- “Askotarikotasunaren izaera positiboan oinarriturik ematen den argudioa” oso ondo dago, baldin praktika kulturek pertsonen kalterik egiten ez ba-

diere. Baina, praktika batzuek argi eta garbi kalte egiten dietela kontuan izanda, “kontrako argudio horrek ez du indargabetzen balio unibertsalen bilaketa; aitzitik, bilaketa hori egitea eskatzen du”.

- Paternalismoaren kritika erlatibistak (ikuspegi unibertsalek ere neurri batean aldeztutakoak) bi ahoko ezpata dira. Balio-sistema tradizional asko paternalistak dira terminoaren zentzu hertsian. Are funtsezkoagoa den modu batean, pertsonak aukerak eta erabakiak errespetatzeko konpromiso batek balio unibertsal bat bederen barne hartzen du, nor bere kabuz pentsatzeko eta hautatzeko ahal izateko aukera izateari dagokion balioa.

Giza garapenaren ikuspegiak hainbat gauza ditu komunean ekonomia feministaren proposamenarekin; izan ere, bizitzaren iraunkortasunaren alde egiten du, baita pertsonak, eta ez merkatuak, ikerketeten erdigunean jartzearen alde ere. Pertsonak azterketen gunean jartzeak esan nahi du ekonomia konbentzionalaren ikusmolde dikotomikoa (pribatua/publikoa; ekonomikoa/ez-ekonomikoa) albo batera utzi behar dela, eta pertsonen bizitzaren ikusmolde multidimentsional bat hartu. Eta, baldin egia bada gunean pertsonak daudela, halabeharrez haien zainketek ere egon beharko dute. Horren ondorioz, besteak beste, zainketa-lanen balioa nabarmendu beharko da; hain zuzen ere, mundu osoan gehienbat emakumeek egiten dituzte lan horiek oraindik ere, eta ezkutuan eta baliorik eman gabe jarraitzen dute.

Giza garapenari buruzko ikusmolde erredukzionista

Nahiz eta azken hamarkadetan arreta neurri handi batean garapenaren edukian jarri den, garapena lortzeko moduari buruzko kezka eta eztabaida ez dira itxi oraindik. Giza garapenaren paradigmak erretorikan nagusitzea lortu du, baina esku-hartzeak eta politiken diseinuak, ordea, garapen ekonomizistaren mende jarraitzen dute sarritan. Giza garapenaren kontzeptua oso inklusiboa izanik ere, plano teorikotik programak eta politika publikoak abian jartzera pasatzen denean, baina, erredukzionismo progresiboko arazo larri bat agertzen da, eta, azkenean, erredukzionismo horrek garapena eta merkataritzazko hedapena parekatzen bukatzen du. Horrek esan nahi du garapena pertsonen gaitasun eta askatasunen hedapentzat ulertzetik

ongizatearen nozio estu batera pasatzen dela, hezkuntzan, osasunean eta, oroz gainera, diru-sarrerak edukitzean zentratuta. Gainera, maiz, hezkuntza eta osasuna garapenerako bitartekotzat ikusten dira, hots, merkataritzako hazkunderako bitartekotzat –giza kapitalean egiten den inbertsio bat egiten den heinean–, garapenaren berezko helburutzat hartu ordez.

Giza garapena hiru dimentsiotara (sarrerak, hezkuntza eta osasuna) mugatzen bada, garapenerako funtsezkoak diren elementu sozial eta politiko batzuk, esaterako, ahaztu egiten dira, hala nola, ahalduz, ekitatea, ahultasun-egoera eta iraunkortasuna. Horiek guztiak pertsonen askatasunaren berezko osagaiak dira, haiek adierazgarritzat jotzeko moduko bizitza bat eramango badute.

Garapen-mailak, lehenetsuz, sarreren banakako eskuraketatzat ulertzen dira, eta iraunkortasuneko bizitzarako baliabideei garrantzi ematea, azken batean, sarrerak sortzeko iturri iraunkorrei dagokie. Badirau merkataritzako ekonomia-sistemak giza garapenerako baliabideak ematen dituelako sinesteak. Ikusker horrek arazoak sortzen ditu, zeren baliabideak emateko eta eskuratzeko kontuan hartzen den modu bakarra merkatuak eskainiriko ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko izaten da. Merkatuko mekanismoei garrantzia ematean, merkataritzakoak ez diren arloen rola alboratu egiten da (etxea, zainketak, boluntariotza, elkarrekotasuna...), bai eta erakunde publikoek pertsonen eta komunitateen bizi-kalitatean duten rola ere.

Hala ere, garapenaren ikuspegi ekonomizistaren erabat aurka gauden arren, gure iritziz, gaur egungo gizarteak hain merkantilizatuta daudela, errenta oraindik ere garrantzizko baliabidea da ondasun eta zerbitzu asko eskuratzeko. Horrelako gizarteetan, diru-sarrek kontrol handiagoa ematen dute elikagaiak, etxebizitza, jantziak eskuratzeko eta bizitzan aukera gehiago izateko behar diren baliabideen gainean. Halaber, jendeari bere bizitza-proiektuan aurrera egitea ahalbidetzen dio, beharizan materialetan murrizketa handiak izan beharrik gabe. Litekeena da errenta-mailaren hazkundera enplegu duina lortzeko aukerak

gehitzen ari direla esan nahi izatea, nahiz eta orokortzerik ez egon, aldaketa horiek zein bere testuinguruan aztertu behar dira eta. Emakumei dagokienez, errenta eskuratzeko, oro har, autonomia handiagoa dakarkie, bai eta botere handiagoa ere gune batzuetan eta besteetan. Dena den, ez da giza bizitzaren gainerako alderdietatik bereiz daitezkeen aldagai bat.

Ekonomia-hazkundera versus garapena gaur egun

Ekonomia-hazkunderaren eta garapenaren arteko loturari buruzko eztabaidak bizi-bizirik jarraitzen du; hain zuzen ere, azken *Giza garapenari buruzko txostenean* (2010) joratu zen gaia da. Zer esaten digute azken berrogei urteetako frogak hazkunderaren eta giza garapenaren aldaketan arteko loturari buruz? Dakigunez, ekonomia-hazkundera Barne Produktu Gordinarene bidez (BPGd) neurtzen da, merkataritzako ekoizpenak bakarrik kontuan izanda, eta, bestalde, giza garapena, gehienetan, Giza Garapenaren Indizea (GGI)¹⁷ deritzenaren bidez neurtzen da, hiru dimentsio barne hartuta: bizitza luze eta osasungarria (jaiotze-uneko bizi-itxaropena), hezkuntza (batez besteko eskolatzeko urteak eta itxarondako eskolatzeko urteak) eta bizi-maila duina (“per capita” errenta erosahalmen-parekotasunean edo EPan).

UNDPk (2010) eginiko analisisian, iradokitzen da hazkunderaren eta giza garapenaren arteko aurrerapenaren artean lotura positiboa dagoela. Hala ere, gogoan izan beharra dago diru-sarrerak GGIn zati direla. Hala, bada, ondoriozta daiteke gutxienez GGIn gertatzen diren aldaketan heren bat ekonomia-hazkundera eragiten duela, eta horrek, hartara, lotura positiboa ziurtatzen du. Sarreren hazkundera sarrerekin zerikusia ez duten giza garapenaren dimentsioek izandako aldaketekin erkatuz gero (horretarako, GGIn antzeko indize bat erabiltzen da, baina osasunari eta hezkuntzari buruzko adierazleak kontuan hartuta), lotura nabarmen ahula da, eta estatistikaren aldetik ez da adierazgarria. Eraitza horren arrazoiak da loturarik ez dagoela hazkunderaren *aldaketen* eta sarrerekin zerikusia ez duten giza garapenaren dimentsioen *aldaketen* artean.

¹⁷ 2010. urtean, UNDPk GGIn kalkulatzeko modua aldatu du. Lehen txostena 1990ean argitaratu zuenetik, indizea kalkulatzeko hiru azpi-indizeen (bizi-itxaropena, hezkuntza eta sarrerak) batez besteko aritmetikoa erabiltzen zen, eta 2010ean kalkulu horretarako, arrazoi estatistikoak direla medio, batez besteko geometrikoa erabiltzen hasi da. Hezkuntzaren osagaiak ere aldatu dira; 2010era arte, hain zuzen ere, helduen alfabetatze-tasa eta matrikulazio-tasa gordina ziren.

Hala ere, ebidentzia horrek ez du baliorik gabe uzten funtsezko gertakizun bat: badago lotura positibo eta handi bat sarrera-*maila* globalen eta osasun- eta hezkuntza-*maila* globalen artean, eta egoera hori ere antzematen da, antza denez, banakoen zein familien alorretan. Zer azalpen du enigmak? Lehenik, loturak ez du esan nahi berez kausalitatearik dagoenik noranzko batean. Kausalitate-harremanik egongo balitz ere, noranzkoa ezezaguna da: sarrera handiagoek bizi-kalitatea hobe lezaketek; edota osasunean eta hezkuntzan gertaturiko hobekuntzek gizartearen produktibitatea hobe lezaketek.

Dena den, frogak zalantzan jartzen dute ekonomia osoan sarrerak hazteak rol erabakigarriak izatea osasunaren eta hezkuntzaren aurrerapenetan giza garapenaren maila baxu eta ertainetan, eta litekeena da hazkunde-tasa handiak bat etortzea ingurumenaren nariadurarekin eta errenta-banaketa-errentaren okerragotzearekin. Badirudi, beraz, UNDPren azken datu eta azterlanek *giza garapenari buruzko txostenen* hasierako baieztapen bat berresten dutela: giza garapena ez da ekonomia-hazkundearen sinonimo, eta lorpen handiak hazkunde lasterrik gabe ere badira posible.

Azterlan horiek garrantzi handikoak izan daitezke garapen-politikerako; izan ere, lehen ere ikusi dugunez, politika horiek orain arte auresuposatzen zuten ekonomia-hazkundera ezinbestekoa zela osasunaren eta hezkuntzaren arloko lorpenetarako. Daturik berriek frogatzen dute, baina, ez dela beharrezkoa herrialdeek hazkundera sortzeko arazo zaila konpon dezaten, osasunaren eta hezkuntzaren fronteetan dauden erroen ekiteko (UNDP 2010).

Garapenaren bilaketak jarraitzen du

Gaur egun, ez dago adostasunik garapen-politiken inguruan, baina joera berriak sortzen ari dira, sortu ere. Pertsona askok finantza-krisia, AEBetako eta beste herrialde aberats batzuetako finantzetako erraldoien kolapsoa haren sinbolo dela, merkatuen aldeko liberalizazio erabateko batek dakartzan arriskuen gogoragari gogortzat interpretatu dute. Oraindik ez dago argi zer ondorio izango dituen krisi honek garapenari buruzko pentsamenduan, baina badirudi nahia dela politika publikoetan rol aktiboagoa izatera egin dezan, gizarte zibilak gehiago parte hartuta eta garapen-helburu ekitatezkoago eta humanitarioagoetarantz bideratuta.

Garapenari buruzko egungo gogoetan badira elkarren kontrako ildo batzuk, ez berriak guztiak, eta elkarren osagarri batzuk. Haien eragina, praktikan, aldatu egiten da herrialde batetik bestera, eta askok badituzte elkarguneak giza garapenaren ikuspegiarekin (ongizatearen ikusmolde multidimentsionala; osasuna, hezkuntza, gizarte-segurantza unibertsala eta antzeko ondasun publikoak sortzeko neurri publikoen beharra; klima-aldaketari aurre egitea, eta abar). Garapenari buruzko pentsamendu-ildo berriek onartu egiten dute ez dagoela konponbide bakar bat, arau-erreforma jakin batzuen abantailak eta onurak desberdinak direla egoeraren arabera, eta beharrezkoa dela toki-mailako estrategia egokiak zehaztu eta hartzea.

Nahiz eta garapen-politikei buruzko adostasunik ez dagoen, praktikan proposamen berriak lantzen ari dira, antzinako praktikei oso lotuak. Esaterako, Latinoamerikako eskualdean, Bolivian eta Ekuadorren, batik bat, Ongi Bizitzearen paradigma indar handia hartzen ari da. Hain zuzen ere, Ekuadorren, Montecristin idatzitako 2008ko konstituzio berrian Ongi Bizitzearen kontzeptua edo *Sumak kawsays* sartu da. Ongi Bizitzea ezin lot daiteke era sinplista batean "*Mendebaldeko ongizatearekin*", eta herri eta nazio indigenen mundu-ikuskerara berrartzea proposatzen du. Ongi Bizitzearen paradigmatik garapenari buruzko teoria konbentzionalak zalantzan jartzen ditu, eta bestelako garapen bat kolektiboki eraikitzea aldeztu du, giza eskubideen (politikoak, sozialak, kulturalak, ekonomikoak) eta naturaren eskubideen indarrarekin bultzatuta, ekonomia solidario bat eraikitzeko oinarri gisa. Argitu beharreko zalantza honakoa da: merkataritzako harreman kapitalista eta patriarkalak, eta horien ondorioz, gizarte-klaseen eta genero-harreman hierarkikoen artean sortutako kontraesanak gainditzeko trantsizio-mekanismoak antolatzeke modua, kapitalismo patriarkala planetako bazter askotara hedatu den munduan.

Ongi Bizitzaek gauza asko ditu komunean gaitasunen ikuspegiarekin, besteak beste, pertsonak gararazi ez, baizik eta pertsonak beren burua garatu behar dutelako ideia. Hori lortzeko, edozein pertsonak hautatzeko aukera berberak izan behar ditu ezinbestean, eta Estatuari dagokio merkaturako gabeziak zuzentzea eta garapena sustatzea, beharrezkoa den esparruetan (Acosta 2010).

Naturarekiko harmonia, bakea eta gizarte-oreka aldezen duen jatorrizko herrien mundu-ikuskeraren berrartzean, Ongi Bizitzeak, ekonomia feministak bezala, bizitzaren desmerkantilizazioa lortu nahi du. Bestelako garapen bat bilatzea erronka da gizarte-mugimenduentzat, oro har, eta mugimendu feministarentzat, bereziki. Mugimendu feminista garrantziko tresna izan daiteke Ongi Bizitzearen paradigma aberasteko, ezarrikerik dauden ereduak kolokan eta zalantzan jarri nahi dituelako, desberdintasunak eta bazterketak sortzen dituzten heinean.

IV.2. Tokikoaren garrantzia giza garapenean

Giza garapenaren bila tokiko esparruetatik

Azken hamarkadetan globalizazioak ekonomiaren eta politikaren arlo guztiak hartu dituen neurrian, tokiko¹⁸ eremuaren eta tokiko prozesuen gaineko kezka indarra hartu du pixkanaka, bi arrazoi nagusirengatik: mehatxupean daudela uste delako, edo mundializazioaren joera negatiboari aurre egiteko moduko herri-tartasun-era berrien sorburua izan daitezkeela uste delako. Garapenari buruzko egungo gogoetan, badirudi badagoela gero eta adostasun handiago bat toki-mailako estrategia egokiak zehaztu eta hartu behar direlako ideien inguruan. Giza garapenerako onura handienak ekar ditzaketen politiken eta ikuspegiaren inguruan sortutako ziurgabetasuna dela-eta, garrantzi handia ematen zaie esperientziazko eta partaidetzako ikaskuntza praktikoari, gainbegiratzeko eta *feed back*a sortzeko prozesu sistematikoaren bitartez.

Globalizazioaren desoreken aurrean, toki-mailako gaitasuna maila zentralerako gaitasuna bezain garrantzitsua delako sinestean, tokiko giza garapenaren ikuspegia (TGG) gero eta onarpen handiagoa lortzen ari da erakunde pribatu zein publikoen aldetik, LANEren eta UNDPren aldetik kasu (Dubois 2010). Tokiko dimentsioaren aldeko apustuaren oinarrian datzan hipotesia da eremu hori dela giza garapenezko edukia duten prozesuak, pertsonengan zein gizartean dituzten ondorioak eta haien zailtasunak eta sendotzeko

aukerak azaltzen dituzten dinamikak ondoen aztertze-ko eremua. Tokiko dimentsioa ezin uler daiteke inguruetik isolatzeko erantzun gisa; aitzitik, ustea da bestelako globalizazio ekitatezkoago eta gizatiarrago baten eraikuntza pentsatzeko gune aproposa hura dela, tokikoak lurraldearen eta komunitatearen zentzua berriz aurkitzea ahalbidetzen duen heinean.

TGGa aztertze-ko kategorien lanketa teorikoa hasi berrikan daude, baina, hala ere, badaude esperientzia praktiko batzuk, programa-adierazpenekin eta operazio-tresnekin. Hala ere, gerta liteke esperientzia horiek alferrik galtzea, ezaguera berria sistematizatu eta sortzeko bidean, teoriako eta azterketazko esparru egokirik ez egoteagatik (Dubois 2010). Erronka da giza garapenaren kategoriak egiaz operatibo bihurtzea tokiko estrategietan. Esperientzia praktiko ezagunen artean, Porto Alegren (Brasil) partaidetzako aurrekontu publikoak atontzeko prozesuak nabarmentzen dira. Herriarren partaidetza duten aurrekontuek pertsonen beharrezko kontuan hartzen dituzte, eta, batez ere kolektibo beharrezkoen begiratzeko dieten arren, badute ikuspegi zabalagoa. Partaidetzak, oro har, inbertsioak lehentasunezko arloetara bideratzen laguntzen du, komunitatearen giza garapenerako funtsezkoak diren arloetara, alegia. Partaidetzako aurrekontuen esperientziak aberastu egiten dira genero-ikuspegia barneratzen eta zeharkako bihurtzen dutenean. Ildo horretan, nabarmentzen dugu genero ikuspegiarekiko aurrekontuen (GIA) alorreko esperientziak ere laguntzen dutela tokiko giza garapena indartzen, haien helburua genero-ekitate (ekonomiaren, gizarte-arloaren eta politikaren aldetik) aurrekontu-zikloan txertatzea delako, politika publikoari dagokionez proposamenak, segimendua eta ebaluazioa eginez, administrazio publikoen jarduna hobe dadin lortzen saiatuz, azken batean.

Tokiko garapena garapen endogenoko prozesutzat ulertzen bada, hots, lurralde jakin bateko garapenean parte hartzearen bidez eragina duten tokiko eragile edo agente batzuen jardueraren ondoriozko prozesutzat, kontuan izan behar da eragileak, generoari dago-

¹⁸ Zenbaitetan, ez dago guztiz argi zer ulertzen den "tokikotzat". Tokiko giza garapenaz hitz egiten denean, tamaina bateko zein besteko lurraldeetan gauza daitekeen garapen-mota bat aipatzen da (giza garapena), eta tokikoa komunitatearen edo udalerraren berdintzat jotzea sinplifikazioa da. "Tokikoak" badu zentzua "kanpotik edo goitik" begiratzeko zaionean, eta, hala, eskualdeak tokiko eremuak dira herrialde-tik edo eremu transnazioaletik (globala) begiraturik, probintziak ere izan daitezke, eskualde-tik begiraturik, bai eta udalerrira ere, probintziatik. Tokikoa eremu zabalago batekiko kontzeptu erlatibo da, eta tokikoa aztertze-ko eremu barne-hartzaileago hori aipatu beharra dago.

kionez, ez direla neutroak, hezur-haragizko gizon-emakumeak baizik. Hartara, tokiko garapenean ez dago genero-neutraltasunik, barruan gizarte-harremanak dauzkalako, eta azken horien barruan, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak, haien baldintza eta estatus desberdinak, haien beharrian, interes eta itxaropen desberdinak, botereko eta erabakiak hartzeko hierarkiak, eta abar. Generoak tokiko garapena markatzen du; batera edo bestera sartzen da eta eragiten du tokiko garapenaren aldeko apustuek proposatzen eta sustatzen duten ikuspegietan, proiektuetan eta helburuetan. Genero-dimentsioa zeharkakoa da, eta tokiko garapenaren beste dimentsioei lotuta dago (Massolo 2007).

Generoen arteko bereizketa eta desberdintasuna lurraldean gorpuzten dira, eta lurraldean ere eraldatzen dira. Esan daiteke emakumeengandik hurbileneko guneak, historian zehar gizarte-kudeatzaile aritu izan diren tokiak, etxebizitzaren inguruak direla: auzoa, barrutia, etxadia, herria. Feminismoak partaidetzaren kontzeptua berraztertzeko beharra azpimarratu du, bai eta arreta ohikoak ez diren beste arlo batzuetan jartzeko garrantzia ere, hala nola, eguneroko bizitzaren barrukoetan; hain zuzen ere, halako arloak baztertu egin dira partaidetzari buruzko azterlanetan, ez baitira gune politikotzat hartu.

Genero-ikuspegi kritiko batetik, tokiko guneen garrantzia nabarmendu da, emakumeek partaidetza publikoa aurrera eraman dezaten, tokiz hurbil daudelako eta denboraren aldetik malgutasun handiagoa eskaintzen dutelako. Era berean, baina, horrek berekin dakartzan tranpez ere ohartarazi da, “emakumeen tokia” tokiko eremu hertsia dela naturalizat eman baitaiteke, eta, gainera, zapalkuntzako, bazterkeriako eta genero-indarkeriako egoerak eta harremanak ezkuta baitaitezke. “Tokikoa” eguneroko infernua izan daiteke emakumeentzat, eta aldaketa politiko, sozial eta kulturalak behar dira “tokikoa” emakumeen emantzipazio eta aurrerakuntzarako gune bihur dadin (Massolo, 2007).

Emakumeek tokiko gune eta elkarteetan parte harteari, nahiz eta berebizikoa eta funtsezkoa izan den eta baden, oraindik ez zaio behar besteko aitormena eta balioa eman. Gune eta parte hartzeko modu informal eta komunitario horien bitartez, emakumeek *gizarte-kudeatzaile* gisa dituzten gaitasunak ikasi eta erakutsi ahal izan dituzte, etxe, auzo, herri edo komunitateko

bizi-baldintzak hobetzeko, eta ospe nahiz lidergo soziala bereganatu dituzte. Emakumeen partaidetza hori, sarritan, etxeko eta komunitateko eguneroko oinarrizko beharrianekin lotura zuten arazo eta lanetan kontzentratu da, etxeko rolak gune publikoetara proiektaturik. Horrela, emakume publikoak bizitza publikoan egotea “normalizatu” da, baina baldin eta gizartean onartzen diren lurralde-mugen nahiz jokae-ra “femeninoen” barruan geratzen badira. Muga eta jokaera onargarri horietatik ateraz gero, partaidetza hausle eta onartezinaren arriskuko esparruan sartzen dira, eta gaitzetsi egiten dituzte askotan. Hala, bada, beste batzuentzako ongizate-helburuetarako, emakumeen *bitartekari* rola soilik hartu izan da kontuan, eta emakumeen partaidetzaren ideia gizarte-arazoei –hala nola, pobrezia eta hondamen naturalen edo krisi ekonomikoen ondoriozko gizarte larrialdiei– lotu izan zaio, oro har. Aitzitik, ez da normalean emakumeen partaidetza ikusten arlo publikoan beren aldarrikapen eta agendak dauzkaten gizarte-subjektuak diren alde-tik (Massolo 2007).

Esan daiteke TG Gan bi genero-arail daudela: emakumeen ordezkapenari dagokion arrail edo defizit kuantitatibo bat, baina arrail kualitatiboa ere bai, garapen-prozesuen gainean eragina izateko eta erabakitze gaitasun-falta, emakumeen interesen pluraltasuna barne har dezaten. Lehen batean, tokiko eremua hurbilagokoa izaki, badirudi egokia dela haien partaidetza handitzeko. Horrek emakumeen eta gizonen errealitatea hobeto eza-gutzea ekarriko luke, eta horrek bultzatzen lezake (lezake, bakarrik) emakumeen estatusa hobetzeko neurri eta politikak abian jartzea. Pentsatzen da arrail kuantitatiboa txikitzea baldintza beharrezkoa dela, gaur egun, arrail kualitatiboa murrizteko, baina ez da baldintza nahikoa, zeren emakumeak gehitze hutsak ez baitu bermatzen haien interesen aldeko apustu irmoa.

TGGtik, pertsonen eta taldeen garapena erreala bilatzen duten tokiko komunitateen jardura-estrategia bat proposatzen da. Haren helburua da tokiko komunitatearen ahalduntzea lortzea, kontrol handiagoa izan dezaten haien garapen-baldintzak eratzen dituzten mekanismoen gainean. Lurralde batean gizarte-eragile aktiboak modu ekitatezko eta pluralista batean eratzeko, beharrezkoa da gaitasunak garatzeko prozesu bat abian jartzea; izan ere, gizarte-talde guztiak ez daude partaidetza sozialerako baldintza berdinetan eta ez dute aitormen bera beraien ekarpenari buruz.

Lurraldean genero-ikuspegia izateko, beharrezkoa litzateke askotariko gizon eta emakume batzuek (gazteak, indigenak, nekazariak, ekintzaileak, eta abar) beren buruaren aurkikuntza egin dezaten, eta sendo daitezten, laguntzea. Ildo horretan, ez dago soberan berriro nabarmentzea munduko eskualde askotan –Latinoamerikan, besteak beste– generoen, belaunaldien eta etnien arteko harreman asimetriko batzuek dirautela, eta halakoek eragina dutela lurralde bateko eragile guztien dinamikan. Era berean, ez litzateke baztertu behar, agian, indarrean diren zenbait eragile eta egituraren “desahalduntzera” jotzea, partaidetza ekitatezko agoa erdiestearren.

Emakumeen partaidetzaren handitzeak hainbat erresistentziarekin topo egin du. Horietako bat izan da “boterea berreskuratzeko estrategiak” agertzea gizonen aldetik. Estrategia horiek presiozko eta errepresiozko erreakzioak dakartzate, emakumeek karguak utz ditzaten ordezko gizonen mesedetan, alegia, jazarpen politikoa dakarte. Jazarpen hori etortzen da elkarte, antolakunde edo alderdi bereko gizonengandik, beste erakunde batzuetako gizon eta emakumeengandik, sindikatu-ordezkariegarandik, eta abarregandik, eta indarkeria fisikoa eta psikologikoa erabiltzea nahiz jazarrien kudeaketari kalteak eragitea ekar dezake.

TGGa lortzeko erronka garrantzitsuenetako bat da genero-interes estrategikoen alde egiten dituzten –aldi berean, genero-interes praktikoei erantzuten zaiela– politika eta proiektu batzuk taxutu, adostu eta gauzatzeta. *Genero-beharrizan praktikoak* emakumeentzat gizartean etxe-arlorako onartzen diren roletatik (ama, emaztea, etxeoandrea) datoz; berehalako beharriak dira, familia eta komunitateek oinarrizko zerbitzu eta ondasun materialen gabezia edo urritasuna pairatzearekin lotutakoak, eta emakumeek arlo publikoan parte har dezaten eragiten dute. Interes praktikoa horiek, sarritan, ez dituzte zalantzan jartzen ez genero-mendekotasuna ez genero-desberdintasuna. Horregatik, *genero-beharrizan estrategikoei* erantzuteko neurri batzuekin konbinatu behar dira. Halako beharriak sortzen dira emakumeek gizartean duten mendekotasun-, desberdintasun- eta bazterketa-*estatusa* aitortzen dutenean, eta horretaz jabetzen direnean. Beharriak horien helburua gizarteko genero-harremanak eraldatzea da, bai eta askatasuna, berdintasun erreala, autoestimua eta ahalduntzea bereganatzea ere. Interes batzuen eran adierazten dira, eta haien artean honako

hauek daude: lege-eskubideak; jabetzak eta ondasunak izateko eskubideak; indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea; norberaren gorputza kontrolatzeko eskubidea eta sexu- eta ugalketa-arloko eskubideak; haien intereseko gaietan trebakuntza eta prestakuntza jasotzea; politika publikoak taxutzen, gauzatzen eta kontrolatzen parte hartzea; eta, azken batean, emakumeen giza eskubideen defentsa.

Agerikoa da emakumeak askotarikoak direla, eta ez dago zalantzarik, gizarte askotan bezala, etniak pertsonen bizitza markatzen duela; emakume indigenek, genero-bazterkeria ez ezik, etniari eta gizarte-klaseari loturiko bazterkeriak ere jasan behar dituzte. Egia da haiek ere ikusgaitasuna lortuz joan direla komunitatean, antolakunde mistoetan, eskulangile-kooperatibetan, osasun-batzordeetan eta emakume-antolakundeetan, gune horietan beraien beharriak erantzuna ematen saiatzen direlarik. Haien partaidetzaren garrantzia aitortzen eta balioesten bada ere, komunitate-erako hierarkiako agintariek, oro har, emakumeen bigarren mailako partaidetza bat baino ez du onartzen eta aitortzen, maila pertsonalean kargurik, berezko estatusik edo erantzukizunik, salbuespenak salbuespen, eman gabe, emazte, alaba, arreba edo lagun diren aldetik baizik. Horrela, emakume indigenen sozializazio publikoak eta agente politiko gisa dagokien aitormenak komunitateen barruko genero-harremanen bitartekotza dute. Atera ohi den ondorioa da emakume indigenek aurrean duten oztopoetako bat desinformazio orokorra eta beraien eskubideak ez ezagutzea dela, emakumeak hezkuntza izatek baztertzeko duen generoko kultura-erakuntza dela medio. Horregatik, ezinbestekoa da politika publikoek haien beharriak estrategikoei erantzun diezaieten eta haien partaidetza aktiboa bultzatzea.

Esaterako, Erdialdeko Amerikako jatorrizko herrien gobernu tradizionala *Usadio eta ohiturak* (UEO) deritzaun autogobernu-modu bat da, eta usadio eta ohitura horiek emakumeei eta gizonei eginkizun zehatzak ematen dizkiete, haien bidez gizarte-antolaketan parte har dezaten. Eginkizun hori genero bati atxikirik egotetik dator, eta emakumeei ugaltzaile biologikoen rolak esleitzen dizkie. Komunitate bakoitzean etnia bakoitzeko gizonei eta emakumei, mutikoei eta neskatoei, pertsona helduei eta adinekoei esleituriko rolak zehazteaz gain, EOE-ek debekuak, eskubideak eta betebeharrak ere zehazten dituzte. Bizitza arautzen duen

sistema da, eta sistema horretan emakumeak mende-ko tokia dute, komunitateko gizonetzkoen aldean.

Kasu batzuetan, hala nola, guatemalar emakume indigenen kasuan, bazterkeria etnikoa areagotu egiten da, zeren lurra eskuratzeko, hezkuntzarako, lan or-daindurako, eta erabakiak hartzeko politika-arlo for-maleko guneetan sartzeko aukera gutxien duen kolektiboa baitira. Maiek, ladinoen aldean –ahaztu gabe askotariko etnia maiak daudela–, gutxiago parte hartzen dute alderdien politikan, hautagai edo hautetsi gisa, udalerrri-mailan. Populazio indigena %90 baino gehiago den udalerrri batzuetan, emakume ladinoak aurkezten eta hautatzen dira sindiko-eta zinegotzi-karguetarako. Tradizioa eta ohiturak, identitate indigenaren gune gogorra izaki, tradizioaren politika deituriko usadio politiko batzuei lotuta egon dira. Tradizioa baliabide ahaltsua da, botereko eta aginteko harremanak berreraikitzea, jokaerak txertatzea eta talde baten identitatea beste baten aurrean babestea ahalbidetzen duena. Aitormen politikoaren iturri da, baina, orobat, baliagarria da jokaerak inposatzeko, disidentzia zapaltzeko, gauzen ordena justifikatzeko eta generoen arteko botere-harremanak berreraikitzeko. Tradizioaren politikak ohituren baliatze hori aipatzen du, eta komunitate indigenen barruan emakumeek beren eskubide zibil eta politikoak erabiltzean haien mendekotasuna justifikatuz adierazten da (Massolo 2007).

TGGa lortzeko proposamenak

Sarri askotan, zerbitzu publikoak ematearen erantzukizunak deszentralizatzeko prozesuak tokiko giza garapenaren bilaketarekin lotzen dira. Hala ere, deszentralizazio oro ez da eraginkor eta eraldatzailea. Giza garapenean izango duten eragina tokiko testuinguru sozial eta politikoaren arabera izango da, bai eta herrialdeko baldintzen arabera, bereziki herrialde horretako erakundearen eta administrazio-gaitasunen

arabera ere. Deszentralizazioa eraginkorra izango bada, boterea eta erantzukizunak transferitu behar dira, eta ez soilik goi-mailan prestatutako politikak abian jarri.

Latinoamerikako¹⁹ herrialde gehienetan, deszentralizazioak eta beste politika publiko batzuek parte hartzeko gune publikoak sortu dituzte. Halakoetan, komunitatearen ordezkariak, udal agintariekin eta beste funtzionario publiko batzuekin batera, gizarte-inbertsioko planak –osun zerbitzuak eta azpiegiturak barne– taxutzen eta erabakitzen dituzte. Guatemalan, esaterako, gune publiko hori *Hiri eta Landa Garapenerako Kontseiluen* sistemak (Consejos de desarrollo urbano y rural–CDUR) gauzatzen du. Sistema hori 2002. urtean eratu zuten, eta parte hartzeko mekanismoak sortzen ditu aurrekontu publikoen lehentasunak ezartzeko eta aurrekontuok esleitzeko, komunitateen mailatik gobernu zentralerako. CDUR sistemaren egiturak bost ordezkari-taldea dauka. Tokiko lehen mailan Komunitatearen Garapenerako Kontseiluak (Consejos de Desarrollo Comunitarios–COCODE) daude, komunitate-batzarren bidez eratuak. Hurrengo maila udalerrriena da, eta haietan Udalerrriaren Garapenerako Kontseilua (Consejos de Desarrollo Municipal–COMUDE) ezartzen da. Hirugarren maila Departamenduaren Garapenerako Kontseilua (Consejo Departamental de Desarrollo–CODEDE)²⁰ da. Beste bi mailak eskualdekoa eta herrialdekoa dira, eta haien egitura departamendu-mailakoaren antzekoa da. Bost mailetan, gizarte-inbertsioko lehentasunak jasotzeko, udalerrri-maila da garrantzitsua; hain zuzen ere, COCODE-ek haietara ekartzen dituzte beren eskaerak, azpiegiturari eta gizarte-zerbitzuei dagokienez.

Garapenerako Kontseiluen Legea nahiz haren ezarpena ez dira, inola ere, perfektuak, eta faktore mugatzaile asko daukate: ordezkarien legitimitatea; kontseiluetako bertako ordezkari-kuotak; eta lehentasun sekto-

¹⁹ Bolivian *Ley de Participación Popular* («Herriak Parte Hartzeko Legea») delakoa indarrean sartu zen 1994. urtean. Erreferentzia-puntua izan zen Latinoamerika osoan herritarren partaidetzarako. Orduz geroztik, Bolivia tokiko harreman politikoak beriz zehazteko prozesu bat (nahikoa eztabaidatua) bizitzen ari da. Tokiko gune publikoak irekitzeak, halaber, Movimiento al Socialismo (MAS; «Sozialismoranzko Mugimendua») Evo Morales egungo presidentearen alderdiaren goraldia bultzatu zuen, eta udalerrri askotako politikan sar zedin ahalbidetu.

²⁰ COMUDE-etan, COCODE-etako, udal-gobernuko, beste erakunde publiko batzuetako (Osasun Ministerioa, Hezkuntza Ministerioa) eta udalerrriaren diren garapenerako gobernu kanpoko beste erakunde batzuetako ordezkariak parte hartzen dute. CODEDE-etan, gobernu erakundeetako departamendu-mailako agintariekin, udal-gobernuetako, departamenduko gobernadoreak, unibertsitateetako ordezkariak, departamenduko talde etnikoetako eta emakume-elkartekoetako ordezkariak, eta alderdi politikoetako ordezkariak.

rialei baliabideak esleitzeko prozesua. Hala eta guztiz ere, garapenerako kontseiluen sistema udal-agintarien, estatuko gobernuko ordezkarien, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen, sektore akademikoaren eta herritarren arteko eztabaidarako eta elkarriketarako gune publikoa da. Guatemalako demokratizazio-prozesutik sortu den garrantzi handiko pauso bat da, beraz. Garapenerako kontseilu horiek emakumeek politikan parte har dezaten bultzatu dute. Dena den, azterlan batzuek (Flores eta Gómez-Sánchez, 2010) frogatu dute litekeena dela, politika publikoen inguruko erabakiak hartzeko, gizartearen partaidetzarako gune publikoak sortzea aski ez izatea genero-ekitatearen aldeko politikak sustatzeko. Beste azterlan batzuek (Marroquín eta León, 2010), halaber, ondorioztatzen dute, nahiz eta garapenerako kontseilu horietan tokiko eragile batzuekin hitz egiteko eta elkarriketa izateko dagoen aukerak emakumeen partaidetzan potentzialtasunak sortzen dituen, ahaleginek inpaktu txikia izan dutela, sisteman parte hartzen duten emakumeen ehuneko oso baxua delako eta sartzen direnek aurre egin behar dietelako “matxismoaren eta ikusezin bihurtzen dituen kultura politikoarekin lotura duten oztopo batzuei, eta, ondorioz, proposamenak egiteko eta proposamen horiek onartuak izateko aukerak oso gutxi direlako”.

Hala, bada, deszentralizazio-prozesuak eragin desberdinak izan ditzakete emakumeengan eta gizonengan. Horrela, Alejandra Massolok dio Boliviako esperientzian, deszentralizazio-prozesuaren ondorioz, gizon askok tokiko hauteskunde-kanpainan parte hartzea erabaki zutela, eta horrek maila horretan emakumeentzat lehia politikoa zailagoa izan zedin ekarri zuela. Era berean, Herriak Parte Hartzeko Legeak aldaketak sartu zituen alderdiek hautagaiak bilatu zuten pertsona-motari dagokionez, eta horrek emakumeen kontrako ondorioak izan zituen. Aipaturiko legea ezarri aurretik, alderdiek hautagaiak izendatzeko erabiltzen zuten irizpidea alderdiarekiko leialtasuna zen, eta, legea indarrean sartu ondoren, alderdiek tokiko liderrak diren eta dagoeneko herrian nolabaiteko babesak finkatuta duten hautagaiak bilatu dituzte. Halako hautagaiak gehienbat gizonak izaten dira, eta emakumeak, aldiz, gutxiengoak dira gizarte zibileko antolakundeetako liderren artean. Sistema berriak, era horretan, egoera okerragoan jarri zituen hainbat urtean alderdiekiko leialtasuna frogatzearen lan egin zuten emakumeak.

Zailtasunak zailtasun eta baliabide propio gutxi eduki arren, emakumeen kanpainak ikusgai bihurtzea eta gizonekin lehiatzea ahalbidetu die; hain zuzen ere, hori 1999ko hauteskundeetan islatu zen, udalbatzetan emakumezko ordezkariak %32 izatea lortu zen eta.

IV.3. Giza segurtasunaren eta autonomiaren esanahia emakumeentzat

Giza segurtasunaren kontzeptua

Giza Garapenera buruzko Txostena deritzonak, 1994. urtean, giza segurtasunaren kontzeptua sartu, eta honela definitu zuen: “beldurrik gabe bizitzeko askatasuna eta beharrianik gabe bizitzeko askatasuna”, eta “esan nahi du segurtasuna dagoela mehatxu kronikoen aurrean, hala nola, gosearen, gaixotasunaren eta errepresioaren aurrean, bai eta babesaren ere eguneroko bizitzaren aldaketa bat-bateko eta mingarrien aurrean, nahiz etxean, nahiz enpleguan, nahiz komunitatean”. “Azken batean, giza segurtasunaren adierazpena da hiltzen ez den haur bat, zabaltzen ez den gaixotasun bat, kentzen ez den enplegu bat, indarkeria gisa lehortzen ez den etnia arteko tentsio bat, isilarazten ez den disidente bat. Giza segurtasuna ez da armen gaineko kezka bat: giza biziaren eta duintasunaren gaineko kezka bat baizik” (UNDP 1994).

Giza segurtasunaren kontzeptu horrek errotik aldatu zuen bakeari eta gatazken prebentzioari buruzko go-goeta tradizionala. Giza segurtasunak arreata giza garapenera aurre egin behar dien arrisku guztietan jartzeko eskatzen du, ez gatazkako eta gatazka ondoko egoeran eta estatu ahuletan. Barne hartzen ditu mehatxu kronikoen (gosea, gaixotasunak eta errepresioa, besteak beste) aurreko segurtasuna, eta eguneroko bizitzaren bat-bateko aldaketa mingarrien (hala nola, indarkeria, lurrikarak edo finantza-krisiak) aurreko babesak.

Giza segurtasuna, era horretan ulerturik, ikuspegi zaharrago eta mugatuago bati kontrajartzen zaio, indar armatuek eta misio humanitarioetako funtzionarioek, batez ere, erabilitako ikuspegi bati, hain zuzen ere. Paradigma tradizionalaren arabera, segurtasuna herrialdearen mugak defendatzean zetzan, eta aldagai nagusia lurraldearen kontrako eraso posible bat zen. Giza segurtasunaren paradigma berriak aztergai lurraldetik lurralde horretan bizi den jendearengana lerratu du, eta jende horren segurtasuna, duintasuna eta

mantenurako baliabideak honda ditzaketen mehatxu ugariak aztertzen ditu. Giza garapenaren aurkako mehatxu guztiak identifikatzen ditu –indarkeria, haien artean–, eta ikertzen du nola pobrezia indarkeria sortzen duen, edo nola indarkeria-mehatxuek, era berean, pobrezia sortzen duten.

Segurtasunez bizitzeko eskubideak lotura zuzena du bizitzeko eskubidearekin, haren bi alderdietatik: bizitza izateko eskubidetik nahiz bizirik irauteko eskubidetik. Bizitzeko eskubideak gainerako eskubideak baldintzatzen ditu. Hala, bada, munduko populazioan emakumeek duten proportzio txikia (Senek “emakume desagertuak” deitutakoen bidez sinbolizatu zuen hori) emakumeen aurkako indarkeriaren muturreko seinaleztat har daiteke.

“Emakume desagertuak” terminoa emakumeen aurkako egoera jakin bati dagokio: emakumeen heriotza-tasaren eredu eta mutikoen eta neskatoen arteko jaiotze-unekeo zatiduraren (jaiotako mutiko-kopuruaren eta jaiotako neskato-kopuruaren arteko zatidura) ondorioz sortzen den egoera desabantailatsuari, hain zuzen ere. UNDPk kalkulatu du 2010ean, munduan, 4 milioi emakume desagertu baino gehiago dagoela, eta Nazio Batuen zenbatespenen arabera, mutikoen eta neskatoen arteko zatidurak gora egin du munduan; hala, 1970eko hamarkadaren hasieran 1,05 zen, eta azken urteetan maila gorenera iritsi da, 1,08 baita. Mundu-mailako joera hori gehienbat bultzatzen duena mutikoak izateko hobespina da, Txinan batez ere; hain zuzen ere, han genero-zatidura handitu egin da 1970ko hamarkadaren hasieratik²¹, nahiz eta herrialde horretan 1989az geroztik sexuaren jaio aurreko hautespena debekaturik dagoen, bai eta sexuaren araberrako abortu selektiboa ere, 1994az geroztik (UNDP 2010).

Emakumeen aurkako indarkeria

Segurtasunez bizitzea indarkeriarik gabe bizitzea da. Indarkeria, gaur egun, munduko eskualde guztietan maizegi gertatzen den fenomeno da²². Eta mundu osoan indarkeriak bereziki eta gogorki emakumeak jotzen ditu. Esaterako, hartuko bagenu 15 urtetik

gorako 10 emakume adierazgarri Latinoamerikako eta Karibeko herrialde bakoitzean, kalkulaturik dago ikusiko genukeela lau perutarrek eta lau nikaraguarrek senarren indarkeria fisikoa jasaten dutela; Mexikon, hiru emakume indarkeria emozionalaren biktima lirateke, eta bi, indarkeria ekonomikoaren biktima; hiru brasildar muturreko indarkeriaren biktima lirateke, eta bi haitiar, indarkeria fisikoaren biktima. Eta “kalkulaturik dago ikusiko genukeela” diogu, zeren, nahiz eta emakumeen aurkako indarkeria maizegi gertatzen den zerbait den²³, gaizki dokumentaturik baitago eta nazioarteko erkaketak egiteko datuak falta baitira.

Jakina, kolpeak, hitzezko erasoak, apalkuntzak, mehatxuak, irainak, eta beste indarkeria-modu batzuk ere gizonek jasandakoak dira, neurri handi batean gizarte-indarkeriaren eta/edo arrazari, etniari, sexu-joe-rei edo gizarte-talde jakin batekoa izateari loturiko bazterkeriaren ondorioz. Baina emakumeen aurka genero-bazterkeriaz erabiltzen den indarkeriak forma berezia hartzen du eta hedapen berezia dauka, eta emakumeen generokoak izateagatik, hain zuzen ere, gertatzen da hala, hau da, gizartean mendeko tokia izateagatik eta gizartearen barruan bete dezaten espero diren arau, praktika eta estereotipo batzuek eutsitako rol bat betetzeagatik. Celia Amorós (1999) dioenez, serieko hilketak gertatzeari uzteko baldintza bat da serie bat izateari utz diezaiozun eta geure burua indartzen has gaitzen, emakumeen banakotasuna eraikitzen. Emakumeen ahalduntzea funtsezko estrategia da arlo guztietan mendekotasun-egiturak eraldatzeko eta, beraz, indarkeriari aurre egiteko ere bai.

NBEk (1994) “Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrazteko Adierazpenean” genero-indarkeriaren definizioa hau eman zuen: “generoan oinarrituriko indarkeriazko ekintza oro, emaitzatkat kalte fisiko, sexuala edo psikologikoa, posiblea edo erreala, duena, mehatxuak, hertsadura, edo askatasunaz bidegabe gabetzea barne, bizitza publikoan zein pribatuan gertatuta ere”. Eta hauek ere gehitu zituen: “familia barruko indarkeria fisikoa, sexuala edo psikologikoa, barne direlarik kolpeak, etxe barruko neskatoen aurkako sexu-abusua,

²¹ Zatidurak Indian ere gora egin du. Abortu selektiboaren debekuak bere helburua bete ez duenez, Txina eta India beste metodo batzuk biltzen ari dira bereizkeria horri aurre egiteko.

²² Munduan, Latinoamerika da eskualderik ez-seguruen, izan ere, hango hilketa-tasa munduko batez bestekoa halako sei da, eta han biltzen dira su-armei loturiko heriotza-tasaren bi bosten.

²³ OMEk kalkulatu du, zenbait herrialdetan, indarkeria fisikoa edo sexuala jasan duten emakumeen ehuneko %71 dela.

ezkonsariari loturiko indarkeria, senarraren bortxaketa, mutilazio genitala eta emakumei eraso egiten dieten beste praktika tradizional batzuk, senarra ez diren beste pertsona batzuek jasanaraziriko indarkeria, eta esplotazioarekin lotura duen indarkeria; komunitate-mailan, oro har, gauzatzen den indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, barne direlarik bortxaketak, sexu-abusuak, laneko, hezkuntza-erakundeetako eta beste esparru batzuetako sexu-jazarpena eta -larderia, emakumeen trafikoa eta prostituzio behartua, eta estatuak gauzatutako edo onartutako indarkeria fisikoa, sexuala edo psikologikoa, edonon gertatzen dela ere”.

UNDPk (2007), emakumeen aurkako indarkeria aztertzean, hura aurrera eramaten den gunearen arabera bereizi zituen indarkeria-motak: gune intimoetako indarkeria, komunitate barruko indarkeria, estatuak edo haren agenteek gauzatutako edo toleratutako indarkeria, eta feminizidioa, emakumeen aurkako indarkeria-mota batzuen zein besteen azken kate-maila gisa. Indarkeria-egileen artean sartzen dira bikotekidea eta beste senide batzuk, laneko enplegu-emaileak, nagusiak eta lankideak, estatuako funtzionarioak, gaizkiltaldeetako eta talde armatuetako kideak, eta abar.

Gune intimoan, funtsean, bikote-harremanean gertatzen den indarkeria sartzen da²⁴. Indarkeriaren beldurrak mundu pribatutik kanpoko hainbat funtzio eta jardueratarira iristea mugatzen du, besteak beste. Indarkeriaren inguruan dauden mitoetako bat pobrezia-ekin lotuta dagoela pentsatzea da. Dagoen informazioak agerian utzi du emakume pobreek indarkeria jasateko arrisku handiagoa dutela, baina gizarte-talde guztietan aurkitutako indarkeriak iradokitzen du, etxe pobreako edo pobrea ez den etxekoa izatea baino garrantzi handiagorekin, autonomia ekonomikoaren eta ahultasun-egoeraren arteko dikotomia nagusitzen dela, hau da, emakumeek diru-sarrera propioak izatea edo ez. Indarkeriaren eta hezkuntzaren artean, bai,

egiaztatu da lotura estuagoa; izan ere, indarkeria handiagoa da hezkuntza gutxiago duten emakumeen artean, nahiz eta pentsatzekoa den, orobat, hezkuntza handiagokoek eguneroko bizitzan arazo hori dutela aitortzeko beldur direla.

Komunitateari dagokionez, emakumeek auzoetan, garrabiobideetan, eskoletan, ospitaletan eta beste erakunde publiko batzuetan nozitzen dute indarkeria, eta egoera horren arrazoa ez da bakarrik gizonen eta emakumeen artean ezartzen diren botere-harremanak, baizik eta emakumeek ez parte hartzea hiri-eremuko gunearen diseinuan, gune horren taxuketak arrisku-egoerak jasateko moduan jartzen ditu eta. Baina gune horrek, arlo publikoko sexu-indarkeria ez ezik, laneko jazarpena eta emakume-trafikoa ere barne hartzen ditu.

Estatuak edo haren agenteek gauzatutako edo toleratutako indarkerian²⁵, nabarmentzen da kolektibo jakin batzuen aurkako indarkeriarekin, indigenen aurka kasu-bai eta migratzaileen eta afrikarren ondorengoen aurka ere- eta gatazka armatuetako emakumeen aurkako indarkeriarekin dagoen tolerantzia. Indigena izateak alfabetatze- eta eskolatze-defizitak dakartza, indigenak ez direnen edo gizon indigenen kasuan baino handiagok. Faktore horrek, erabakigarria ez bada ere, badu eragina indarkeriaren aurreko ahultasun-egoeran, indarkeria fiskoaren aurrean, bereziki²⁶. Emakume indigenek, gainera, oztopo gehigarriak dituzte (hizkuntzaren, kulturaren, eta abarren arlokoak) erakundeetara eta osasun-zerbitzuetara jotzea erabakitzen dutenean. Kezkagarriak dira, halaber, indigena-komunitateen lekualdatze behartuak (esaterako, Kolonbian, Guatemalan, Mexikon eta Perun), indarkeria fisiko eta sexualaren maila era esponentzian handitu dadin eragiten dute eta, neskatoen eta nerabeen aurka, batik bat.

Gatazka armatuetan²⁷, emakume askok hainbat errepresio-mekanismo jasaten dituzte, atxiloketatik hasita

²⁴ Halaber, neskato, mutiko eta nerabeen aurka erabiltzen den indarkeria ere sartzen da, eta neskato eta nerabeen aurka gauzatzen den indarkerian generoaren nahiz adinaren arabera bazterkeria-ereduak bateratzen dira.

²⁵ Agenteetan, estatuaren aginteko elementuak erabiltzeko eskumena duten pertsona guztiak sartzen dira: botere legegileko, botere betearazleko eta botere judizialeko kideak, eta legeko agenteak, gizarte-segurantzako funtzionarioak, espetxezainak, atxilotze-tokietako funtzionarioak, immigrazioko funtzionarioak, eta indar militar zein segurtasun-indarretako kideak.

²⁶ Amerikako Estatu Batuetan, Amnistia Internazionalaren arabera, emakume indigenek 2,5 aldiz aukera gehiago dute bortxatuak izateko edo sexu-erasoak nozitzeko, herrialde horretako gainerako emakumeek baino, eta hiru emakume indigenatik, bat baino gehiago bortxatuak dute haien bizitzan zehar.

²⁷ Latinoamerikan gatazken historia luzea da herrialde askotan (Peru, Kolonbia, Guatemala, El Salvador, Mexiko, eta abar), eta Amnistia Internazionalak zein antzeko beste erakunde batzuek indarkeriaz, oro har, eta emakumeen aurkako indarkeriaz, bereziki, ematen dituzten datuak zinez ikaragarriak dira.

eta abusu psikologiko, fisiko eta sexual sistematikoetara, bai eta hertsadurazko lekualdatzeak eta lan bortxatuko programetan sartzea ere, azken horiek, sarri, sexu-lana ere barne hartzen dutelarik. Bestalde, talde armaturen batean engaiatu diren emakumeek ere jasan dituzte antzeko indarkeria-moduak beren taldeetan bertan, logika militar, hierarkiko eta diziplinarioak beheragoko estatusen jartzen dituelako, indarkeria emozional, fisiko eta sexuala nozitzeko arrisku handia dutela (PNUD 2007).

Feminizidioa²⁸, indarkeria adierazpena da; hainbat adierazpide ditu, gertatzen den gizarteko esparruaren eta egilearen ezaugarrien arabera: bikotekidea edo bikotekide ohia, esparru pribatua; edo indarkeria sexualaren azken emaitza, esparru publikoan. Adibidez, Europan feminizidio pribatua jotzen da emakume gazteen heriotzaren kausa nagusitzat, hau da, bikotekideen, senarren, mutil-lagunen edo bikotekide ohien indarkeria. Feminizidio publikoa Ciudad Juárez (Mexiko) hiriarekin eta antzeko tokiekin nahiz Erdialdeko Amerikako zenbait herrialderekin (Guatemala, El Salvador) lotzen da; hain zuzen ere, han emakume erailen kopuruak handiak dira oso²⁹.

Emakumeen aurkako indarkeria arazo pribatua izateari utzi, eta –toki guztietan ez bada, munduko toki askotan– arazo sozial eta politikotzat jo izanaren merezimendua feminismoari zor diogu. Bide horretan, emakumeen aurkako indarkeriari gogor egiteko aurrerapen garrantzitsua izan da *baztertzeko nahitakotasuna* aitortu izana. Baina *emakumeen oinarritzko eskubideen urraketa* dela aitortu izana izan da aurrerapenik handiena. Horregatik, azpimarratu da giza garapenean gertatzen diren aurrerapenak giza eskubideak zein mailatan betetzen diren begiratuta balioztatu behar direla, pertsonen edo taldeen ahultasun-egoera nahiz gizartearen duten desabantailazko tokia aintzat harturik.

Emakumeen aurkako indarkeriak –haren zabaltasuna, izaera eta jatorria direla-eta– gizartearen giza garapena

murrizten du. Horregatik, pertsonen oinarritzko gaitasunen inguruan eztabaidatu da orain gutxi, eta horiek Estatuak babestu beharko lituzkeela ondorioztatu da, oinarritzko eskubideen funtsezko atala baitira. Eztabaida horietan, eskubide horiek erabiltzea galarazten duten murrizketak nabarmendu dira. Eztabaida horietako batzuk bideratu dira, hain zuzen ere, emakumeen aurkako indarkeriaren edo genero-indarkeriaren gaia gaitasunen esparruan kokatzearen garrantzia jorratzera.

Nussbaumek zehaztu zituen hamar giza gaitasun funtzional nagusietatik, lehen jaso ditugun horietatik, berak biri esanahi berezia ematen die, arrazoimen praktikoa eta afiliazioari, hain zuzen ere. Izan ere, “biek antolatzen dute eta hedatzen dira besteengana, eta horrek bilaketa zinez humanoago bihurtzen du”. Aurreago, badirudi funtsezko garrantziko hirugarren elementu bat gehitzen duela, osotasun fisikoa: toki batetik bestera libreki mugitzeko gai izatea; norberaren gorputzaren mugak subiranotzat trata ditzaten, hots, eraso baten aurrean segurtasunerako gai izatea, sexu-erasoa, adingabeen aurkako sexu-abusua, eta etxean erabiltzen den indarkeria barne; sexu-atseginerako eta ugalketaren inguruan hautatzeko aukerak izatea; eta duintasuna eta apalkuntzarik eza. Ildo horretan, egileak genero-indarkeria gorputz-osotasunaren aurkako atentatutzat ikusten du, beste gaitasun nagusi batzuk zabaldu eta mamitzeko nahiz askatasunez gozatzeko funtsezko oztopotzat.

Ikuspegi horretatik, argudioak ematen dira genero-indarkeriak emakumeek bizitzan zehar garatzen dituzten gaitasun guztiak oztopotzen dituen eta haien aukerak eta askatasunak galarazten dituen moduz. Martha Nussbaumek (2005) hainbat arrazoi aditzera eman zituen indarkeriarik eza estatuak babestu behar dituen oinarritzko beharrezko zerrendan egon dadin: indarkeriarik gabe bizitzeak askatasun gehiago dakartzkie emakumeei beren potentziala gara dezaten, agentzia erabil dezaten eta, horrekin, haien gaitasu-

²⁸ *Femizidio* kontzeptua 1990eko hamarkadaren bukaeran sortu zuten, emakumeen aurka gauzatzen diren hilketak definitzeko, kultura patriarkalaren ezaugarri misoginoak direla eta, funtsean. Femizidioaren kontzeptuari Marcela Lagardek berriz esanahia eman zion 2005ean, *feminizidio* izena emanik, neskato eta emakumeen aurkako indarkeriaren zati ikusgai ñimiño bat dela ulerturik, emakumeen giza eskubideen urraketa errepikatu eta sistematikoaren bururatzeko gisa gertatzen dena (Ravelo 2008).

²⁹ Mexikon Amnistia Internazionalak 2007an eginiko azterketa zehatz baten arabera, 400 bat emakume gazte erail edo bahitu zituzten Ciudad Juárez eta Chihuahua hirietan, Mexikon, 1993az geroztik. Amnistia Internazionalaren azken txostenaren arabera (2007a), 2.500 emakume eta neskato baino gehiago hil dituzte basatiki Guatemalan 2001. urteaz geroztik (163 2002an; 383 2003an; 527 2004an; eta 665 2005ean).

nak sendotu daitezzen, beren hobespenak eta bestelako beharrianak adierazteko, beren lehentasunak finkatzeko, eta beren eskubideak baliarazteko (UNDP 2007).

Giza eskubideak ez betetzea edo urratzea indarkeria desagerrarazteko aski arrazoi ez zaienez, betiere kostuen arabera argudioak eman daitezke. Ikuspuntu analitiko batetik, gizartearen eta ekonomiaren gaineko ondorioak honela sailka daitezke (UNDP 2007):

- Zuzeneko kostuak: bizien galera; indarkeria tratatzeko eta prebenitzeko erabiliriko ondasun eta zerbitzuen balioaren galera, haien artean daudelarik osasunari, justiziarri, poliziarri eta aholkularitzari loturiko zerbitzuak, trebakuntza eta gizarte-zerbitzuak, biktimak berak edo komunitateak, oro har, bere gain hartutakoak.
- Zeharkako kostuak: kontuan hartzen dira abortutasa altuagoak, ekonomia-ekoizpenaren arloko galerak, eta garapen politiko, sozial eta ekonomikoan emakumeek ez parte hartzeagatik datozen galerak. Oso azterlan gutxik heldu diete zeharkako kostuei.
- Kostu ukiezinak: batez ere, indarkeria belaunaldi batetik bestera ikasita transmititzea (normalean ez dira kontatzen, neurtzen zailak direlako).

V. TGGaren adierazleen mugak eta potentzialtasunak

Azken atal honetan, genero-adierazleen gaineko gogo eta egin asmo dugu, gehien erabiltzen diren nazioarteko estatistika eta adierazleak bereziki kontuan harturik, hala nola, UNDPk proposatutakoak. Era berean, sexuaren arabera banakatutako datuekin gaur egun hiru herrialderi (Peru, Guatemala eta Ekuador) egin dakiekeen argazkia ikusi nahi dugu, bai eta argazki horien zehaztasunik eza ere, gure iritziz funtsezkoak diren datu batzuk falta direlako.

Gaur egun, genero-gaietan espezializaturiko nazioarteko zein herrialde-mailako zenbait erakundek sexuaren arabera banakatutako estatistikak ekoizten, diseinatzen eta/edo banatzen dituzte. Hala ere, genero-gaiak txosten orokorretan nola txertatzen diren ikustea hautatu dugu, eta, beraz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunez bakarrik diharduten txostenak ez daude haien artean. Horretarako, mundu-mailan garapen-gaietan zalantzarik gabe erreferentzia-puntua diren erakunde eta txosten batzuk kontuan hartu ditugu: UNDP eta haren azken *Giza Garapenari buruzko Txostena* (UNDP 2010). Gainera, giza garapenari buruzko lehen txostena argitaratu ondorengo hogeigarren urteurrena dela eta, UNDPk, era esperimentalean, garapen-adierazle berriak atera ditu, generoari buruzko bat haien artean, eta oso une egokia iruditzen zaigu, hortaz, adierazle berri horiek nolabaiteko begirada kritikoz aztertzeke. Nahiz eta hori den gure azterketarako txosten nagusia, Latinoamerikako hiru herrialderen egoera (Peru, Ekuador eta Guatemala) ezagutzeko interes berezia dugunez, Latinoamerika

eta Karibeko garapenari buruzko azken eskualde-txostena ere, 2010ekoa (UNDP LAK 2010), miatu genuen. Hain zuzen ere, garapen-adierazle berrietako bat gehitzen lehena izan zen txosten hori, Desberdintasunak Doitutako Giza Garapenaren Indizea (GGI-D).

V.1. Estatistiken garrantzia

Adierazle bat neurri, zenbaki, gertakizun, iritzi edo pertzepzio bat da, egoera edo zertzelada jakin bat adierazten duena eta egoera edo zertzelada horrek denboran zehar izaten dituen aldaketak neurtzen dituena. Adierazleak fenomeno jakin baten irudikapena dira beti, eta errealitate bat osorik edo zati batean erakuts dezakete.

Hilary Rose doktoreak, Bradfordeko Unibertsitateko soziologoak, dioenez, estatistikek arazoak zehazten eta konponbideen eraginkortasuna ebaluatzen laguntzen dute. Estatistikarik ez badago edo ez badira ezagutzen, ez da *arazorik egongo, ez eta haiek konpontzen saiatzeko politikarik ere (no statistics, no problem, no policy)*. Hala, bada, estatistikak ezinbesteko tresna dira bai politika publikoak diseinatzeko bai haien segimendua eta ebaluazioa egiteko. Hain zuzen ere, jatorriz, estatistika terminoa (alemanezko *statistik* hitzetik) estatuaren datuen azterketari zegokion, hots, “estatuaren zientziari”.

Ildo horretan bertan, Joseph Stiglitzek, Amartya Senek eta Jean-Paul Fitoussik atonduriko *Ekonomia Garapena eta Gizarte Aurrerakuntza Neurtzeari buruzko Txostena*

(Stiglitz-Sen Txostena, aurrerantzean) izenekoan –hau da, azken hiru urteetan estatistika-gaietan, eta ongizatearen neurketan batik bat, ezinbesteko erreferentzia bihurtu den txostenean– esaten da estatistika-adierazleak garrantzizkoa direla gizartearen aurrerakuntza bermatzeko politikak sortu eta ebaluatzeko, bai eta merkatuen funtzionamendua ebaluatzeko eta haietan eragina izateko ere. Neurtzen denak badu eragin bat egiten den horretan, baina neurketek akatsak badauzkate, erabakiak okerak izan daitezke (Stiglitz, Sen, Fitoussi 2008).

Horrez gain, ukaezina da estatistikek gero eta protagonismo handiagoa dutela aldaketa soziokulturalei eta teknologikoei dagokienez. “Informazioaren gizartean” estatistikak eskuratzea askoz errazagoa da, eta gero eta jende gehiagok, gero eta hobeto prestatuago, kontsultatu egiten dituzte. Horrek herrialde-mailako zein nazioarteko datu-baseak ugaltu eta hobetu daitezkeen bultzatu du, etengabe adierazle berriak taxutzen dihardutenak. Handituz doan informazio-eskari horri erantzutearren, estatistiken eskaintza ere nabarmen handitu da, eta gaur egun eremu eta fenomeno berriak barne hartzen du (Stiglitz, Sen, Fitoussi 2008).

Hala eta guztiz ere, ez da komeni estatistikak sakratutzat hartzea. Lehenik, beti askoz konplexuagoa eta multidimentsionalagoa den errealitate batera eginiko hurbilketa baino ez baitira, azken batean. Bigarrenik, litekeena delako neurtzeko prozesua perfektua ez izatea; horregatik, garrantzitsua da neurtze-tresnetan aurreratzen jarraitzea eta tresnok beti aldatzen ari den errealitate bati egokituz joatea.

Hirugarrenik, estatistikak neutralak direla esaten den arren, egia delako munduari begiratzeko era bat islatzen dutela, eta gai batzuen inguruan informazio ugari izatea eta beste batzuen inguruan, aldiz, oso informazio urria izatea ez da kasualitatea izaten, eta estatistiken ekoizpena zuzentzen eta kontrolatzen dutenen lehentasunak islatzen ditu. Horrela, adibidez, lan ordainduari buruzko estatistikak ugari izatea eta beste lan batzuei buruzko estatistikak nabarmen falta izatea ez da kausalitatea, eta egungo gizarteetan enpleguak duen toki nagusia islatzen du. Gainera, denboraren erabilerari buruzko estatistikarik ez egoteak etxeko lanek eta zainketa-lanek ikusezin jarrai dezaten balio dute, nahiz eta oso lotura zuzena duten, pertsonen ongizatearekin ez ezik, lan ordainduari buruzko estatistikekin eta, ondorioz, merkataritzazko ekoizpenarekin ere.

Azkenik, estatistikak, oro har, per capita batez besteko gisa adierazten direlako eta, hortaz, desberdintasun handi batzuk ezkututzen dituztelako, non eta gizarte-klasean edo maila sozioekonomikoan, jatorri etnikoan, erlijioan, sexu-joeran edo adinean oinarrituriko hamaika bazterkeriak markaturiko mundu batean. Gainera, badago faktore bat, sexua, kolektibo guztiak zeharkatzen eta barneratzen dituena; horregatik, gizarte guztietan gertatzen diren genero-desberdintasunak ugaritu egiten dira kolektibo bereziki behartsuen kasuan.

Genero-desberdintasunak antzemateko, beraz, ezinbestekoa da genero-estatistikak edukitzea. Genero-estatistikak ekoitzi ahal izateko, beharrezkoa da datu ofizialak sexuaren arabera jasotzea, baina baita beste faktore hau ere: datuak biltzeko eta aurkezteko erabilgarri kontzeptu eta metodoek gizarteko genero-arazoak egoki islatzea, eta kontuan hartzea generoaren arabera bereizketak dituzten estatistikak sor ditzaketen faktore guztiak. Genero-desberdintasuna gai berria ez den arren, genero-estatistikak berri samarrak dira, duela gutxi arte genero-desberdintasunei garrantzirik ematen ez zitzaielako, beharbada, eta, hortaz, haiek desagerraraztea lehentasunezko helburua ez zelako.

Emakumeen Nazioarteko Laugarren Biltzarrean (Beijing, 1995eko irailetik 4tik 15era), garrantzi handia eman zitzaion estatistiken eta datuen gaiari, eta H.3. helburu estrategikoa “plangintzarako eta ebaluaziorako, sexuaren arabera banakatutako datuak eta informazioa prestatu eta zabaltzea” zen, hain zuzen ere. Hori lortzeko, dei egiten zien estatistika-zerbitzuei, gobernuei eta nazioarteko erakundeei, esaterako, neurriak har zitzaizkien, “gizonek eta emakumeek gizartean dituzten arazoak eta gaiak islatzen dituzten estatistikak sexuaren eta adinaren arabera jaso, bildu, aztertu eta aurkezteko”, eta “adinari, sexuaren eta abarren arabera banakatutako datuak aldi berean behin jaso, bildu, aztertu eta aurkez zitzaizkien, halakoak politiken eta programen plangintzan eta ezarpenean erabiltze aldera” (NBE 1996).

Beijingen, estatistikaren aldetik aurreratzeko proposatu ziren dimentsioak honako hauek izan ziren: pobrezia; hezkuntza eta trebakuntza; osasuna; emakumeen aurkako indarkeria; gatazka armatuak; ekonomia; boterea erabiltzea eta erabakiak hartzea; erakundeen

mekanismoak emakumeen aurrerakuntzarako; giza eskubideak; hedabideak; eta haurrak (NBE 1996).

Ekonomiaren arloan, nabarmendu behar dugu emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun askoren atzean ugalketa-lanak deitutakoek irautea datzala. Hala, bada, etxeko lanek zein zainketa-lanek kontu satelite batzuen helburu izan beharko lukete aldian behin eta ahalik eta zehatzen, eta eremu horretan asko eta asko dago egiteko: garrantzitsua da denboraren erabilerari buruzko inkestak nahiz ondoriozko etxe-ekoizpeneko kontu sateliteak egitea orokor bihur dadin; garrantzitsua da inkesta horiek era sistematikoan egin daitezzen, datuen bilakaerari jarraitzeko moduko serieak edukitzearen, eta une jakin bateko estatistikazko eranskin hutsak ez izateko; garrantzitsua da metodologiak eta aldizkakotasunak homogeneiza daitezzen, denboraren erabilerari buruzko informazioa erkagarria izan dadin nazioarte-mailan; eta oso garrantzitsua da, orobat, informazio hori erkagarria izan dadin lan-arloko estatistikekin, zeren, bestela, merkataritzazko mundua eta merkataritzazkoa ez dena mundu bereziak izango baitira aurrerantzean ere, eta haien artean gertatzen diren etengabeko transferentziek ezkutuan jarraituko baitute. Estatistiken heterogeneotasunaren erakusgarri da Afrikako 5 herrialdeetako, Asiako 12 herrialdeetako eta ELGAko 27 herrialdeetako emakumeen eta gizonen lan ordainduen eta ez-ordainduen denborei buruzko informazioarekin Nazio Batuek duela gutxi atera zuten argitalpena (NBE 2010).

Ekonomia Garapena eta Gizarte Aurrerakuntza Neurtzeri buruzko Txostenak, halaber, merkataritzazkoak ez diren jardueri buruz askoz lan gehiago eta sistematikoagoak egin daitezela proposatzen du, denboran eta espazioan erkagarriak diren pertsonen denboraren erabilerari buruzko informazioekin lehenik eta behin. Hala, bada, Stiglitz-Sen Batzordea bat dator ekonomista feminista askok duela zenbait hamarkadatik egin izan dituzten eskaerekin, lan ez-ordainduak ikusgai bihurtzeko eta zenbatzeko, oraindik gehien-gehienik emakumeek egiten dituzten lan batzuk, hain zuzen ere.

Beijing-95 biltzarraz geroztik, nazioarteko erakunde askok (NBE-Emakumeak, LANE, UNICEF, CEPAL, UNDP, Munduko Bankua, UNHCR, FAO, UNFPA,

HABITAT, OME, EMP, UNEP, UNESCO, ELGA, AECID, eta abar) nahiz herrialde- eta eskualde-mailako estatistika-institutu askok sartu dituzte beren eginkizunen artean sexuaren arabera banakatutako estatistikak egitea, batez ere etxea, sexu- eta ugalketa-osasuna, lan ordaindu eta ez-ordainduak, erabakiak hartzea, emakumeen aurkako indarkeria, eta antzeko dimentsioak kontuan hartuta. Genero-estatistiken alorrean egin den lan guztiaren ondorioa da genero-berdintasunaren behatokiak, genero-ekitatearen behatokiak, genero-gaienak edo pobreziaaren edo genero-indarkeriaren eta beste gai berezi batzuenak agertu izana, azken bost urteetan batik bat. Haien helburua da, oro har, diren direlako erakundeek genero-berdintasunari buruz aurrera eramaten dituzten politiketan aholku ematea, eta haiek aztertu, ebaluatu eta zabaltzea. Sarritan, behatoki horiek, praktikan, genero-estatistiketan espezializatutako unitate gisa funtzionatzen dute³⁰. Nazioartean, *Women's Watch* eta *Latinoamerikako eta Karibeko Genero Berdintasunaren Behatokia* nabarmentzen ditugu guk.

Ukaezina da, oro har estatistikek izan duten aurrerakuntzarekin batera, azken urteetan aurrerapen handiak egin direla, estatistikak sexuaren arabera banakatuta egitean ez ezik, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei hobeto antzemateko adierazle berriak bilatzean ere. Hau da, estatistika sozioekonomiko tradizionalak sexuaren arabera banakatzea lehentasun bat den arren, hori ez da nahikoa, bi arrazoi, gutxienez, direla eta. Lehenik, sexuaren arabera banakatze hutsak batez besteko emakume baten eta gizon baten arteko desberdintasunak egiten dituelako ikusgai, eta batez besteko pertsona horien atzean aztertu beharreko desberdintasun batzuk ezkututzen direlako. Eta, bigarrenik, sarritan estatistikak gizonen neurriera eraikitako mundu bat azaltzeko egoiak direlako, eta gizonen esperientzietara moldatzen direlako. Beharrezkoa da, bada, androzentrikoak ez diren adierazle berriak bilatzea, emakumeen esperientziei egokitzen zaizkienak.

V.2. Genero-adierazleak

Adierazle konposatuak

Adierazle-mota asko dago, eta lehen sailkapen batean adierazle bakunak eta adierazle konposatuak bereizten

³⁰ Azken urteetan berdintasunaren gaineko berriak aztertzea, estatistika-institutu askok genero-gaietan espezializatutako atalak sortu dituzte.

dira. Adierazle bakunak fenomeno jakin baten alderdi behagarriren bat aztertzeko erabiltzen diren oinarriko datu batzuen sintesiak edo serieak dira, aldagai bakar bati dagozkionak. Adierazle konposatuak (edo "indizeak"), berriz, "laburpen"-zifra bat izaten dira, kontzeptu baten zenbait adierazleren neurritzko konbinazioaren emaitza, eta, beraz, aldagai bati baino gehiagori dagozkie.

Berriki, genero-desberdintasunak neurtzen eta nazioarteko erkaketak egiten aurreratu beharra zegoela eta, herrialde-mailako zein nazioarteko erakunde zenbaitek aurrera egin dute adierazle konposatuak taxutzen. Atal honetan, UNDPren proposamenetan jarriko dugu arreta, nahiz eta nazioarteko beste erakunde batzuek proposaturiko adierazleetako batzuk ere labur apatuko ditugun; azken horien artean hauek nabarmentzen ditugu, agertzen diren hurrenkeran:

- **Genero Berdintasunaren Indizea** edo *Gender Equality Index* (EqualIX) Suediako Estatistika Institutuak sortu zuen 2001. urtean, eta guztira 13 adierazle barne hartzen ditu, sei dimentsiotakoak: lan-merkatua (5 adierazle), hezkuntza (adierazle 1), diru-sarrerak (2 adierazle), lanaren bateragarritasuna (2 adierazle), partaidetza politikoa (2 adierazle) eta demografia (adierazle 1)³¹.
- **Genero Ekitatearen Indizea (GEI)** 2004. urtean osatu zuten lehen aldiz, eta *Social Watch* nazioarteko herritar-sareak prestatu zuen. GEIak dimentsio hauek kontuan hartzen ditu: hezkuntza (4 adierazle), partaidetza ekonomikoa (2 adierazle) eta ahalduntzea (4 adierazle). Azken balioa herrialde edo eskualde jakin batean emakumeentzat dagoen inekitate negatiboaren mailaren arabera da, emakumeentzat inekitate positiboak (hau da, negatiboak gizonentzat) egon zein ez. Sailkapenean 159 herrialde sartzen ditu, eta azken datuen arabera, 2009an lehen hiru tokietan Suedia, Finlandia eta Norvegia daude. Ekuador 30. tokian dago (lau postu Frantziaren gainetik), Peru 48.ean (19 postu

Greziaren gainetik eta 23 Italiaren gainetik) eta Guatemala 120. tokian.

- **Genero Arrail Globalaren Indizea (GAGI)** edo **Generoen arteko Desparekotasunaren Indizea** Munduko Ekonomia Foroak egiten du 2006tik. Genero-arrailak neurtzeko 14 adierazle erabiltzen ditu, 4 dimentsiotan, hain zuzen ere: partaidetza ekonomikoa eta aukerak (4 adierazle), hezkuntza (4 adierazle), osasuna eta biziraupena (2 adierazle) eta ahalduntze politikoa (3 adierazle). Islandia, Norvegia eta Finlandia daude lehenak 2010ean sailkatutako 134 herrialdeen zerrendan. Sailkapen horretan, Ekuador 40. tokian dago, Peru 60.ean eta Guatemala 109.ean.
- **Gizarte Institutuzio eta Generoaren Indizea** edo *Social Institutions and Gender Index (SIGI)* on-line indize bat da, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) osatutakoa, genero-desberdintasunaren kausak garapen-bidean dauden 102 herrialdetan neurtzea ahalbidetzen duena. Horretarako 12 adierazle erabiltzen ditu, gizarte-instituzioak aztertzeko aitzindaritzat jotzen direnak, 5 esparrutan taldekaturik: familia-kodeak, osotasun fisikoa, generoaren arabera balioztatze ekonomikoa, askatasun zibilak eta jabetza-eskubideak. Lehen tokietan Paraguai, Kroazia eta Kazakhstan daude, eta horiek dira, indizearen arabera, desberdintasun gutxien dituztenak garapen-bidean dauden herrialdeen artean. Ekuador 9. tokian dago, Peru 17.ean eta Guatemala 34.ean.
- **Emakumeen Aukera Ekonomikoen Indizea (EAEI)** edo *Women's Economic Opportunity Index* lehen aldiz 2010. urtean prestatu zuen *Economist Intelligence Unit* delakoak. Emakumeek lan-merkatuan parte hartzeari buruzko lege eta arauetan nahiz haien partaidetzan eragina duten ekonomia-instituzioetan jartzen du arreta. Sailkapen-eredu kuantitatibo eta kualitatibo dinamikotzat definitzen dute. 26 adierazle ditu, 5 dimentsiotan taldekaturik: lan-politika eta praktika (5 eta 4 adierazle,

³¹ Kalkulia erraza da oso: oinarritzat udalerrirako erkaketa hartzen badugu, eta n udalerrirako dagoela kontuan hartzen badugu, dagoen adierazle bakoitzerako udalerrien ranking bat egiten da I -tik n -ra bitartean, hots, udalerrirako bakoitzak adierazle bakoitzerako I -tik n -ra bitarteko balio bat hartuko du: adierazle batek I balioa hartuko du adierazle horretan desberdintasun txikiena duen udalerrirako; eta n balioa hartuko du desberdintasun-mailarik handiena duen udalerrirako. Azkenik, udalerrirako bakoitzeko indizea lorturiko balio guztien batez besteko aritmetikoa eginez kalkulatzen da. Hala, I -tik hurbilen dagoen balioa lortzen duen udalerrira berdintasun-mailarik handiena daukan udalerrira izango da, eta I -ren baliotik aldentzen garen neurrian, desberdintasun-mailak gora egingo du.

hurrenez hurren), kreditua eskuratzeko aukera (4 adierazle), hezkuntza eta prestakuntza (4 adierazle), emakumeen estatus juridiko eta soziala (5 adierazle) eta enpresa-ingurune orokorra (4 adierazle). Adierazle guztiek pisu bera dute dimentsioan, eta dimentsio guztiek pisu bera dute indizean. Lehen argitalpenean, 2010ean, 113 herrialde sailkatu dira, eta Suedia, Belgika eta Norvegia daude lehen tokietan. Peru 54. tokian dago, eta Ekuador 75.ean (Guatemala ez dago sailkatuta).

UNDPren adierazleak

Genero Arrail Globalaren Indizea, Genero Ekitatearen Indizea eta antzekoak berariazko txosten eta argitalpenetan aurkezten dira, hala nola, *Global Gender Gap Report* edo *Social Watch Gender Equity Index* direlakoetan; halakoak, noski, genero-gaietan interes berezia duten pertsonak eta erakundeek kontsultatuko dituzte, eta, beraz, estatistika orokorrak kontsultatzen dituzten pertsona gehienek begietatik nolabait ezkutatuta gera daitezke. Lan honetan, gure interesa, hain zuzen ere, espezializatu gabeko txosten eta estatistika-tan genero-desberdintasunei ematen zaien tratamendua ikertzea da, eta, jakina, garapen-gaietan hedapenik handiena duen eta erreferentzia-puntu eztabaidaezina den txostena aztertzea hautatu dugu, UNDPren *Giza Garapenari buruzko Txostena*, alegia.

Ezbairik gabe, UNDPren indizeetan, ospe handienekoa Giza Garapenaren Indizea (GGI) da. Lehen aldiz, 1990ean argitaratu zen, eta ongizatea/ekonomia-hazkunde neurtzeko gehien erabiltzen zen indizearen hautabidetzat sortu zuten, hots, per capita BPGd-a ordezkatzeko. GGIak arreta oinarrizko hiru alderditan jartzen du (bizitza luze eta osasuntsua izatea; hezkuntza eta ezaguerak jasotzea; eta bizi-maila duina edukitzea), eta, erabat ziur, munduko indize konposatu ezagunena da. Amartya Senek, Mahbub ul Haqen zuzendaritzapean, indizea osatzen parte hartu zuen, eta 2010ko azken txostenaren sarreran, hain zuzen ere, honako hau aitortzen du: GGIak “fintasun zerbait falta du, eta horrek BPGd-ra hurbiltzen du”, baina, bestalde, “indize horrek, findugabea eta guztia

izanik ere, egingo zuela espero zena egin zuen, hain zuzen ere: BPGd-aren antzeko adierazle bakun baten moduan jokatzea, baina albo batera utzi gabe diru-sarrerak eta kontsumo-ondasunak ez diren guztiak. Hala ere, giza garapenaren ikuspegi zabala ez da nahastu behar, zenbaitetan gertatzen den moduan, GGIaren tarte estuarekin” (UNDP 2010).

Lehen txostena argitaratu ondorengo hogeigarren urteurrena zela eta, 2010ean UNDPk, era esperimentalean, hiru garapen-adierazle berri atera ditu: Desberdintasunak Doitutako Giza Garapenaren Indizea (GGI-D); Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea (PMI) eta Genero Desberdintasunaren Indizea (GDI)³². PMIak neurri monetarioetan oinarrituriko indizeak osatzen ditu, eta muinean daukan ideia da pobrezia, garapena bezala, multidimentsionala dela. Pobrezia-indize berriak pertsona pobreek nozitzen dituzten gabeziak nahiz halakoak gertatzen diren esparruak aintzat hartzen ditu. Indizeak gabezia batzuk identifikatzen ditu GGIaren hiru dimentsio beretan, eta pobreak diren –gabeziak nozitzen dituzten– pertsonen kopurua nahiz familia pobre batek bere bizitzan izaten dituen gabezien kopurua adierazten ditu (UNDP 2010).

GGIari egin ohi zaizkion kritiketako bat da, batez beste bat izanik, ez diela antzematen pertsonen arteko desberdintasunei, eta nabaria da banaketan gertatzen den desberdintasunak zuzeneko lotura duela lorturiko giza garapenaren mailarekin eta garapen desberdina ez dela giza garpena. Gabezia hori zuzendu nahian, 2010eko txostenak, era esperimentalean, Desberdintasunak Doitutako Giza Garapenaren Indizea (GGI-D) aurkeztu zuen. GGIarekin zuzenean erkatzeko moduan osatu zuten, eta GGIaren dimentsio bakoitzeko desberdintasuna adierazten du, herrialde ugari dagokienez. GGI-D indizeak, herrialde bateko batez besteko giza garapena ez ezik –osasunaren, hezkuntzaren eta diru-sarreraren adierazle bidez neurtuta–, haren banaketa ere kontuan hartzen du. GGI-Dak desberdintasunak hiru aldagaie-tan kontuan hartzen ditu, eta dimentsio bakoitzaren batez besteko balioa haren desberdintasun-mailaren arabera zigortzen du. GGI-D indizea GGIaren berdina

³² Adierazle berriez gain, 2010ean GGIan bertan sartu zituzten aldaketak. Horrela, 2010 baino lehen, hezkuntzaren adierazleak helduen alfabetatze-tasa eta matrikulazio-tasa gordina ziren. 2010ean, hezkuntzaren adierazleak batez besteko eskolatzeko-urteak eta itxarondako eskolatzeko-urteak dira. Horrez gain, badaude beste aldaketa batzuk metodologian, hala nola, batez besteko geometrikoa erabiltzea, ohiko batez besteko aritmetikoaren ordez, GGIa kalkulatzeko.

izango da pertsonen arteko desberdintasunik ez dagoen kasuetan, baina GGIaren azpiko mailara jaitsiko da desberdintasuna gehitzen den neurrian. Hala, bada, “esan daiteke GGIa giza garapen potentzialaren indize bat dela, eta GGI-Da, berriz, giza garapen errearen maila dela” (UNDP 2010).

Ez PMI ez GGI-D indizeek ez dute genero-desberdintasunei antzematen, halakoak Genero Desberdintasunaren Indizean (GDI) bereizita utzi baitituzte. Gure aburuz, nahiz eta oraingoz genero-desberdintasunak PMian edo GGI-Dan sartzea posible ez izan, garrantzitsua litzateke bai bi indize berri horiek bai GGIa bera osatzeko erabiltzen diren adierazleak sexuaren arabera banakatuta jakinaraz daitezen. Horrez gain, azpiko adierazle guztiak banakatzeko nahikoa informazio fidagarri egon ez arren, komenigarria litzateke emakumeen zein gizonen inguruan eskuragarri dauden adierazgarriak argitaratzea.

Nazioartean, 2010era arte, genero-desberdintasunari buruzko adierazle ezagunenak Generoari Lotutako Garapen Indizea eta Genero Sustapenaren Indizea (GSI) ziren, biak 1995ean UNDPk proposaturikoak. Generoari Lotutako Garapen Indizeak genero-desberdintasuna GGIaren dimentsio beretan aztertzen zuen, eta GSIak partaidetza politikoa (parlamentuetako aukietan zeuden emakumeen proportzioaren bidez neurtuta), partaidetza ekonomikoa (kargu profesionaletan eta goi-karguetan zeuden emakumeen proportzioa) eta baliabide ekonomikoen jabetza (emakumeen eta gizonen diru-sarreraren arteko erlazioa) aztertzen zituen.

Generoari Lotutako Garapen Indizea eta GSI indizea arrazoi ugariengatik kritikatu dituzte, horietako hiru funtsezkoak zirelarik:

- Neurketek lorpen absolutuak eta erlatiboak konbinatzen dituzte. Horrela, sarrera absolutu baxuak

dituen herrialde batek Generoari Lotutako Garapen Indize baxua lortzen du, genero-berdintasun betegina izanik ere, Generoari Lotutako Garapen Indizeak GGI indizea genero-desberdintasunaren arabera doitzen duelako. Hau da, guztizko lorpen zein desparekotasunak neurtzen ditu.

- Datu nahikorik ez, batez ere diru-sarreraren inguruan. Herrialdeetako kalkuluen hiru laurden baino gehiago era partzalean egotzi ziren.
- Ia GSIaren adierazle guztiak ikuspegi hiritarra islatu ohi dute, eta herrialde aberatsetarako egokiagoak diren adierazle batzuk erabiltzen dituzte.

UNDPk proposatzen duen indize berriak, Genero Desberdintasunaren Indizeak (GDI), funtsezko kritikak aintzat hartzen ditu. GDI berriak batera kontuan hartzen ditu garapena eta sustapena, eta emakumeentzat oinarrizkotzat jotzen diren hiru dimentsio barne hartzen ditu: ugalketa-osasuna, ahalduntzea, eta lan-merkatuko partaidetza. GDI indize berriaren kalkuluan bost adierazle erabiltzen dira: bi ugalketa osasunari buruz (amen heriotza-tasa eta nerabeen ugalkortasun-tasa³³); bi ahalduntzeari buruz (Bigarren Hezkuntza osoa gutxienez eginga duten emakumeak eta gizonak, eta parlamentuetako aukietako emakumeen eta gizonen partaidetza); eta bat lan-merkatuari buruz (lan-indarreko emakumeen eta gizonen partaidetza³⁴). Indizearen bitartea Otik (ez dago desberdintasunik barne hartutako dimentsioetan) 1era (desberdintasun osoa dago) doa.

Sarturiko adierazleetan, bakar batek ere ez du loturirik herrialde bateko garapen-maila orokorrarekin; horrenbestez, garapen-bidean dauden herrialdeek nahikoa emaitza onak lor ditzakete, baldin genero-desparekotasunak txikiak badira. Ikuspegia koherentea da desberdintasuna neurtzeko erabiltzen denarekin: bi talde

³³ Nerabeen haurduntza hainbat faktoreen ondorioa da. Munduan, urtean, 15 urtetik 19 urtera bitarteko adin-taldeko mila emakumeko 55 jaiotza gertatzen dira, batez beste, emakume nerabeengandik; Latinoamerikan eta Kariben (LAK), ostera, adierazle hori 80 jaiotzetaraino igotzen da. Afrikan bakarrik gainditzen delarik. Nerabe-amatasunak lotura estua du hezkuntza-mailarekin, maila sozioekonomikoarekin eta bizi den lekuarekin. Ondorio negatiboak izan ditzake, pobrezia eta bazterketaren aldetik, eta eragin negatiboak belaunaldi berriarengan (UNDP LAK 2010).

³⁴ Genero Desberdintasunaren Indizea bi indizetatik ateratzen da: Emakumeen Genero Indizetik eta Gizonen Genero Indizetik. Emakumeen Genero Indizea hiru indizetatik ateratzen da: emakumeen ugalketa-osasunaren indizetik; emakumeen ahalduntze-indizetik; eta emakumeen lan-merkatuaren indizetik. Gizonen Genero Indizea bi indizetatik ateratzen da: gizonen ahalduntze-indizetik, eta gizonen lan-merkatuaren indizetik.

erkatzen ditu, gizonak eta emakumeak, eta bien arteko desberdintasuna baino ez du kontuan izaten. Hala ere, aurrerapen gisa aurkeztu den horrek interpretazio-arazo batzuk ekar ditzake, batez ere GDIaren analisisa GGItik bereiz egiten bada (UNDP 2010).

GDIa eratuta dagoen moduan, gora egiten du desabantailak loturik daudenean: dimentsio guztietan genero-desparekotasunen lotura zenbat eta estuagoa izan, indizearen balioa handiagoa izango da. Horrela, dimentsioak elkarren osagarri direla onartzen da, eta eskolatzean dagoen desberdintasuna lan-aukerekina eta amen heriotza-tasarekin, esaterako, lotuta egoten dela.

GDIak emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunaren ondorioz gauzatu ez diren lorpenei antzematen die, ugalketa-osasunaren, ahalduntzearen eta lan-endarreko partaidetzaren alorretan. 2010eko Giza Garapenari buruzko Txostenean argitaratu ziren GDIaren datuek aditzera eman zuten GDIa %17tik %85era bitartean dagoela, eta genero-desberdintasunen ondorioz galera gutxien nozitzen duten herrialdeak Herbehereak, Danimarka eta Suedia direla, haien GDIak, hurrenez hurren, 0,174, 0,209 eta 0,212 direla. Genero-desberdintasunen arabera sailkatuz, Peru 74. tokian dago, Ekuador 86. tokian, eta Guatemala 107. tokian.

Nahiz eta GDIa, argi eta garbi, aurreko genero-indizeak baino hobea den, oraindik ere ongizatearen dimentsio batzuk ez dira kontuan hartzen. Horien artean dauden diru-sarrerak, ekoizpen eta ugalketa lan-kargak³⁵, jabetzak eskuratzeko aukera, edo emakumeen aurkako indarkeria. Agerikoa da GDIa eratzeko hautatu diren adierazleak egokiagoak direla Hegoaldeko herrialdeetarako, eta hori da, argi eta garbi, ugalketa-osasunaren adierazlearen kasuan; ondorioz, gure aburuz, GDIa ez da oso egokia Iparraldeko herrialdeetako desberdintasunak atzemateko. Emakumeek parlamentuetan duten partaidetzari, batetik, adierazle “elitista” iritz dakioke, eta, bestetik, emakumeen botere erreala gehiegi putz dezake. Esaterako, udaberriko matxinaden ondoren, 2011ko apirilean, Tunisian

“kremailera” sistema onartu zen hurrengo hauteskundeetarako. Herrialde hori, 2010eko txostenaren arabera, 56. tokian dago genero-desberdintasunen aldetik, eta emakumeek parlamentuan zuten presentzia %20 zen. Erabaki berriaren ondoren –haren balioa, erreala zein sinbolikoa, inola ere gutxietsi nahi ez dugularik–, ia ziur, emakume parlamentarien ehunekoak gora egingo du, eta GDIa ere nabarmen hobetuko da, eta oso litekeena da hobekuntza horren ondorioz gehiegizko balioa ematea herrialdean benetan gertatu diren aldaketei.

Bestalde, lan-merkatuaren adierazle bakarra erabiltzea (emakumeen eta gizonen lan-jardueraren tasak) adierazle eskasegia da lan-merkatuan egoten diren desberdintasun handi-handiak islatzeko (soldaten desberdintasunak, lan-arloko bereizkeria –horizontala zein bertikala–, lan-ezgonkortasunaren eragin handiagoa, eta bar). GDIaren kalkuluan aldagai gehiago ez sartzeke UNDPk eman duen argudio nagusia estatistikazko informazio fidagarria falta dela izan da. Hala, bada, sexuaren arabera banakatutako datu gehiago eta hobeak eskuratzeko lortzeko dagoen erronka bat da oraindik, eta erabat eginkizun beharrezkoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko.

³⁵ UNDPren 2010eko txostenean Latinoamerika eta Kariberako argitaratu ziren datuen arabera, informazioa dagoen 10 herrialdeetan, emakumeen lan-karga handiagoa da gizonena baino, eta lan ordainduen eta lan ez-ordainduen artean dagoen banaketa, oso desberdina.

1. taula. Genero-adierazle konposatu nagusiak				
Indizea	Erakundea	Koop.	Dimentsioak	LAKeko herrialdeen ordena
Genero Desberdintasunaren Indizea (GDI)	UNDP	5	<ul style="list-style-type: none"> • ugalketa-osasuna • ahalduntzea • laneko partaidetza 	1. Peru 2. Ekuador 3. Guatemala
Emakumeen Aukera Ekonomikoen Indizea (EAEI)	Economist Intelligence Unit	26	<ul style="list-style-type: none"> • lan-politika eta praktika • kreditua eskuratzeko aukera • hezkuntza eta prestakuntza • emakumeen estatus juridiko eta soziala • enpresa-ingurune orokorra 	1. Peru 2. Ekuador
Gizarte Instituzio eta Generoaren Indizea (SIGI)	ELGA	12	<ul style="list-style-type: none"> • familia-kodeak • osotasun fisikoa • balioztatze ekonomikoa • askatasun zibilak • jabetza-eskubideak 	1. Peru 2. Ekuador 3. Guatemala
Genero Arrail Globalaren Indizea (GAGI)	Munduko Ekonomia Foroa	14	<ul style="list-style-type: none"> • partaidetza ekonomikoa eta hezkuntza • osasuna eta biziraupena • ahalduntze politikoa 	1. Peru 2. Ekuador 3. Guatemala
Genero Ekitatearen Indizea (GEI)	Social Watch	10	<ul style="list-style-type: none"> • hezkuntza • partaidetza ekonomikoa • ahalduntzea 	1. Peru 2. Ekuador 3. Guatemala
EqualIX	Suediako Estatistika Institutua	13	<ul style="list-style-type: none"> • lan-merkatua • hezkuntza • diru-sarrerak • lanaren bateragarritasuna • partaidetza politikoa • demografia 	

Iturria: guk egina.

1. taulan, aurkeztu ditugun genero-adierazle konposatuei buruzko informazioa laburbildu dugu, agertu ziren dataren alderantzizko ordenan. Ikus daitekeenez, ia guztiek dituzte hezkuntzari buruzko³⁶, laneko edo ekonomiako partaidetzari buruzko eta ahalduntze edo partaidetza politikoari buruzko adierazleak. Berritasuna da ugalketa-osasunari dagozkion adierazleak sartu direla UNDPren GDI indize berrian. Aurretik, osasun-adierazleek zeukaten indize bakarria Munduko Ekonomia Foroaren Genero Arrail Globalaren Indizea (GAGI) zen, baina haiek adierazle orokorrak ziren eta, beraz, UNDPrenak oso bestelakoak: jaiotze-uneko bizi-itxaropena sexuaren arabera, eta bizitza osasungarriaren itxaropena.

Adierazle bakunak

Jakina, adierazle konposatu gehienek hezkuntzari eta ahalduntze ekonomiko eta politikoari buruzko adierazleak badauzkate, desberdintasunari dagokionez nazioartean adierazle bakunen arabera eraketa egiteko garaian, ohikoena da hiru dimentsio horietan zentratutako adierazleak aztertu eta eraketea. Azkenaldian, genero-adierazle bakunak lantzeko erarik ohikoena da arraileri edo gizonen eta emakumeen datuak bereizten dituzten aldeei begiratzea. Era berean, joera dago adierazle konposatuek emakumeen eta gizonen arteko aldeak edo arrailak ere barne hartzeko.

³⁶ Genero Desberdintasunaren Indizearen kasuan, hezkuntza ez da dimentsioa, baina bai sartu da ahalduntzearen dimentsioan.

Arrailetan arreta jarrita lan egiteak pentsaraz dezake helburua arrail horiek ixtea dela, emakumezkoen tasak gizonenetara hurbildurik, hots, emakumeek aldatu behar dutela gizonen parera iristeko. Azkenean, bada, emakumeen aldaketak nabarmentzen buka dezakegu, eta gizonek egin beharreko aldaketak ahazten eta ezkututzen. Lan-denboren eta enpleguaren adierazleei dagokienez, eztabaidagarria, gutxienez, da xedea gizonen datuak direnik, batez ere gizarte gizatiarrago eta ekitatezkoago bat lortu nahi badugu, arreta pertsonengan, eta ez merkatuetan bakarrik, jartzen duen gizarte bat, alegia.

Gainera, arrailekin lan eginez, berdintasunezko gizar-tetzat aurkez daitezke nola emakumeentzat hala gizonentzat defizit handiak eta aukera urriak dauzkaten gizar-teak. Demagun hiru herrialde daudela (A, B eta C), eta haietan gizon bakar bana eta emakume bakar bana bizi direla. Demagun, halaber, desberdintasunak neurtzeko dimentsio bakarra hezkuntza dela. A herrialdean, gizonaren zein emakumearen eskolatzetateak 0 dira; B herrialdean, 15 urte, eta biek burutzen dute Bigarren Hezkuntza; eta C herrialdean, 15 urte dira gizonaren eskolatzetateak, eta berak Bigarren

Hezkuntza burutzen du, eta emakumearenak, 13 urte, eta ez du burutzen Bigarren Hezkuntza. Arrailei begiraturik, A eta B berdintasunezko gizar-teak dira, eta C, aldiz, desberdinagoa da, argi eta garbi. Baina A herrialdeko berdintasunaren atzean gabezia handiak ezkututzen dira, eta C zigortu egiten da, han emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak dauden arren, bai emakumearen bai gizonaren egoera nabarmen hobea baita, A herrialdean baino.

HUNDPk azken txostenean argitaratu dituen adierazle bakunen sexuaren arabeko banaketa begiratu dugu, eta eginkizun horren emaitza 2. taulan jarri dugu. GDI indizearen taulako adierazleez gain, badira sexuaren arabera banakatzeko moduko 30 adierazle, eta haietatik 7 baino ez dira horrela banakatu. Bereziki kezkarri iruditzen zaizkigu bi arazo, biak dagoeneko Beijingen, 1995ean, nabarmendutakoak, eta oraindik konpondu gabekoak: denboraren erabilerei buruzko eta lan ordainduen eta lan ez-ordainduen banaketari buruzko estatistikak falta izatea; eta, bestetik, pobrezia gainera datuak banakatuta ez egotea, nahiz eta etengabe esaten den pobrezia emakume-aurpegia duela.

2. taula. Sexuaren arabera banakatzeko giza garapenaren adierazleen zerrenda (UNDP 2010)

2010eko giza garapenaren adierazleak, GDI-koak izan ezik			
• Jaiotze-uneko bizi-itxaropena	EZ	• Delinkuentzia eta segurtasuna	EZ
• Batez besteko eskolatzetateak	EZ	• Ongizate-indizeekiko gogobetetasuna	EZ
• Itxarondako eskolatzetateak	EZ	• Populazioa	EZ
• Per capita HSGa	EZ	• Jaiotze-uneko mutikoen eta neskatuen arteko zatidura	BAI
• Pobrezia multidimentsionaleko egoeran dagoen populazioa	EZ	• Enpleguaren eta populazioaren arteko erlazioa	EZ
• Pobrezia multidimentsionaleko egoeran erortzeko arriskuan dagoen populazioa	EZ	• Egunean 1,25 dolarrekin (US\$) baino gutxiagorekin lan egiten duten eta bizi diren pertsonak	EZ
• Hezkuntzan Osasunean Bizi-mailan gabezia larri bat gutxienez duen populazioa	EZ	• Enplegu formala	BAI
• Sarrera-pobrezia mailatik beherako populazioa	EZ	• Ahultasun-egoerako enplegua	BAI
• Hautatzeko askatasunarekiko asebetetzea	BAI	• Hezkuntza-mailaren arabeko langabezia-tasa	EZ
• Kontu-ematea (ustelkeriaren biktimak ...)	EZ	• Nahitaezko amatasun-baimen ordaindua	
• Zerbitzu hobetuak jasotzeko aukerarik gabeko populazioa	EZ	• Hezkuntzako lorpenak	EZ
• Beldurrik gabe bizitzeko askatasunaren mugak	EZ	• Hezkuntza jasotzeko aukera	EZ
• Miseriarik gabe bizitzeko askatasunaren mugak	EZ	• Lehen Hezkuntzaren eragimena	EZ
• Bizitzarekiko asebetetze orokorrak	BAI	• Lehen Hezkuntzaren kalitatea	EZ
• Ongizatearen dimentsio pertsonalekiko gogobetetasuna	EZ	• Osasunerako arrisku-faktoreak	EZ
• Zoriontasunaren osagaiak	BAI	• Heriotza-tasa	BAI
		• Guztira: 32	BAI 7

Iturria: guk egina.

V.3. Genero-desberdintasunak: Peru, Ekuador eta Guatemala erkatzeko azterketa

Deskribapen orokorra

Giza garapena genero-ikuspegitik erkatzeko aukeratu diren herrialdeak Peru, Ekuador eta Guatemala dira. Azterketarako oinarritzko erreferentzia Latinoamerika eta Karibeko (LAK) eskualdea izango da. Peru da handiena, 29,5 milioi biztanle dituela, eta hurren Guatemala (14,4 milioi) eta Ekuador (13,8 milioi) datoz. 2010. urtean, hiru herrialde horietan Latinoamerikako biztanleen %10 bizi zen. Azken hamarkadan, hazkunde demografiko berebizikoena Guatemalan gertatu da (%62), eta Perun (%35) nahiz Ekuadorren (%34), ostera, hazkundeak askoz neurrizkoagoak izan dira, eta eskualdeko batez bestekotik (%33) hurbilago egon dira. Latinoamerikako biztanleen hiru laurden baino gehiago (%79,5) hiriguneetan bizi dira, eta ehuneko hori munduko batez bestekoa baino askoz handiagoa, hiritartze-tasa %50 da eta. Perun, hiritar biztanleriaren ehuneko %77 da, Ekuadorren %67, eta Guatemalan, munduko batez bestekoaren berdindina, hots, %50.

Herrialde horretan biztanleria gaztea dela esan daiteke; izan ere, munduko batez besteko adina 29 urte dela eta LAKekoa, 28 urte, Perun, ordea, batez besteko pertsonak 26 urte ditu, Ekuadorren 25, eta Guatemalan 19 baino ez. Ziurrenik, guatemalarren muturreko gaztetasunak (Saharaz hegoaldekoaren antzekoa

da) badu zerikusirik herrialde horretako azkenaldiko historiarekin, urte askoan gatazkak txikitu baitzuen, eta hildako asko eragin. Munduko mendekotasun tasa %54 da (0-14 urte arteko nahiz 65 urtetik gorako populazioaren ratioa neurtzen du 15 urtetik 64 urtera bitarteko 100 pertsonako), eta LAKekoa, %53. Hautatu diren herrialdeetako mendeko populazioa munduko zein eskualdeko batez bestekoa baino gehiago da: %56 Perun; %59 Ekuadorren; eta %85 Guatemalan.

Garapen-adierazleak

UNDPren giza garapenari buruzko azken txostenean, 2010ean, sailkatutako 169 herrialdeetatik, Peru 63. tokian dago, Ekuador 77.ean eta Guatemala 116.ean. Peru eta Ekuador giza garapen handiko herrialdeen taldean daude (0,670 eta 0,785 arteko GGIa daukaten herrialdeak), eta Guatemala, giza garapen ertaineko taldean (0,480 eta 0,670 arteko GGIa daukaten herrialdeak). Txostenetik ondorioztatzen da, orobat, GGIn oinarrituriko sailkapenean, diru-sarreraren arabera rankingean Peruk eta Ekuadorrek nabarmen gora egiten dutela (Peru 14 toki igotzen da, eta Ekuador, 7), eta Guatemalak, aldiz, 13 toki jaisten dela. GGI indizearen bilakaera azken hamarkadan positiboa izan da kasu guztietan: 2000tik 2010era bitartean, munduko GGI indizea 54 ehunen igo da, LAKekoa 44, Perukoa 48, Ekuadorrekoa 53, eta Guatemalakoa 46.

3. taula. Giza Garapenaren Indizea, 2010³⁷

	GGI	JBI	BEU	IEU	HSG	GG (%)
Mundua	0,624	69,3	7,4	12,3	10.631	21,7
LAK	0,704	74,0	7,9	13,7	10.642	25,1
Peru	0,723	73,7	9,6	13,8	8.424	30,7
Ekuador	0,695	75,4	7,6	13,3	7.931	20,2
Guatemala	0,560	70,8	4,1	10,6	4.694	33,6

Iturria: UNDP, 2010. Guk egina.

³⁷ Hona hemen taula honetako siglen esanahia: GGI, Giza Garapenaren Indizea; JBI, jaiotze-uneko bizi-itxaropena; BEU, batez besteok eskolatzte-urteak; IEU, itxarondako eskolatzte-urteak; HSG, herrialdeko per capita sarrera gordina erosahalten-parekotasunean; GG, garapen-galera, banaketaren desberdintasunaren ondorioz.

Lehenik, 3. taulan ikusten da Latinoamerika eta Kari-beko (LAK) eskualdeko GGIa munduko batez beste-koaren gainetik dagoela, eta hautaturiko hiru herrialdeetatik, Peruk baino ez duela LAKeko eskualdeko GGIa gainditzen. Bigarrenik, nabarmentzen dugu Latinoamerikako eskualdeko batez besteko per capita errenta munduko errentaren antzekoa dela eta hiru herrialdeek eskualdeko errentaren azpiko errenta dutela, nahiz eta alde handiak dauden; esaterako, Peruko per capita errenta ia Guatemalako halako bi da. Hirugarrenik, Guatemala da datu okerrenak dituen herrialdea GGIak barne hartzen dituen hiru dimentsioetan. Azkenik, nabarmendu behar da Ekuadorrek datu okerragoak dituela hezkuntzan eta errentan Peruk baino, eta hiruretan, berak du bizi-itxaropenik luzeena; hain zuzen ere, azken adierazle horretan eskualdeko batez bestekoa ere gainditzen du.

3. taularen azken zutabearen Desberdintasunak Doituta Giza Garapenaren Indize berriari dagokion informazioa sartu dugu, zehazki, osasuneko, hezkuntzako eta diru-sarrerako adierazleetako desberdintasun multidimentsionalen ondoriozko giza garapenaren galerak (GG) ehunekotan. Ikus daitekeenez, munduko galera ia %22 da, eta LAKekoa (%25) munduko batez bestekoaren gainetik dago. Horrez gain, giza garapenari buruzko txostenetik ondorioztatzen da LAK dela Hegoaldeko eskualde bakarra non giza garapenean gertatzen den galeraren erdia baino gehiago (%54) diru-sarreraren banaketaren desberdintasunaren ondoriozko galeratik datorren, eta hori Iparraldeko herrialdeekin bakarrik partekatzen duen ezaugarri bat da. Hain zuzen ere, Iparraldeko herrialdeetan banaketaren desberdintasunek %10eko galera sortzen dute giza garapenean, eta galera horren %67 diru-sarreraren banaketa desberdinaren ondoriozkoa da. Mundu-mailan, herrialdeen heren batean baino gehiagoan osasuneko, hezkuntzako edo bietako desberdintasuna diru-sarreraren alorreko galera baino handiagoa da. Hala, bada, badirudi ez dela Latinoamerikan aplikatzekoa “osasuneko eta hezkuntzako sakabanatzea da politika publikoen kudeatzaileek aurre egin beharreko lehen erronka” (UNDP 2010) dioen baieztapena; izan ere, han, errentaren banaketaren desberdintasuna da, oraindik ere, konpondu gabeko arazo nagusietako bat.

Aztergai diren hiru herrialdeetatik, Ekuadorren (%20) baino ez da galtzen LAKeko batez bestekoa eta munduko batez bestekoa baino garapen gutxiago ba-

naketaren desberdintasunengatik. Deigarria da Guatemalako galera (%34) Saharaz Hegoaldeko Afrikako batez besteko galera (%33) baino are handiagoa izatea, azken hori izanik mundu osoan banaketaren alde-tik dituen desberdintasunik handienak.

Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea (PMI) 2010ean aurkezturiko indize berri esperimental bat da, Giza Pobrezia Indizea (GPI), 1997az geroztik argitaraturiko indize bat, ordezkatzeko duena. PMI indize berriak etxeek GGIaren hiru dimentsioetan nozitzen dituzten aldi bereko gabeziei antzematen die, eta, horretarako, hamar adierazle erabiltzen ditu (bi osasunari buruz, bi hezkuntzari buruz, eta sei bizi-mailari buruz). PMI indizeak batez besteko pertsona-kopurua eta etxe horiek nozitu behar dituzten gabeziak erakusten ditu, eta etxe bati dimentsio batean baino gehiagotan pobrea dela irizten zaio gutxienez bi adierazletan gabeziak dituenean. Ez da kalkulatu herrialde guztietarako, eta eskualdekako daturik ere ez dago; hortaz, hautaturiko hiru herrialdeen datuak baino ez ditugu emango, pobrezia multidimentsionalaren indizeak sarrera-pobrezia indizearekin erkatuta emango ditugu, gainera, hura izanik pobrezia-adierazlerik erabiliena. Guatemala da GGI txikiena duen herrialdea, eta pobrezia multidimentsionala jasaten duten pertsonen ehunekoa (%12,7) apur bat handiagoa da sarrera-pobrezia jasaten dutenena baino (%11,7), egunean 1,25 dolarrarekin baino gutxiagorekin bizi direnen ehuneko gisa neurturik. Perun gauza bera gertatzen da, han sarrera-pobrezia %7,7 baita, eta PMIa, bestalde, 0,085 baita. Hala ere, Ekuadorren sarrera-pobrezia biztanleen %4,7ri eragiten dio, eta PMIa, ordea, 0,009 da; horrenbestez, herrialde horretan da txikiena bai sarrera-pobrezia bai pobrezia multidimentsionala.

Genero-desberdintasunak

Genero Desberdintasunaren Indizea (GDI) eta haren osagaiak aurkezten dira 4. taulan. Mundu-mailan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen ondoriozko batez besteko galerak funtsezko dimentsioetan %56 dira. LAKeko galerek munduko batez bestekoa gainditzen dute (%61), eta aztertutako hiru herrialdeek eskualdeko batez bestekotik gorako genero-desberdintasun indizeak dauzkatela nabarmentzen da. GDIaren arabera, genero-desberdintasunak ongizatean eraginiko galera txikiak Perun (%61) gertatzen

dira, eta atzetik Ekuador (%64) eta Guatemala (%71) dauzka, haien indizea Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde askotan dagoenaren oso antzekoa delarik.

Osasun-adierazleei dagokienez³⁸, Latinoamerikako eskualdea nabarmentzen da han amen heriotza tasa munduko batez bestekoa baino askoz txikiagoa delako, eta, aitzitik, nerabeen ugalkortasun-tasak handiagoak direlako. Guatemala da ugalketa-osasunaren alorrean estatistika okerrenak dituen herrialdea; hain zuzen ere, han amen heriotza-tasa 290 da, eta nerabeen ugalkortasun-tasa, 107. Bi adierazle horiek nabarmen handiagoak dira munduko zein eskualdeko batez bestekoak baino. Peru nabarmendu egiten da, bertako amen heriotza-tasa eskualdeko batez bestekoa baino askoz handiagoa delako, eta nerabeen ugalkortasun-tasa, berriz, eskualdeko batez bestekoa baino askoz txikiagoa delako, bai eta Ekuadorrekoa eta Guatemalako baino txikiagoa ere.

2010eko eskualde-txostenean (UNPD LAK 2010) gogoeta egiten da LAKn nerabeen haurduntzaren kausaz dauden arazoez, eta ateratzen den ondorioa da lotura estua dagoela emakumeen hezkuntza-mailaren eta nerabeen amatasunaren artean (adibidez, Perun, prebalentziarik handiena Lehen Hezkuntza dutenen artean ageri da). Bizilekuaren aldetik, nerabeen haurduntzari dagokionez, landa-eremuetako nerabeek dute prebalentzia handiagoa, hiri-eremuan bizi diren gazteek baino. Joera horretarako egon daitezkeen arrazoiaren artean, aipatu behar da hiri-eremuetan nerabe gehienek adin horretan haurdunaldi bati kontrajaritzen zaizkion hezkuntza- edo lan-itxaropenak izaten dituztela eta, hiri-eremuetako nerabeen kasuan, haurduntza goiztiarra informazio-faltagatik, antisortze-metodoek huts egiteagatik eta metodo horiek eskuratzeko zailtasunagatik gertatu ohi da. Azkenik, nerabeen haurduntzak badu lotura, halaber, eskualdean maila sozioekonomikoen arabera dagoen estratifikazio gogorarekin, eta nerabeen ugalkortasuna pobrezia lotu izan zaio beti. Iritzi zabaldua da “pobrezia belaunaldi arteko zirkulua” deritzona ixten parte hartzen duten osagaie-tako bat dela. Perun, berriro ere, baliabide gutxien dituzten emakumezko nerabe haurdunen ehuneko

zazpi aldiz handiagoa da, baliabide gehien dituzten emakume haurdunen ehunekoarekin alderatuta (UNDP LAK 2010).

LAKeko eskualdean, parlamentuan dauden emakumeen ehuneko munduko batez bestekoaren oso antzekoa da, eta %20 baino txikiagoa da, hura baino handiagoa delarik, ordea, Peruko zein Ekuadorreko ehuneko. Ahalduzeari dagokion bigarren adierazleak, Bigarren Hezkuntzako arrailak, jakitera ematen du emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna LAKn 1,4 ehuneko-puntukoa dela, munduko batez besteko desberdintasuna 10,1 puntu delarik, ordea. Hala ere, 4. taulan ikusten da LAKeko hezkuntza-arrail txikiagoa izatea ez datorrela emakumeen hezkuntzako lorpen handietatik, gizonen lorpen txikiagoetatik baizik. Hor ageri da indize honek dituen defizitetako bat, alegia, arraila egiaztatu baino ez duela egiten, nahikoa baliabide eta aukera dagoen begiratu gabe; horrela, litekeena da LAKeko egoera edo antzeko bat ontzat jotzea hezkuntza-arloko arrailaren aldetik, arlo horretan gabeziak oso handiak direla begien bistakoa denean. Hezkuntza-arrailak hauek dira: 14,5 Perun, 5,2 Guatemalan, eta 1,6 Ekuadorren. Dena den, Peruko arrail handiaren atzean munduko zein eskualdeko batez bestekotik oso gainetik dauden hezkuntza-arloko lorpen batzuk ezkututzen dira, bai gizonetan, jakina, baina emakumeetan ere bai. Guatemalan, emakumeen %16k eta gizonen %21ek baino ez du Bigarren Hezkuntza osorik egin.

Dimentsio ekonomikoak lan-jardueraren tasa baino ez du kontuan hartzen, eta dimentsio horretan mundu-mailako arraila oso handia da (26 puntu) eta LAKeko zerbait handiagoa, 28 puntukoa da eta. Latinoamerikako hiru herrialde horietan, emakumeen lan-jardueraren tasa handiena Peruko da, eta txikiena, Ekuadorrekoa. Guatemalan, emakumeen tasa munduko nahiz eskualdeko batez bestekoaren azpitik dago, eta hango egoera gizonen lan-jardueraren tasa guztiz handiagatik nabarmentzen da (%90). Lan-jardueraren arloko arrailak hauek dira: 16 puntu Perun, 31 puntu Ekuadorren, eta 40 puntu Guatemalan.

³⁸ Amen heriotza-tasaz eta nerabeen ugalkortasun-tasaz gain, 2010eko txostenean, GDIari buruzko datuak aurkezten diren taulan, emakumeen ugalketa-osasunarekin zerikusia duten beste hiru adierazle eta haien datuak ere ageri dira: antisorgailuen erabileraren tasa, jaio aurreko estaldura, eta osasun-pertsonal espezializatuak artatutako erditzeak.

4. taula. Genero Desberdintasunaren Indizea, 2010³⁹


	GDI	AHT	NUT	PA (%)	BHOP		LIPT	
					E	G	E	G
Mundua	0,560	273	53,7	16,2	51,6	61,7	56,8	82,6
LAK	0,609	122	72,6	17,5	51,3	52,7	55,3	83,3
Peru	0,614	240	54,7	29,2	64,1	78,6	61,3	77,6
Ekvador	0,645	210	82,8	25,0	44,2	45,8	48,1	79,2
Guatemala	0,713	290	107,2	12,0	16,0	21,2	50,0	89,9

Iturria: UNDP, 2010. Guk egina.

Esan dezakegu, 4. taulan jasoriko informazioa laburbilduz, LAKeko genero-desberdintasunak munduko batez bestekoa baino nabarmen handiagoak direla nerabeen haunduntzetan eta, aitzitik, nabarmen txikiagoak direla hezkuntzan, baina gizonen lorpenak ere apalagoak izan direlako hezkuntza-arloan. Hiru herrialdeek, oro har, eskualdeko batez bestekoa gainditzen dituzten desberdintasun-maila batzuk dauzkate emakumeen eta gizonen artean, eta bereziki kezka-garriak dira Guatemalako tasak. Parlamentuetako aul-

kietan, Bigarren Hezkuntzan eta laneko partaidetzan gertatzen diren genero-arraiak 1. grafikoan ageri dira. Parlamentuetako aulkien aldetik dagoen arrail bereziki handia nabarmentzen da. Emakumeek parlamentuetan parte hartzeak duen garrantzi erreal zein sinbolikoa gutxietsi gabe, gure iritziz, hiruretan garrantzi gutxienekoa da, batez ere oso gizon- eta emakume-kopuru urri eta oso elitista bati dagokiolako eta, aldi berean, oso denbora-tarte labur batean aldatzeko errazena delako.

1. grafikoa. GDIaren osagaietako genera-arraiak, 2010



Iturria: UNDP, 2010. Guk egina.

³⁹ Hona hemen taula honetako siglen esanahia: GDI, Genero Desberdintasunaren Indizea; AHT, amen heriotza-tasa (amen heriotzak bizirik jaiotako 100.000ko); NUT, nerabeen ugalkortasun-tasa (erditzeak 15 eta 19 urte arteko 1.000 emakume); PA, parlamentuko aulkiak; BHOP, Bigarren Hezkuntza osoa gutxienez egina duen 25 urteko eta gehiagoko populazioa; LIPT, lan-indarreko partaidetza tasa. Taula honetako datu batzuk 2008koak dira, eta beste batzuk, 2010ekoak.

Aurreko adierazleez gain, 2010eko txostenean beste adierazle batzuk ere ematen dira sexuaren arabera banakatuta. Hala, badaude GDIaren dimentsio ekonomikoa osatzeko balio duten banakatutako adierazle batzuk. “Lan duina” izeneko atalean jasoriko adierazleek agerian uzten dute zein pisu handia duen ahultasun-egoerako enpleguak hautatu diren herrialdeetako ekonomietan, ahultasun-egoerako enplegua familiako langile ez-ordainduen eta beren konturako langileen ehunekoa dela ulerturik. Perun, ahultasun-egoerako enpleguaren pisua %40ekoa da, Ekuadorren %34koa, eta Guatemalan %55ekoa. Hiru herrialdeetan, emakumeen tasaren eta gizonen tasaren arteko erlazioa 1 baino handiago da ahultasun-egoerako enpleguan (1,41 Perun eta Ekuadorren eta 1,2 Guatemalan); hortaz, ahultasun-egoeraren zama handiagoa da emakumeentzat gizonentzat baino. Hala, bada, merkaturuan askoz emakume gutxiago dago, gizonak baino, eta parte hartzen duten emakumeetan, gehienek ahultasun-egoerako enpleguak dituzte. Lan-arloko azken adierazlea, nahitaezko amatasun-baimen ordaindua deritzona, lanaren, bizitza pertsonalaren eta familiarren bateragarritasunari buruzko adierazleen artean sartu ohi da, eta egun ordainduak 90 dira Perun, eta 84 Ekuadorren eta Guatemalan.

Jakina, interesgarriagoa litzateke errenten eta soldaten gaineko datuak edukitzea sexuaren arabera banakatuta, baina datu-eskasia da nazioarteko estatistiken gabezia handietako bat. UNDPk egindako eskualde txostenean ere ez da horren inguruko daturik ematen, baina, bertan baieztatzen denez, diru-sarrerak sortzeko eta gizarte-segurantza izateko aukerei dagokienez, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna agerikoa da, eta emakumeek gizonen baino lansari txikiagoa jasotzen dute lanean, biek pareko prestakuntz-maila eduki arren. Era berean, informazio erkagarria duten herrialde guztietan, ekonomia informalean diharduten emakumeen proportzioa handiagoa gizona baino. Horrek berekin dakar emakume askok gizarte-prestazioak jasotzeko aukerarik ez izatea beren enpleguetan eta ahultasun-egoera larriagoan egotea. Eta hori bereziki kezkarria da emakume pobreen kasuan. Zehazki, 15 herrialderi buruzko informazioa ematen da, Peru eta Ekuador tartean direla. Perun, 2008an, emakumeen %63k eta gizonen %53k ekono-

mia informalean lan egiten du, eta Ekuadorren, ehuneko horiek %64 eta %53 dira, hurrenez hurren (UNDP LAK 2010).

Gauza jakina da laneko partaidetzan gertatzen diren desberdintasunen atzean etxeko lan zein zainketa-lanen banaketa desberdinak dirauela. Funtsezkotzat jotzen da denboraren erabilerei buruzko estatistikak edukitzea, honako bi faktore hauek ikusarazteko: alde batek, lanen banaketan izaten diren desberdintasunak; eta, bestetik, ugalketa-lanek egiten duten ekarpena pertsonen ongizaterako nahiz ekonomia-hazkunderako, horrek lanerako indar trebe, produktibo eta sormen handikoa sortzen duen neurrian. Gainera, “denboraren erabileran generoen artean dagoen desberdintasuna aztertzea tresna garrantzitsua da familien esparruan eragina izango duten moduko politika publikoak sustatzeko, lan ordaindua eta ez ordaindua uztartzeko asmoz, bietan ala bietan gizonen zein emakumezkoen parte hartuta” (UNDP LAK 2010). Hala eta guztiz ere, UNDPk ez du horrelako daturik ematen. Horren arrazoietakoa bat izan daiteke denboraren erabilereiz herrialde-mailako estatistikak ez egotea eta, baldin halakoak badaude, erkatzea zaila izatea, homogeneizaziorik eza dela kausa, bilketa-daten zein metodologiaren aldetik⁴⁰.

LAKeko 2010eko eskualde-txostenean, hamar herrialdeetako denboraren erabilerei buruzko informazioa ematen da, Ekuador eta Guatemala tartean direlarik. Ekuadorreko datuak 2005ekoak dira, eta Quitoko eskualdeko 12 urtetik gorako populazioari dagozkio. Datu horiek jakinarazten digute gizonen egunean 9,8 lan egiten zutela, eta emakumeek, 11,2 ordu. Emakumeek 4,9 ordu ematen zuten lan ez-ordainduetan, eta 6,7 ordu lan ordainduetan; gizonen jardunaldiak 2,2 eta 7,6 ordu ziren, hurrenez hurren. Guatemalari dagokion informazioa 2000. urtekoa da, eta 12 urtetik gorako populazioaren gainekoa da hura ere, baina kasu honetan lan ez-ordainduan ez da komunitate-lana sartu. Guatemalaren emakumeek egunean 9,2 ordu lan egiten zuten, eta gizonen 7,9 ordu. Lan ordainduen eta ez-ordainduen arteko denbora-banaketa 7,9 eta 1,8 zen emakumeetan, eta 2,4 eta 5,5 gizonetan. Hala, bada, ia herrialde guztietan bezala –informazioa dagoen kasuetan, betiere–, emakumeek gizo-

⁴⁰ 2010eko txosteneko 6. kapituluaren berriaz aipatzen da 2010eko Stiglitz-Sen-Fitoussi Txostena.

nek baino gehiago lan egiten dute, baina garrantziko desberdintasun batzuek dira lan-mota batzuen eta besteen banaketan: Ekuadorren, etxeko lanen eta zainketa-lanen %70 egiten dute gutxi gorabehera, eta Guatemalan %77.

5. taulan, norberaren bizitzari buruzko pertzepzioen⁴¹ adierazleak laburbildu ditugu. Ez dira gizonen eta emakumeen datuak ematen; aitzitik, kasu honetan guztizko datuak eta emakumeenak ematen dira, eta, hortaz, ezin gara arrailez aritu, nahiz eta

genero-desberdintasunak ikusgai jartzeko balio duten. Lehen zutabearen (agentzia) hautatzeko askatasunarekiko gogobetetasun-maila adierazten da ehunekotan. Datuetatik ondorioztatzen da, emakumeen eta gizonen artean alde handirik egon ez arren, gogobeterik dauden emakumeen ehunekoa gizonena baino apur bat txikiagoa herrialde askotan. Zehazki, Perun, gogobetetasunaren guztizko ehunekoa %59 da, eta emakumeen artean, aldiz, %57⁴², eta Ekuadorren ehunekoa horiek %73 eta %71 dira, eta Guatemalan %63, bai orokorra bai emakumezkoena.

5. taula. Pertzepzio-adierazleak, 2010										
	Agentzia		Ongizatea		Bizitza		Tratua		Sarea	
	Guz.	E	Guz.	E	Guz.	E	Guz.	E	Guz.	E
Peru	59	57	5,9	5,8	96	95	89	88	79	78
Ekuador	73	71	6,4	6,3	98	97	93	92	78	74
Guatemala	63	63	7,2	:	97	96	91	91	83	81

Iturria: UNDP, 2010. Guk egina.

Gainerako zutabeak 5. taulan norberaren ongizateari dagozkion pertzepzio batzuei buruzkoak dira. Lehenan (ongizatea), bizitzarekiko gogobetetasun-maila orokorra jasotzen da, 0 gogobetetasun-maila txikiena dela, eta 10 gogobetetasunaren baliorik handiena. Beste adierazleek zoriontasunaren funtsezko osagaiak jasotzen dituzte: xede jakineko bizitza dutela, errespetuzko tratua jasotzen dutela eta laguntza-sare sozial bat badaukatela dioten pertsonen ehunekoa. Bizitzarekiko gogobetetasun-mailarik handiena Guatemalako da, eta txikiena, Perukoak⁴³; beraz, badirudi hiru herrialde horietan alderantzizko lotura dagoela GGIIaren mailaren eta bizitzarekiko gogobetetasunaren artean. Nahiz eta alde handirik ez dagoen, Perun eta Ekuadorren emakumeek beren bizitzarekin duten gogobetetasuna apur bat txikiagoa da batez besteko orokorra baino. Zoriontasunerako hautatu diren hiru osagaiak badauzkatela dioten emakumeen ehunekoak ere badira batez besteko orokorrak baino apur bat txikiagoak. Horrenbestez, ondoriozta dezakegu genero-arail txiki batzuk daudela zoriontasunari dagokionez norik bere buruaz dituen pertzepzioetan.

6. taulan, demografia- eta osasun-adierazleak jarri ditugu, sexuaren arabera banakatuta. Ugalkortasun-tasa nabarmen handiagoa da herrialde pobreenetan. Aztergai diren LAKeko herrialdeen artean, Perun eta Ekuadorren tasak mundukoaren oso antzekoak dira, eta eskualdekoa baino apur bat handiagoa (azken hori emakumeak 2,2 jaiotza da). Guatemala bere ugalkortasun-tasa handiagatik nabarmentzen da: munduko batez bestekoa baino handiagoa da, eta munduko herrialde pobreenen taldean dagoen tasatik gertukoa. Emakume helduen heriotza tasa –mila pertsonatan, 15 urteko pertsona batek 60 bete baino lehen hiltzeko duen probabilitatea, alegia–, txikiagoa da talde eta herrialde guztietan, gizonezkoen tasa baino, eta alde horixe da emakumeen bizi-itxaropen luzeagoa azaltzen duten arrazoietakoa bat.

Demografia-adierazle bereziki interesgarria da jaiotze-uneke mutikoen eta neskatuen arteko zatidura –edo mutikoen jaiotzak 100 neskatoko jaiotzean–. Nabarmentzen dugun lehen gauza da mutiko gehiago jaiotzen direla, neskatok baino, eta herrialde gehienetan

⁴¹ Stiglitz-Sen Txostenak asko nabarmentzen du norberaren bizitzari buruzko pertzepzio subjektiboek ongizatean eta zoriontasunean duten garrantzia.

⁴² Erreferentzia gisa, Norvegiar, hots, GGIIrik handiena duen herrialdean, guztizkoaren nahiz emakumeen gogobetetasun-maila % 93 da.

⁴³ Erreferentzia gisa, Norvegiar gogobetetasun-maila orokorra 8,1 da, eta emakumeena, 8,2.

erlazioa, gutxi gorabehera, 103/105 mutil da, 100 neskako. Erlazio “normal” hori Perun, Ekuadorren eta Guatemalan ere gertatzen da. Zatidura 105 baino gehiago denean, agerian uzten du jaiotzetan mutikoen proportzioa neurrigabea dela, eta zatidura handiegi horiek emakumeen aurkako jaioreko bazterkeriaren ondorio izan daitezke, abortu selektiboen bidez. Halakoak dira, hain zuzen ere, “emakume desagertuak” deritzon fenomenoaren jatorria. Zatiidura 108,4 da munduan (1990ean, 106 zen), eta zatidura handi samar horren arrazoa giza garapen ertaineko herrialdeen taldean datza, haien batez besteko zatidura 112,2 baita, bai eta, batez ere, bi erraldoi demografi-koetan ere, hots, Txinan eta Indian, haien zatidurak,

hurrenez hurren, 121,2 eta 108,5 baitira⁴⁴. Herrialde horien demografia-adierazleek badute eragina munduko batez bestekoan, Txina, 1.354 milioi biztanle dauzkala, eta India, 1.214 milioi biztanle dauzkala, munduko herrialderik jendeztatuenak direlako alde handiz. Txinan eta Indian, mutikoen eta neskatoen arteko erlazioak gora egin du azken hamarkadan; izan ere, 1990ean 110,4 zen Txinan, eta 107,7 Indian. Gainera, herrialdeetako batez bestekoen atzean eskualde batetik besterako alde handiak ezkuta daitezke. Indian hala gertatzen da, dirudienez, Delhi, Gujarat, Haryana eta Punjab eskualdeetan, besteak beste, zatidura 126tik gertu baitago⁴⁵.

6. taula. Demografia- eta osasun-adierazleak, 2010

	Ugalkortasuna	Jaiotze-une-ko mutikoen eta neskatoen arteko erlazioa	Helduen heriotza-tasa	
			E	G
GG oso handia	1,8	105,6	60	114
GG handia	1,8	104,8	106	216
Perú	2,4	104,2	95	118
Ekuador	2,4	104,4	121	207
GG ertaina	2,7	112,2	140	206
Txina	1,8	121,2	84	140
Guatemala	3,7	103,8	159	302
India	2,5	108,5	173	250
GG txikia	4,1	102,5	339	376
Mundua	2,3	108,4	154	221

Iturria: UNDP, 2010. Guk egina.

Hiru herrialdeetan, genero-desberdintasunik handienak zeinek dituen jakiteko, Genero Berdintasunaren Indizean edo *Gender Equality Index* (EqualIX) delakoa oinarrituriko ariketa bat aurrera eramango dugu; hain zuzen ere, aipatutako indizea genero-desberdintasuna lurraldeen artean erkatzeko taxutu zuten. Horretarako, hiru herrialdeen arteko ranking bat (ikus 7. taula) ezarriko dugu, desberdintasunaren arabera, UNDPk genero-arraileen inguruan emaniko adierazle

kuantitatibo urriak erabiliz. Hona hemen adierazle horiek: parlamentuko ordezkarietako arrailak; Bigarren Hezkuntzako arrailak; laneko partaidetzako arrailak, eta ahultasun-egoerako enpleguko arrailak⁴⁶. Lau adierazleetan rankinga ezarri eta gero, indizea batez besteko aritmetiko soil bat eginez kalkulatu da; horrela, 1era gehien hurbiltzen den herrialdea izango da berdintasunezkoena, eta 1en baliotik gehien urruntzen dena genero-desberdintasun handienak dituen izango

⁴⁴ Herrialde batzuek, hala nola, Koreako Errepublikak eta Armeniak, 110etik gorako zatidurak dituzte, baina, jakina, herrialde horiek ez dute eragin erabakigarririk mundu-mailako sexuen arteko orekan.

⁴⁵ Emakume desagertuen alderako kezka erakusgarri dugu 2011ko apirilean *The Economist* astekarian agertu zen artikulua bat: “*Gendercide in India. Add sugar and spice.*” Artikuluan esaten da 6 urtetik beherako 914 neskato dagoela 1000 mutikoko, eta urtero, mutikoen eta neskatoen arteko zatidura desorekatuaren ondorioz, 600.000 neska desagertzen direla.

⁴⁶ Ezin jakin ditzakegu ahultasun-egoerako enpleguko arrailak, adierazlea emakumeen tasaren eta gizonen tasaren arteko erlazio gisa ematen baita, baina erlazio horrekin arrailen ordena jakin dezakegu. Kasu zehatz honetan, Peru eta Ekuador erlazio bera dute, eta Ekuadorreko arraila txikiagoa dela uste dugu, ehuneko txikiagoa delako enplegu-arloko ahultasun-egoeran.

da. Ariketa erraz horren emaitza da Ekuadorrek duela berdintasun-maila handiena, eta ondotik Peru eta Guatemala dituela. Ordena hori ez da erabat bat

etortzen GGIaren arabera ordenarekin, baina bada-
tor bat 1. taulan aurkeztu diren beste adierazle konpo-
satu batzuen rankingarekin.

7. taula. Genero-desberdintasunaren arabera sailkapena, 2010

	Parlamentua	Bigarren Hezkuntza	Lan-jarduera	Ahultasun-egoerako enplegua	Indizea
Perú	1	3	1	3	2,00
Ecuador	2	1	2	2	1,75
Guatemala	3	2	3	1	2,25

Iturria: Guk egina.

Sexuaren arabera banakatutako nazioarteko adierazle nagusiak berrikusi eta gero, bukatzeko, 2010eko giza garapenari buruzko txostena genero ikuspegitik berrikusiko dugu. Txostenean genero-desberdintasunen garrantzia nabarmentzen da, eta horren erakusgarri da GDI indize berriaren proposamena. Hala ere, genero-desberdintasunaren aipuak ez dira oso ugariak, eta, genero-ikuspegiaren garrantzia azpimarratu arren, bigarren planoan geratzen da praktikan. 2010eko txostenean, genero-desberdintasunen eta emakumeek aurre egin behar dieten arazoaren aipuak

oso gutxi dira, emakumeak oro har aipatzeaz gain “talde baztertuen artean: emakumeak, pobreak, indigenak, errefuxiatuak eta gutxiengo sexualak”. Noski, aipamen gehienak GDI indizeari dagozkion atalean daude, eta, gaien aldetik, osasunari buruzko eta, batez ere, hezkuntzari buruzko atalean aipatzen dira gehien. Deigarria da aipatu ez izana, esaterako, GGIaren egoera eta bilakaera aztertzearen atalean, ez eta pobrezia multidimentsionalari buruzkoan ere. Genero-desberdintasunaren inguruko iruzkin nagusiak bildu ditugu 8. taulan.

8. taula. Genero-arloko aipamen nagusiak 2010eko Giza Garapenari buruzko Txostenean

1. KAPITULUA: Giza garapenaren berrespena

- Jatorrizko adierazpena.
- Giza garapenari buruzko txostenak: aurreratua bere garairako.
 - 1995ko txostenaren aipamena.
- Giza garapenak beti bezain dinamiko jarraitzen du.

2. KAPITULUA: Jendearen aurrerakuntza

- Giza garapenaren barruko joera berri batzuk GGIaren ikuspegitik aztertuta.
- Urte gehiagoko bizitza, osasun hobea.
 - 1990ko hamarkadatik, helduen heriotza-tasa ia %23 gutxitu zen emakumeetan, eta %6 gizonetan. Indiako ikertzaileek emakumeen osasuna nabarmendu dute funtsezko faktoretzat.
- Ezaguera handiagoa, aukera gehiago.
 - Emakumeen goi-hezkuntzako matrikulazioa ere gorantz egiten ari da, eta gizonena gainditzen du munduko toki askotan.
- Bizi-maila handitu egin da.

3. KAPITULUA: Aurrera egiteko askotariko bideak

- Ekonomia-hazkundera eta giza garapena, buru-hausgarri bat.
- Munduko aurrerakuntza: ideien eta berrikuntzaren rola.
- Erakundeen, politiken eta ekitatearen rola.
 - Genero-berdintasunean aurrera egiteko politikek ere izan dezakete eragina giza garapenean. Emakumeek gizonek bezain osasun ona izaten ez dutenez eta hezkuntza-maila berak ez dituenek, desparekotasun hori konpontzeko helburua duten neurriek giza garapenaren alde egiten dute.
 - Zantzu ugariaren arabera, emakumeek joera handiagoa dute –bigarren maila batean bada ere– seme-alabengan gehiago inbertitzeko, gizonek baino. Hortaz, emakumeak ahalduntzeko politikak, teoriarik, seme-alaben osasun- eta hezkuntza-indizeak hobetzen dituzte. Guatemalan 35 urtez bilduriko datu batzuetan oinarritzen den duela gutxi azterlan batek agerian uzten du hezkuntza-mailak, gaitasun kognitiboak eta amaren elikadurazko egoerak eragin handia izaten dutela haurren giza kapitalean eta elikaduran.
- Gehiago sakontzea: merkatuak, estatua, eta gizarte-hitzarmena.

4. KAPITULUA: Gauza onak ez datoz beti batera

- Giza garapenaren beste dimentsioak.
- Ahalduntzea.
 - Emakumeek aurrera egitea lortu dute, oso kargu publiko garrantzitsu batzuk betetzeraino, hala nola, estatuburutzat eta parlamentuetako aulkiak. Ia bost herrialdetik batean, legez ezarrita edo konstituzioan finkatuta, kuota batzuk daukate, parlamentuetako aulkien ehuneko jakin bat emakumeentzat gordetzeko. Horrek emakumeen partaidetzak gora egin dezan eragin du; hala, 1975ean %11 zen, eta 2010ean, %19. Eta kasu batzuetan, genero-gaien garrantzia batera areagotu da. Hala ere, datuek erakusten dute emakumeek presentzia txikia dutela toki-mailan (esaterako, bai Latinoamerikan bai Europan, emakumezko alkateak hamarrena baino gutxiago ziren, eta zinegotziak, laurdena baino gutxiago). Salbuespen bat Indian gertatzen da; han, tokiko gobernuen (*panchayat*) postuen %30 emakumeentzat erreserbatuak baitaude. Horrek ageriko eragina du gizarte-gastuaren ereduaren.
- Desberdintasuna.
 - Genero-desparekotasunen atala: “Emakume desagertuak” deritzon fenomenoaren analisia, ahalduntzearen, indarkeriaren, jabetzaren, enpleguaren, soldata-arrailaren, erretiroaren aipamenak).
 - Osasun-laguntzarik jaso ez zuten erditzeen bi heren, gutxi gorabehera, landa-eremuko emakume pobreenak izan ziren.
 - Harrigarria da, nolabait, etxeburutzat gizonak dituzten etxeen eta emakumeak dituztenen arteko banaketa-eredu argi bat ez egotea. Herrialde batzuetan, emakumeak buru dituzten etxeen emaitzak altuagoak dira (Etiopia), eta beste batzuetan, aldiz, gizonak buru duten etxeek dute egoera hobea (Egipto).
- Ahultasun-egoera eta iraunkortasuna.

5. KAPITULUA: Desberdintasuna eta pobrezia neurtzeko berrikuntzak

- Hiru neurri multidimentsional berri.
- Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna neurtzea: Genero Desberdintasunaren Indizea.
- Pobrezia neurtzea: Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea (PMI)

6. KAPITULUA: Programa 2010az geroztik

- Klima-aldaketaren aurreratzea eta mehatxua.
- Ikerkuntza-programa bat:
- Stiglitz-Sen Txostenaren aipua, etxeko lanari eta zainketa-lanari dagokionez.

VI. Azken gogoetak

Aldaketa-garai batean bizi gara, ekonomia-hazkunde mugagabea ekonomiaren eta gizartearen garapenerako idealtzat mistifikatzen zuen ziklo baten amaiera dela esan genezake. Garai honetan, iraganean bultzaturiko politika desarrollistak zalantzan jartzen dira. Politika horietako hutsuneak enpresetako, finantzetako nahiz politikako eliteek bete dituzte, eta nabarmena da sortutako irabaziek eragindako espekulazioa eta pilatzeko nahia. Horrez gain, paradigma berriak lortzeko aukerak bilatzen dira aldi honetan, gizartearen, emakumeen eta gizonen ongizatea ardatzean jartzeko, balio horrek daukan askotariko izaeratik eta naturarekiko dituen loturetatik abiatuta, gure bizi-kalitatearen eta etorkizuneko iraunkortasunaren funtsezko atala baita. Bilaketa horretan, hain zuzen ere, uztar daitezke planteamendu feministak, ekologistak eta giza garapen iraunkorraren inguruko planteamenduak gizarte-justiziaren defentsan, planetako herri guztietako emakumeen eta gizonen bizi-kalitatearen defentsarako elementu egituratzaile gisa.

Horrela, proposamen feministek biziaren toki nagusiaren defentsa dakarte, merkataritzazko harremanen lehentasunaren aurrean, azken horiek dena kapital-metaketa mendean jartzen baitute; proposamen ekologistek planetako biziaren iraunkortasuna jartzen dute toki nagusian, etorkizunerako edozein proposamen sozioekonomikori jarri beharreko baldintza gisa; eta giza garapen iraunkorraren proposamenak, aurreko bi proposamenen antzera, emakumeen eta gizonen bizi-kalitatea jartzen du ardatzean, justizia sozialeko

esparruan banakako zein taldekako askatasunei loturiko irizpide batzuetan oinarrituta. Horrenbestez, horiek guztiek funtsezko osagaiak eskaintzen dituzte, egungo eredu ordezkatzeko hautabidezko estrategiak eztabaidatu eta egituratzeko, gizarte bakoitzeko errealitatei lotutako estrategia batzuk, hain zuzen ere; izan ere, hiru ikuspegietan funtsezko elementua da emakumeek eta gizonen estrategia horiek taxutzen eta haien segimendua eta ebaluazioa egiten parte har dezaten.

Hiru ikuspegiak ondotxo dakite oztupo nagusiak gizarte-desberdintasunak direla pertsonen eta herrien beren bizi-proiektuak diseinatzeko potentzialtasunak gara ditzaten, eta gogobeteko bizitzak, giza kalitadedunak, lor ditzaten. Horregatik, giza garapenaren eta emakumeen ahalduzaren aldeko aurrerapenaren adierazle dira honako faktore hauek: gizarte-kohesioa, klase-hierarkiak ezabatzea eta klase behartsuenetako emakumeentzat zein gizonentzat aukera-berdintasuna bultzatzea.

Jakina, giza garapena feminista eta ekologista ez baltz, ez litzateke iraunkorra epe luzean, eta ezingo litzateke justizia eta biziaren nagusitasuna babestu giza etorkizuneko proiektuen funtsezko osagarri gisa. Horregatik, gure aburuz, hiru ikuspegi horiek egungo egoera ordezkatzeko edozein hautabideren zati izan behar dute, eta etorkizunerako egiten den edozein proposamenetan kontuan izan beharreko oinarritzko irizpideak dira.

Hautabideen bilaketan, teoriako analisi eta gogoeta funtsezkoa dira, bai eta bizi garen errealitatea ezagutzen

aurrera egitea ere, espiritu kritikoa edukita, betiere, eta horretarako garrantzitsua da estatistikazko tresnak edukitzea. Estatistikak sakratutzat hartzeko asmorik gabe, uste dugu, halere, ezinbesteko tresna direla bai politika publikoak diseinatzeko bai haien segimendua eta ebaluazioa egiteko. Estatistika sozioekonomiko tradizionalak sexuaren arabera banakatzen egin diren aurrerapenak aitortzen ditugu, lan honetan aztertutikoa adierazleetan egiazta daitekeenez. Hala ere, pauso hori funtsezkoa eta beharrezkoa den arren, atzera ere nabarmentzen dugu ez dela nahikoa, bi arrazoi nagusi direla eta. Lehenik, sexuaren arabera banakatze hutsak batez besteko emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak egiten dituelako ikusgai, eta batez besteko pertsona horien atzean aztertu beharreko desberdintasun batzuk ezkututzen direlako. Eta, bigarrenik, sarritan estatistikak gizonen neurriera eraikitako mundu bat azaltzeko egokiak direlako, eta gizonen esperientzietara moldatzen direlako. Beharrezkoa da, bada, androzentrikoak ez diren adierazle berriak bilatzea, emakumeen esperientzietara egokitzen zaizkienak.

Laburbilduz, lan honetan genero-ekitatea hautatu dugu azterketaren, gogoetaren eta eztabaida teoriko eta praktikoaren ardatz gisa, zeren emakumeen, gizonen eta haiek bizi diren eta partekatzen dituzten herrien bizi-kalitatearen funtsezko elementuak ikusi eta balioztatzea ahalbidetzen digu. Badakigu lan handia geratzen dela egiteko, genero-ekitatea analisi ekonomikoaren eta politika publikoaren alderdi nagusi bat izan dadin, baina oso positibotzat jotzen ditugu egiten ari diren ahaleginak, gizarte bidezkoago eta ekitate handiagoko baterantz aurrera egiten lagunduko digutela espero dugularik.

VII. Bibliografía

- ACOSTA, Alberto, "El buen vivir, una utopía por (re)construir" en CIP-Ecosocial, *Enfoques sobre bienestar y buen vivir*. Madrid: Fuhem, 2010.
- AMORÓS, Celia, *Hacia una crítica de la razón patriarcal*. Barcelona: Anthropos, 1991.
- ARISTÓTELES, *La Política*. 2007ko edizio elektronikoa: www.laeditorialvirtual.com.ar (2011ko ekainaren 8an kontsultatuta).
- BARRERA, Dalia, MASSOLO, Alejandra eta AGUIRRE, Irma, *Guía para la equidad de género en el municipio*. Ciudad de México: GIMTRAP A.C, 2004.
- BATES, Kevin, *La nueva esclavitud en la economía global*. Madrid: Siglo XXI, 2000.
- BEETHAM, Gwendolyn eta DEMETRIADES, Justina, "Feminist research methodologies and development: overview and practica application" en *Gender & Development*, 15. liburukia (2007), 2. zenbakia.199-216.
- BETTS, Sherry C. eta GLODEY, Patricia, "A multidisciplinary NGO: the interface of home economics with gender and development", *Development in Practice*, 15. liburukia (2005), 1. zenbakia106-114.
- BOWLES, Samuel, GORDON, David M. eta WEISSKOPT, Thomas E., *La economía del despilfarro*. Madrid: Alianza Universidad, 1989.
- BOWLES, Samuel, GORDON, David M. eta WEISSKOPT, Thomas E., *Tras la economía del despilfarro. Una economía democrática para el año 2000*. Madrid: Alianza Universidad, 1992.
- CARRASCO, Cristina, *El trabajo doméstico. Un análisis económico*. Madrid: Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, 1991.
- CEPAL, *¡Ni una más! El derecho a vivir una vida libre de violencia en América Latina y el Caribe*. Cepal, 2007.
- CHARUSHEELA, S. eta ZEIN-ELABDIN, Eiman; "Feminism, Postcolonial thought and Economics", en Marianne, A. Ferber y Nelson, Julie A. (editoras), *Feminist Economics Today, beyond economic man*. Chicago: The University of Chicago Press, 2003.
- CRUZ, Carmen de la, "Seguridad de las mujeres en el espacio público: aportes para las políticas públicas", *Pensamiento iberoamericano*, 2. zenbakia (2008).
- DUBOIS, Alfonso, "El desarrollo humano como paradigma emancipador de las desigualdades, especialmente de la de género: una visión crítica de las bases teóricas de Sen": *Ekonomia Feministari buruzko Jardunaldietan* aurkeztuta, Bilbo, Hegoa, 2005.
- DUBOIS, Alfonso, "Fundamentos teóricos para el desarrollo humano local: las capacidades colectivas". Bilbo, Hegoa, 2010.

- EUROPAKO BATZORDEA, *Informe al Consejo, al Parlamento Europeo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones sobre la Igualdad entre Hombres y Mujeres, 2007*. Bruselas: Comisión de las Comunidades Europeas, 2007.
- EUROPAKO BATZORDEA, *Recomendación Rec (2002)5 del Comité de Ministros a los Estados miembros sobre la protección de la mujer contra la violencia*. 2002.
- FLORES, Walter eta GÓMEZ-SÁNCHEZ, Ismael, “La gobernanza en los Consejos Municipales de Desarrollo de Guatemala: Análisis de actores y relaciones de poder”, *Salud pública*, 12. zenbakia (2010).
- GALBRAITH, John K., *La cultura de la satisfacción*. Bartzelona: Ariel, 1992.
- GANDHI, Mahatma, “Declaración en el gran juicio”, Campos, Rubén (Ed.) *Política de la no violencia*. Madrid: Ed. Catarata, 2008.
- GOUGH, Ian, “El enfoque de las capacidades de M. Nussbaum: un análisis comparado con nuestra teoría de las necesidades humanas”; *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, 100. zenbakia (2008), CIP-Ecosocial/Icaria.
- GRAN JEFE SEATTLE, *Nosotros somos una parte de la tierra*. Baleares: Olañeta, 2007.
- KABEER, Naila, *Realidades trastocadas. Las jerarquías de género en el pensamiento del desarrollo*. Ciudad de México: Paidós, 1998.
- LEÓN-ESCRIBANO, Carmen R. “Violencia y género en América Latina”, *Pensamiento iberoamericano*, 2. zenbakia (2008).
- MONTUSCHI, Luisa, “La libertad, el libre albedrío y el enfoque de las capacidades: el desarrollo humano como libertad”; *CEMA Working Papers*. Buenos Aires: Universidad del CEMA, 2008.
- MARROQUÍN, M^a Dolores eta LEÓN, Quimy de, *Participación de las mujeres en los COCODES. Estudio en 6 departamentos de Guatemala*, Bilbo: Hegoa, 2011.
- MASSOLO, Alejandra, “Género y seguridad ciudadana: el papel y reto de los gobiernos locales”, *Seminario Permanente sobre Violencia*. San Salvador: PNUD, 2005.
- MASSOLO, Alejandra, “El género en el desarrollo local: ¿igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres?”, *II Encuentro internacional retos del desarrollo local* (2007).
- MASSOLO, Alejandra, “Participación política de las mujeres en el ámbito local en América Latina”, Santo Domingo: UN-INSTRAW, 2007.
- MENDIA, Irantzu, *Género, rehabilitación posbélica y construcción de la paz. Aspectos teóricos y aproximación a la experiencia en El Salvador*. Bilbo: Hegoa, 2010.
- NAVARRO, Laura, *Mujeres maltratadas por su pareja en el Salvador*. Granada: Universidad de Granada, 2009.
- NAZIO BATUAK, *Informe de la Cuarta Conferencia Mundial sobre la Mujer*, Beijing: UN, 1995.
- NAZIO BATUAK, *The World's Women Trends and Statistics*. Nueva York: Department of Economic and Social Affairs, 2010.
- NUSSBAUM, Martha, *Las mujeres y el desarrollo humano*. Bartzelona: Herder, 2002.
- NUSSBAUM, Martha, “Mujeres e igualdad según la tesis de las capacidades”, *Revista Internacional del Trabajo*, 118. liburukia, 3. zenbakia (2002), 253-273.
- PÉREZ, Amaia, PAIEWONSKY, Denise eta GARCÍA, Mar, *Cruzando fronteras. Inmigración y desarrollo desde una perspectiva de género*. INSTRAW, 2008.
- POLANYI, Karl, *La Gran Transformación. Los orígenes políticos y económicos de nuestro tiempo*. Mexiko: FCE, 2003.
- PUJOL, Michèle A., *Feminism and Anti-feminism in Early Economic Thought*. Vermont: Edward Elgar, 1992.
- RAVAZI, Shahrashoub eta MILLER, Carol, *From WID to GAD: conceptual shifts in the Women and Development Discourse*. Geneve: UNRISD/UPND, 1995.

- RAVELO, Patricia, "El fenómeno del feminicidio. Una propuesta para su recategorización", *Lanic Etex Collection: Lilas Visiting Resource*, 2008.
- RIGAT-PFLAUM, María, "Gender mainstreaming: un enfoque para la igualdad de género", Nueva sociedad, 218. zenbakia (2008).
- ROSTOW, Walter W., *Las etapas del crecimiento económico. Un manifiesto no comunista*. Madril: Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, 1993.
- SHIVA, Vandana, *Manifiesto para una democracia de la tierra. Justicia, sostenibilidad y paz*. Bartzelona: Paidós, 2006.
- SOCIAL WATCH "Gender equity index 2009". Social Watch, 2009.
- SOUSA, Boaventura de, *El milenio huérfano. Ensayos para una nueva cultura política*. Madrid: Trotta/ILSA, 2005.
- STIGLITZ, Joseph, SEN, Amartya eta FITOUSSI, Jean Paul, "Informe de la Comisión sobre la Medición del Desarrollo Económico y del Progreso Social", 2008.
- THE ECONOMIST, "Gendercide in India. Add sugar and spice", 2011ko apirila.
- THEDE, Nancy, "Descentralización en Bolivia y sus impactos en el desarrollo local. Un avance hacia la inclusión?". Montreal: Université du Quebec, 2006.
- UNDP (1994), *Informe sobre desarrollo humano. Un programa para la Cumbre Mundial sobre Desarrollo Social*.
- UNDP (1995), *Informe sobre desarrollo humano. La revolución hacia la igualdad en la condición de los sexos*.
- UNDP (2002), *Informe Guatemala sobre desarrollo humano, mujeres y salud*.
- UNDP (2006), *Desarrollo humano y género en el marco de los derechos de las mujeres*. Mexiko.
- UNDP (2007), *Desarrollo humano y violencia contra las mujeres en Zacatecas*.
- UNDP (2010), *Informe Regional sobre Desarrollo Humano para América Latina y el Caribe 2010. Actuar sobre el futuro: romper la transmisión intergeneracional de la desigualdad*.
- UNDP (2010), *Informe sobre desarrollo humano 2010. La verdadera riqueza de las naciones: Caminos al desarrollo humano*.
- UNDP, GTZ eta FISDL, *Reflexiones. Desarrollo local con equidad de género*. El Salvador, 2006.
- URQUIJO, Martín J., *El enfoque de las capacidades de Amartya Sen alcance y límites*, Valencia: Universidad de Valencia, 2007.
- WARING, Marilyn, *If women counted*. Londres: Macmillan, 1988.
- WORLD ECONOMIC FORUM, The global Gender Gap Report, www.webforum.org, 2010
- ZABALA, Idoe, "Estrategias alternativas en los debates sobre género y desarrollo", *Revista de economía crítica*, 9 zenbakia (2010).

Taula eta grafikoen zerrenda

1. taula. Genero-adierazle konposatu nagusiak	42
2. taula. Sexuaren arabera banakatutako giza garapenaren adierazleen zerrenda (UNDP, 2010)	43
3. taula. Giza Garapenaren Indizea, 2010	44
4. taula. Genero Desberdintasunaren Indizea, 2010	47
5. taula. Pertzepzio-adierazleak, 2010	49
6. taula. Demografia- eta osasun-adierazleak, 2010	50
7. taula. Genero-desberdintasunaren araberako sailkapena, 2010	51
8. taula. Genero-arloko aipamen nagusiak 2010eko Giza Garapenari buruzko Txostenean	51
1. grafikoa. GDIaren osagaietako genero-arrailek, 2010	47

LAN-KOADERNOAK

CUADERNOS DE TRABAJO

WORKING PAPERS

0. Otra configuración de las relaciones Oeste-Este-Sur. Samir Amin.
1. Movimiento de Mujeres. Nuevo sujeto social emergente en América Latina y El Caribe. Clara Murguialday.
2. El patrimonio internacional y los retos del Sandinismo 1979-89. Xabier Gorostiaga.
3. Desarrollo, Subdesarrollo y Medio Ambiente. Bob Sutcliffe.
4. La Deuda Externa y los trabajadores. Central Única de Trabajadores de Brasil.
5. La estructura familiar afrocolombiana. Bertha Inés Perea.
6. América Latina y la CEE: ¿De la separación al divorcio? Joaquín Arriola y Koldo Unceta.
7. Los nuevos internacionalismos. Peter Waterman.
8. Las transformaciones del sistema transnacional en el periodo de crisis. Xoaquin Fernández.
9. La carga de la Deuda Externa. Bob Sutcliffe.
10. Los EE.UU. en Centroamérica, 1980-1990. ¿Ayuda económica o seguridad nacional? José Antonio Sanahuja.
11. Desarrollo Humano: una valoración crítica del concepto y del índice. Bob Sutcliffe.
12. El imposible pasado y posible futuro del internacionalismo. Peter Waterman.
13. 50 años de Bretton Woods: problemas e interrogantes de la economía mundial. Koldo Unceta y Patxi Zabala.
14. El empleo femenino en las manufacturas para exportación de los países de reciente industrialización. Idoye Zabala.
15. Guerra y hambruna en África. Consideraciones sobre la Ayuda Humanitaria. Karlos Pérez de Armiño.
16. Cultura, Comunicación y Desarrollo. Algunos elementos para su análisis. Juan Carlos Miguel de Bustos.
17. Igualdad, Desarrollo y Paz. Luces y sombras de la acción internacional por los derechos de las mujeres. Itziar Hernández y Arantxa Rodríguez.
18. Crisis económica y droga en la región andina. Luis Guridi.
19. Educación para el Desarrollo. El Espacio olvidado de la Cooperación. Miguel Argibay, Gema Celorio y Juanjo Celorio.
20. Un análisis de la desigualdad entre los hombres y las mujeres en Salud, Educación, Renta y Desarrollo. María Casilda Laso de la Vega y Ana Marta Urrutia.
21. Liberalización, Globalización y Sostenibilidad. Roberto Bermejo Gómez de Segura.

Bibliografía Especializada en Medio Ambiente y Desarrollo. Centro de documentación Hegoa.
22. El futuro del hambre. Población, alimentación y pobreza en las primeras décadas del siglo XXI. Karlos Pérez de Armiño.
23. Integración económica regional en África Subsahariana. Eduardo Bidaurrezaga Aurre.
24. Vulnerabilidad y Desastres. Causas estructurales y procesos de la crisis de África. Karlos Pérez de Armiño.
25. Políticas sociales aplicadas en América Latina. Análisis de la evolución de los paradigmas en las políticas sociales de América Latina en la década de los 90. Iñaki Valencia.
26. Equidad, bienestar y participación: bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro. Alfonso Dubois.
27. Justicia y reconciliación. El papel de la verdad y la justicia en la reconstrucción de sociedades fracturadas por la violencia. Carlos Martín Beristain.
28. La Organización Mundial de Comercio, paradigma de la globalización neoliberal. Patxi Zabala.
29. La evaluación ex-post o de impacto. Un reto para la gestión de proyectos de cooperación internacional al desarrollo. Lara González.
30. Desarrollo y promoción de capacidades: luces y sombras de la cooperación técnica. José Antonio Alonso.
31. A more or less unequal world? World income distribution in the 20th century.

¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX. Bob Sutcliffe.

32. ¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX.
Munduko desbertasunak, gora ala behera? Munduko errentaren banaketa XX mendean. Bob Sutcliffe.
33. La vinculación ayuda humanitaria - cooperación al desarrollo. Objetivos, puesta en práctica y críticas. Karlos Pérez de Armiño.
34. Cooperación internacional, construcción de la paz y democratización en el África Austral. Eduardo Bidaurrazaga y Jokin Alberdi.
35. Nuevas tecnologías y participación política en tiempos de globalización. Sara López, Gustavo Roig e Igor Sábada.
36. Nuevas tecnologías, educación y sociedad. Perspectivas críticas. Angeles Díez Rodríguez, Roberto Aparici y Alfonso Gutiérrez Martín.
37. Nuevas tecnologías de la comunicación para el Desarrollo Humano. Alfonso Dubois y Juan José Cortés.
38. Apropiarse de Internet para el cambio social. Hacia un uso estratégico de las nuevas tecnologías por las organizaciones transnacionales de la sociedad civil. Social Science Research Council.
39. La participación: estado de la cuestión. Asier Blas, y Pedro Ibarra.
40. Crisis y gestión del sistema global. Paradojas y alternativas en la globalización. Mariano Aguirre.
¿Hacia una política post-representativa? La participación en el siglo XXI. Jenny Pearce.
41. El Banco Mundial y su influencia en las mujeres y en las relaciones de género. Idoye Zabala.
42. ¿Ser como Dinamarca? Una revisión de los debates sobre gobernanza y ayuda al desarrollo. Miguel González Martín.
43. Los presupuestos con enfoque de género: una apuesta feminista a favor de la equidad en las políticas públicas. Yolanda Jubeto.
Los retos de la globalización y los intentos locales de crear presupuestos gubernamentales equitativos. Diane Elson.
44. Políticas Económicas y Sociales y Desarrollo Humano Local en América Latina. El caso de Venezuela. Mikel de la Fuente Lavin, Roberto Viciano Pastor, Rubén Martínez Dalmau, Alberto Montero Soler, Josep Manel Busqueta Franco y Roberto Magallanes.
45. La salud como derecho y el rol social de los estados y de la comunidad donante ante el VIH/ SIDA: Un análisis crítico de la respuesta global a la pandemia. Juan Garay.
El virus de la Inmunodeficiencia Humana y sus Colaboradores. Bob Sutcliffe.
46. Capital social: ¿despolitización del desarrollo o posibilidad de una política más inclusiva desde lo local? Javier Arellano Yanguas.
47. Temas sobre Gobernanza y Cooperación al Desarrollo Miguel González Martín, Alina Rocha Menocal, Verena Fritz, Mikel Barreda, Jokin Alberdi Bidaguren, Ana R. Alcalde, José María Larrú y Javier Arellano Yanguas.
48. Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharra. Irantzu Mendia Azkue.
49. Microfinanzas y desarrollo: situación actual, debates y perspectivas. Jorge Gutiérrez Goiria.
50. Las mujeres en la rehabilitación posbélica de Bosnia-Herzegovina: entre el olvido y la resistencia. Irantzu Mendia Azkue.
51. La acción humanitaria como instrumento para la construcción de la paz. Herramientas, potencialidades y críticas. Karlos Pérez de Armiño e Iker Zirion.
52. Menos es más: del desarrollo sostenible al decrecimiento sostenible. Roberto Bermejo, Iñaki Arto, David Hoyos y Eneko Garmendia.
53. Menos es más: del desarrollo sostenible al decrecimiento sostenible. Roberto Bermejo, Iñaki Arto, David Hoyos y Eneko Garmendia.
54. La incorporación de la participación y la equidad de género en las cooperaciones autonómicas. María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.
Genero-ekitatea eta partaidetza, autonomia erkidegoen lankidetzetan. María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.
55. Análisis sobre Desarrollo Humano Local, equidad de género y participación de una década de Cooperación Vasca. Los casos de Ecuador, Guatemala, Perú y la RASD: 1998-2008. Unai Villalba, Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
Hamar Urteko Euskal Lankidetzaren azterketa. Ekuador, Guatemala, Peru eta SEAD: 1998-2008. Unai Villalba, Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.

